


IUS ET LITTERAE: HEZUR ONDOKO MAMIA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Peru Irastortza Santxo

Zuzenbide Gradu Amaierako Lana

2023ko maiatzaren 15ean

Zuzenbide Gradua

2022-23 Ikasturtea

Zuzendaria: **Iker Nabaskues Martinez de Eulate**

“Hizkuntza ezberdinetan hitz egiten dugu: gure mintzaira ulertezina da hemen. Bidaiari handiak ez dira beren munduaren mugetatik harantzago joan. Gu ez gara kristauak. Kristo Ebolin geratu zen”

Carlo Levi

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Korrontearen garapen historikoa. Literatura Zuzenbidean? Zuzenbidea Literatur molde gisa?.....	7
2.1 <i>Law & Literature</i> , etenik gabeko marea gora.....	7
2.2 <i>Law & Literature</i> korronte iusfilosofikoari kritikak.....	11
3. Espainiar ordenamendu juridikoaren beharrak. Zer eskain diezaioke Literaturak Zuzenbideari?	19
3.1 Espainiar ordenamendu juridikoaren eta haren operadore juridikoen jardunaren gabeziak.....	19
3.2 Literatura Zuzenbidearen gabeziak osatzeko tresna gisa.	24
4. Unai Elorriaga. Obra eta autorearen kosmobisioa.....	34
4.1 Biografia eta testuinguru soziokulturala.....	34
4.2 Autorearentzako literaturaren balioa.	37
5. <i>Iazko Hezurak</i> liburuaren analisi <i>iusfilosofikoa</i>	39
5.1 Lanaren gorputza, baliabide literarioak eta eztabaida juridikoa.....	39
5.2 Literatura terminologia juridikoaren baitako hausnarketarako tresna gisa. Genozidioa.....	52
5.3 Zuzenbidearen eta justiziaren kontzeptuen ilustrazioa <i>Iazko Hezurak</i> lanean.	54
Irene Arrias: Lekukoa. Epailea. Akusatua. Biktima.	54
6. Ondorioak	60
7. Eranskinak	64
8. Bibliografia.....	67
8.1 Liburuak	67
8.2 Artikuluak.....	71
8.3 Literatur lanak.....	75
8.4 Legedia	76

8.5 Jurisprudentzia.....	77
8.6 Web-orriak.....	77
8.7 Txostenak	78

Laburpena: Zuzenbidearen eta Literaturaren arteko bateragarritasuna aztertuko da, ikerketa euskal literatura garaikidearen adierazpide gorenetakoa den *Iazko Hezurrak* eleberriaren baitan ardaztuz. Horretarako, *Law & Literature* korrante *iusfilosofikoaren* historia, teoria eta dialektikaz gain, ordenamendu juridiko espainiarraren eta haren operadore juridikoen gabeziak identifikatuko dira, haiek ase bidean literaturaren balizko emankortasunaren inguruko ondorioak ateratzeko.

Gako-hitzak: zuzenbidea, literatura, narratiba, fikzioa, justizia, memoria

Resumen: Se somete a análisis la posible compatibilidad entre Derecho y Literatura a través del estudio de la que es considerada una de las obras cumbre de la literatura contemporánea vasca, *Iazko Hezurrak*. Además de investigar sobre la historia, teoría y dialéctica de la corriente *iusfilosófica Law & Literature*, se tratará de identificar las principales carencias del ordenamiento jurídico español y de sus operadores jurídicos, con el fin de extraer conclusiones acerca de las posibles aportaciones que la literatura podría hacer para solventarlas.

Palabras clave: derecho, literatura, narrativa, ficción, justicia, memoria

Abstract: The compatibility between *Law & Literature* will be analysed, focusing the research on which is one of the greatest expressions of contemporary Basque literature, *Iazko Hezurrak*. To this end, in addition to the history, theory and dialectic of the *iusphilosophical Law & Literature* movement, the shortcomings of the Spanish legal system and its legal operators will be identified aiming to draw conclusions on the possible fertility of literature in order to satisfy them.

Keywords: law, literature, narrative, fiction, justice, memory

1. Sarrera.

Zuzenbidea nireganaino ekarri zuena izan zelako akaso, edota Zuzenbidea bide zuzenetik eramateko bidelagun aproposa izan daitekeela susmatu nuelako, agian. Kontua, ordea, zera da: ez nuen zalantza izpirik izan Zuzenbidea eta Literaturaren inguruko ikerlana egiteko paradaren aurrean. “*Hau dut neurea*”.

Haur nintzenetik maite izan dut irakurtzea. Zertxobait geroago ikasi nuen idazten, eta Saramagoren hitzaldi famatu hura¹ irakurtzearekin bat, gerora etorriko zen urrats bital oro baldintzatuko zuen errealitate batez ohartu nintzen. Idazlea izan nahi nuen.

Irakurri eta irakurri jarraitu nuen institutu garaia iritsi zen arte. Bertan, inoiz izan dudana irakaslerik onenak irakatsi zizkidan egun Literatura Unibertsalari buruz dakizkidanak, Unai Elorriaga Lopez de Letonak. Hark ere begiko hartu ninduen, sobra ere, eta orduz geroztik harremanean jarraitu dugu, egundaino.

Jakin badakit korrante egiaz polemikoa dela Zuzenbidea eta Literatura batzen dituen, ikerketa-lan hau gauzatu ahala kontsultatu ditudan hainbat legelarik erantzun gisa eman izan dizkidan nagizko ufada eszeptikoez frogatu gisara. Ez nuke nahi inork pentsatzerik bi esparru ustez horren desberdinok bateratzera eraman nauena literaturarekiko lilura hutsa izan dela; egiaz uste nuen Zuzenbidea eta Literatura osagarriak izan daitezkeela, eta erabatekotasunera ahal beste gerturatzen den objektibotasun batetik iharduten ahalegindu naiz, probetxuzko ikerketa akademiko bat osatze aldera. Ez da lan erraza suertatu, ez eta gutxiago ere, ibilian errealitate desatsegin bat baino gehiagorekin egin baitut topo. Are zailagoa, aitzitik, aztertzeaz naizen lana Zuzenbidean aditua ez den eta aritua izan ez den idazle batek ekoitzi zuenean. Ñabardura hau, ordea, ez da oztopo izan, dagoeneko sumatzen nuen gisara, *Iazko Hezurrak*² eduki juridikoz lepo dagoen obra baita.

Lan honen helburua, oro har, 80ko hamarkadatik desamerikanizatzeko eternal batean dindilizka dabilen korrante iusfilosofikoaren jatorria, zergatiak, aurkako kritikak, kritiken aurreko defentsak... aztertzea izan da, gerora pentsamolde honen baliozkotasuna, oso

¹ <https://www.inf.utfsm.cl/~ric/textos/saramagodiscursionobel.pdf> (azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua)

² ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurrak*, Susa (Narratiba).

propio sentitzen dudan eta balio literario deskribaezina duen liburu bat baliatuz, ezbaian jartzeko.

XXI. mendean *Law & Literature* mugimenduaren baliozkotasuna, eraginkortasuna eta egokigarritasuna zalantzan jartzea dut xede, emaitzak hoztasun erabateko batetik tratatzea ezinezko suertatuko zaidanaren jakitun, baina irrikaturiko objektibitate horretara ondoratzeke ahalegin guztiak eginez. Ez naiz, bada, orain artean egindako hurbilketak aztertzeraz mugatuko; Literaturak gure ordenamendu juridikoari zein haren operadore juridikoen jardunari zerbait eskain diezaiokeen aztertuko dut, eta hala izatekotan, eman diezaiokeena zer den eta nola ekar diezaiokeen idoro. Lanaren idazkerari darion kutsu literarioa, bestalde, hitz jostura originalagoari eskerrak ikerketa akademikoek beregana dezaketen freskotasuna zein jakituria transmititzeko gaitasuna frogatzea xede zuen hautu kontziente baten emaitza izan da.

Iazko Hezurrak ez da edozein obra. Neroni bezalaxe Algortan jaio, hezia izan eta hazi den pertsona baten istorioa estakurutzat, gizateriaren bilakaera modernoa baldintzatu duten zenbait indarkeria-egintza, krimen eta pasadizo aletuko dira obran zehar, idazkera soil bezain neurtu baten konpaspian. Honako lanak Espainiako Literatur Kritikarien Elkartearen 2014ko Kritika Saria³ eskuratu zuen, eta Espainiako Narratiba Sari Nazionalean eta Euskadi Literatura Sarian ere finalista izatea egokitu zitzaion. Elorriaga euskal literatura garaikidearen erakusgarri nagusietako bat da, nagusiena ez bada: Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi duten euskal idazle bakarretakoa da, Bernardo Atxaga⁴ eta Kirmen Uriberekin⁵ batera. Haren azken lana den *Iturria*⁶ ere saritua izan zen Kritika sarietan.

Zuzenbidea eta Literatura korrantea ez da, egundaino, euskaraz idatzitako obra baten bitartez aztertu; ikerlan xume honen bidez, beraz, Zuzenbidearen garapenean probetxugarri izateko aukera eskain dezakeen korrante bat geurera gerturatzeko ahalegina egin dut, euskaratik eta euskaraz Zuzenbidea egin eta interpreta daitekeela deskubritze, eta hala ahal izatekotan, frogatze bidean.

³ Kirol eta Kultura Ministeritzaren on-line datu-basetik eskuraturiko datuak. <https://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/libro/premios.html> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

⁴ ATXAGA, B. (1988). *Obabakoak*, Erein. 1989an izan zen saritua.

⁵ URIBE, K. (2008). *Bilbao-New York-Bilbao*, Elkar. 2009an izan zen saritua.

⁶ ELORRIAGA, U. (2019). *Iturria*, Susa.

Autorearekin hilabeteetan prestaturiko elkarrizketa luze bat izan nuen lan hau osatze aldera, eta baita harekin sare bidezko kontaktua mantendu ere⁷. Horrenbeste erpin juridiko jorratzen dituen eleberri bat idazteko kontuan izan beharreko ez gain, haren haurtzaroz, formazioaz, lan egiteko eraz eta auzi desberdinen jirako pentsamoldeaz aritu ginen, eleberria girotzen duten geure Algortako txoko guztiak bisitatzen genituen bitartean. Lan asebetegarria bezain atsegina izan da, Unairen hurbileko laguntza eta babesa ezinbesteko suertatu zaizkidalarik. Haatik, eta Diaz Gargarik⁸ Nussbaumi eginiko kritika berbera jasateko arriskua saiheste aldera, argi utzi beharra dago, hasi aurretik, Zuzenbidearen eta Literaturaren arteko balizko elkarreragina aztertzeke hautatu nuen obra ez zela modu guztiz seguruan ondorio konkretu batzuetara iristea ahalbidetuko zidan koartada literarioa, ez eta gutxiago ere. *Iazko Hezurak* haren balio literarioagatik, gorputz mamitsuagatik zein autorearekiko miresmenagatik izan da hautatua, eskusiboki, eta ez horrenbeste hain eztabaidatua den korronte iusfilosofikoaren defentsan izan lezakeen balizko zeresan handiagatik.

Egun arte mugimenduak eginiko ekarpenen balioa zalantzan jarri edo azpimarratzea izango dut asmo, beraz, hartarako bidaide euskal eleberri moderno handienetako bat eta ahal besteko zintzotasun zientifikoa hartuz. Ba ote dago, lurrunaz haraindi, mamirik hezur artean?

2. Korrontearen garapen historikoa. Literatura Zuzenbidean? Zuzenbidea Literatur molde gisa?

2.1 *Law & Literature*, etenik gabeko marea gora.

Idea handi guztiak zerrenda batekin hasten omen dira. Itxura batean, *Law & Literature* korronte *iusfilosofikoari* John H. Wigmorek⁹ eman zion hastapena, eduki juridikoaren baitan eratzen ziren fikzio literario andana zerrenda ireki batean batuz. Akademian, alabaina, beste bi autore kokatzen dituzte mugimendu honen jatorrian, ia aho batez: James

⁷ Propio elkartu ginen Elorriaga eta biok Algortan, lanaren xehetasunak azaldu eta elkarrizketa luze bat egiteko. Liburua girotzen duten herriko txoko guztiak erakutsi zizkidan autoreak pertsonalki, eta baita haiek haren lanean txertatzearen zergatiak azaldu ere. Dena dela, elkar gehiagotan ikusi dugu, eta lanaren eboluzioaren jakinaren gainean izan dut etengabe, sare bidez.

⁸ DIEZ GARGARI, R. (2008) *Dejemos en paz a la literatura*. Isonomía, Revista de Filosofía y Teoría del Derecho. 29. zen.

⁹ WIGMORE, J. H. (1907). *List of legal novels*. Ill. LR, 2, 574.

Boyd Whyte¹⁰ alde batetik, zeinak justizia eta legea kontzeptu zabal gisa hauteman eta corpus literarioa sorkuntza juridiko eraginkorrerako zimendu gisa identifikatu zuen, eta Benjamin Cardozo¹¹ bestetik, ordura arteko prosa juridiko tatxagabetik urrun kokatzen zen idazkera umoretsu eta praktikoa funtsaturiko sententziak ematen zituen epailea.

Mugimenduaren oinarria AEBetan finkatu izana ez da kasualitatea; Zuzenbidearen kontzeptu zientifikoa aldarrikatzen zuen formalismo juridikoaren aurkako erreakzio gisa eratu zen *Law & Literature* mugimendua¹². Arau juridikoak era mekaniko bezain objektiboan aurreikusten zituen *Zuzenbidearen analisi ekonomikoaren*¹³ gorakadaren aurrean, eta legelari-zientzialariaren figura horren osotasuna dudan jarriz, legelari alternatibo bat imajinatzeari ekin zitzaion: literaturaren baloreak baliatzeko gai izango zen legelari gizatiarra, hostasunik gabea, guttiz aurreikusteko ezinezkoa; legelari justua, finean. Zuzenbidea orduko jendardean eratzen ari ziren behar berrietara hurreratzeko asmoz erditu zen literaturarekiko konexio hau, zientzia juridikoari xede horretan eraginkor izatea eragozten zion neurritz gorako formalismo hura erazteko gogoz. Zuzenbidea eta Ekonomia¹⁴ kritikatu izana da, hain zuzen ere, Zuzenbidea eta Literaturaren edota *Critical Legal Studies (CLS)*¹⁵ lez txit ezagun egin zen eskolaren ezaugarrietako bat, zeina disziplinarrekotasunaren xerka berberaren baitan sortu zen aztergai dugun korronea baino geroxeago. Zuzenbidea ekonomiaren arabera aplikatzeak islatzen duen gizaki materialista eta kalkulatuzailearen aurka agertzen dira teoriko literarioak. Izan ere, beste haien ustez, interes publikoa zerbitzeko modurik egokiena aberastasuna maximizatzea ahalbidetzen duten formula ekonomikoen aplikazioaren bidez kostu soziala ahal beste gutxitzea da. Kostu eta mozkinen teoria akritikoki Zuzenbideari

¹⁰ WHITE, B. J. (1973). *The Legal Imagination: Studies in the Nature of Legal Thought and Expression*. Little, Brown and Co., Boston.

¹¹ CARDOZO, N. B. (1925) *Law & Literature*. Haren omenez izendatu zuen New Yorkeko Yeshiva unibertsitateak haren Zuzenbide fakultatea: *The Benjamin N. Cardozo School of Law*. Bertan argitaratzen da, University of California Pressekin elkarlanean, “*Law & Literature*” aldizkari ezaguna.

¹² PÉREZ COLLADOS, J. M. (2016). *Derecho y Literatura*.

¹³ *Zuzenbidearen analisi ekonomikoa* arrazoiketa juridikoan ekonomiari dagozkion metodoak aplikatzea aldarrikatzen duen Zuzenbidearen teoriaren baitako korrone bat da. Arau juridikoen eragina aurreikusteko, zientzia ekonomikoaren berezko kontzeptuez eta metodologiaz baliatzeko beharra sustatzen du. Era horretan, posible du zehaztea zein lege edo xedapen juridiko diren ekonomikoki eraginkorrak eta, baita ere zer neurri aldarrikatu edo hartu beharko lirartekeen aurreikustea. Posner, R. A. (2014). *Economic analysis of law*. Aspen Publishing.

¹⁴ POSNER, R. (1979). Utilitarianism, economics and legal theory. *Journal of legal studies*, n. 8.

¹⁵ KENNEDY, D.. (2000). A Critique of Adjudication: Fin de Siecle. *Cardozo L. Rev.*, 22, 991. Obra honekin batera

aplikatzeak ekar zezakeen arriskua aurreikusiz, eta haren aurkako erreakzio humanista gisa, sortu zen, bada, Zuzenbidea eta Literaturaren mugimendua¹⁶.

Zuzenbidea eta Literaturaren arteko elkarreragina gauzatzeko lau perspektiba hauteman dira, historikoki¹⁷:

1. **Literaturaren zuzenbidea**; hots, ikuspegi normatiboa. Literatura-ekoizpena arautzen duten arau zibil, administratibo eta penalak aztertzeaz arduratzen den alorra: jabetza intelektualaren edo adierazpen-askatasunaren baitako legedia, oro har.
2. **Zuzenbidea literatur molde gisa**; hots, ikuspegi hermeneutikoa. Zuzenbidea eta literatura nolakotzen dituzten izendatzaile komunak bilatzen ahalegintzen da, ezaugarrien pilaketak Zuzenbidearen azterketa eraginkorragoa ahalbideratuko duenaren susmoari jarraiki. Biak hitzen erredakzioan oinarritzen direnez gero, posible omen da, korrante honen jarraitzaileen ustetan, testu juridikoen eraketa, forma eta estiloa perspektiba literario batetik epaitzea, eta ikuspuntu berberetik hobekuntzak iradokitzea.
3. **Literatura Zuzenbidean**; hots, ikuspegi narratiboa. Zuzenbidearen alderik humanoenaren bilaketan oinarritzen da, produkzio juridikoaren baitan sozialki literatura gisa ulertzen den horren zantzuak aurkitu eta aztarna horiek justizia are justuago bat lortze bidean izan dezaketen zeresana azpimarratu asmoz. Zuzenbidea egin eta egikaritzeaz arduratzen direnen espresio-moldea samurtze aldera, literatur kritikaren teknikak erabiltzearen aldeko apustua egiten dute, bestalde.
4. **Zuzenbidea Literaturan**; hots, ikuspegi kritikoa. Gai juridikoak aztertzen dituzten literatura-testuak aztertzea du meta: justiziaren zentzua, klase- zein genero-berdintasuna Zuzenbidean, zigorren nolakotasuna...

¹⁶ BOYD WHITE, J. (2008). *Establishing Relations Between Law and Other Forms of Thought and Language*. *Erasmus Law Review*, 1, 3-22.

¹⁷ BUENO OCHOA, L. (2021). *Reflexiones sobre la interacción entre derecho literatura: A propósito de una experiencia docente*. AMAYA, A. (2012). *Derecho y literatura*.

Boyd Whitek¹⁸ legearen ikuspegiak literaturan duen garrantzia onartzen badu ere, legea literatura garatzeko plataforma jasangarriagotzat du, beronek gaitasuna duelako ustez zerikusirik ez duten bi diziplinak konbinatu eta helburu konkretu bat erdiesteko: kultura definitu eta harremanak sortzea.

Ronald Dworkin¹⁹ bezalako adituek, bestalde, zuzenbidea literaturaren baitako molde bat bailitzan aplikatzeko ahalegina egiten dute. Lege testuen zein zuzenbide idatziaren esanahia, beste edozein literatur alerekin gerta bezalaxe, interpretazio kritikoaren bidez baino aurkitu ezin dela baieztatzen dute²⁰. Osotasunaren balioari efizientziaren, justiziaren eta ekitatearen gainetik lehentasuna ematen dion Zuzenbidearen teoria filosofikoa dugu honakoa, beraz.

Europar zinez hedatua dagoen baina sona apalagoko ekoizpena izan duen mugimendua da aztertzeaz garena. Beka-sare²¹ oparo batez gain, goi-mailako zenbait europar unibertsitateetako Zuzenbide fakultateetan²² honako adarraren baitan murgiltzen darraikite. Korrontearen izaera estatubatuarra ezeztatzeaz gainera, ere egin dira

¹⁸ Beronen izena izan da onartuena akademian korrontearen abiatzaile gisa. WARD, Ian. (1993). *Law & Literature*. Law and Critique, Vol. IV, no.1, Spring 1993, p. 44.

¹⁹ Zuzenbidearen ulermena hobetu dezakegula sinisten dut, horretarako interpretazio juridikoa beste jakintza-arlo batzuetako interpretazioarekin alderatuz, bereziki literaturarekin. *Literatura-lanen interpretazioak kultur-ingurunea konprenitze bidean ezinbesteko laguntza eskaintzen du; era horretan, legea hobeto ulertzeko tresna izan daiteke literatura*. DWORKIN, R. M. (1982). "Ley como interpretación". JSTOR: La política de la interpretación . 9. bol., 1. zen. 179. or.

²⁰ Zinez interpretazio polemiko eta kritikatu da berau. Hebert Harten *The Concept of Law* oinarritzat hartuz, Dworkinek Harten kontzeptzio juridiko positibistari eginiko kritikei buelta emateko ahalegin entzutetsuak egin direlarik. Zuzenbidearen iturri sozialen tesia aurkeztu zuen Hartek, zeinen aburuz Zuzenbidearen existentzia sozialki onartutako praktika sozial baten mende dago, eta horrek zehazten du zein diren baliozko arau juridikoen iturriak. Dworkinen hitzetan, aitzitik, positibismo juridikoa, oro har, epaile, abokatu eta herritarrek baliozko zuzenbideari muinaren baitan partekatzen dituzten irizpideak adierazten ahalegintzen da. Horretarako egintzak lege gisa etiketatzeko, edo proposamen juridiko enpiriko edo faltsuak bereizteko aukera ematen diguten arauak definitu behar dira, eta honek dakar arazoa, autorearen esanetan. Izan ere, irizpide partekatu horiek ez dira existitzen, izan balira ez bailegoke Zuzenbideari buruzko eztabaida teorikorik. COLEMAN, J. L. (2001). *Hart's Postscript: Essays on the Postscript to 'The Concept of Law'* (Oxford, 2001; online edn, Oxford Academic, 22 Mar. 2012), MELERO, M. C. *Derecho e interpretación en Ronald Dworkin*.

²¹ Zuzenbide eta literaturari buruzko beken Europako sarea, Jeanne Gaakeer Rotterdameko Erasmus Unibertsitateko irakasleak eta Greta Olson Justus-Liebig Universität Giessen unibertsitateko irakasleak zuzendua. GAAKEER, J.. (1998). *An Introduction to the Work of James Boyd White* (Michigango unibertsitatea). GAAKEER, A. M. P., OST, F.. (2008) *Crossing Borders: law, language and Literature*, Wolf Legal Editores, Herbehereak.

²² Alemaniako Bremengo Unibertsitateko "European Law & Literature", Europako zuzenbidearen, literaturaren eta kulturaren arteko harremana aztertzea helburu nagusi duena. Zuzenbide eta Literaturaren bi Sare Italiarrak (AIDEL eta ISLL) eta Zuzenbide eta Literaturaren Sare Nordikoa (Bergengo Unibertsitatea ardatz).

Hori gutxi balitz, gai hori lantzen duten hainbat kongresu eta sinposio daude.

geurean²³, prisma anitz bezain ugarietatik haien ekarpenak egin dituzten autorez josirik dagoelarik kontinente zaharra: Daniela Carpi²⁴, Kieran Dolin²⁵, Maria Aristodemou²⁶ edo Ian Ward²⁷ dira, besteak beste, adierazgarrienak.

Law & Literature mugimenduaren hedapena, hortaz, mendebaldeko ardatzetik²⁸ hasi eta ekialde urruneraino²⁹ ailegatu da. Esan liteke, beraz, ustez era paraleloan funtzionatzen duten bi disziplinen arteko mugaz-gaindiko hurbilketa saiakera antzu bat izatetik urruti dagoela; ez da saiakera hutsa, luparen pean dagoen eta etenik gabe garatzen ari den korrante *iusfilosofiko* praktiko bat baizik.

2.2 Law & Literature korrante iusfilosofikoari kritikak.

Mugimenduaren jatorria argi izanik, haren noranzkoan zuzentasuna ezbaian jartzera ausartu diren ahotsak aztertzea dagokigu orain.

Elorriaga irakasleak, haren literatur klaseetan, zita bat egin ohi zigun: “*Hiru gai nagusi daude literaturan: maitasuna, heriotza eta eltxoak*”³⁰. Esanari tiraka, Richard Posner epaile estatubatuarra, intsektu dipteroen ordeztan, Zuzenbidea aipatu zuen Literaturen hizpide gorenetariko gisa³¹: “*Maitasuna, heldutasuna, istripuak, abentura, erlijioa, adiskidetasuna, alienazioa, heriotza, gerra eta artea bera bezala, legea giza*

²³ Europar akademikoei zera eskatzen die, “gogoan izan dezatela gure lege-sistemen eta lege-istorioen berezitasunak kontuan hartu behar direla legea estetikarekin aurkaratzen dugunean eta legea literatura-arloko kontsultarako erabiltzen dugunean”. OLSON, Greta. (2010). *Des-americanising Law & Literature Narratives: Opening Up the Story*. Law & Literature aldizkaria.

²⁴ Shakespeare eta Zuzenbidearen arteko lotura jorratu dituen autorea, platonismoak autore anglosaxoiean izandako eraginean ere sakondu duela.

²⁵ Errenazimendukotik literatura viktoriar eta testu modernoetara bitarteko garai historikoan argitara emaniko lanak aztertzen ditu, uztarritzat krimena, feminismoa, arraza eta kolonialismoari hartuz. DOLIN, K. (2007). *A Critical Introduction to Law & Literature*. Cambridge: Cambridge University Press. doi:10.1017/CBO9780511642418.

²⁶ Antzinako Greziatik hasi eta eleberri modernoetarainoko hainbat testu aztertzen ditu, perspektiba postmoderno eta feministarekin. ARISTODEMOU, M. (2000). *Law & Literature: journeys from her to eternity*.

²⁷ Shakespeare, Umberto Eco edo Ivan Klima autoreen lanak aztertzen ditu, eta baita haur literatura ere, Zuzenbidearen aplikagarritasunari begira. WARD, I. (1995). *Law & Literature: possibilities and perspectives*. Cambridge University Press.

²⁸ Gaur egun, zuzenbidea eta literatura 'Ameriketako unibertsitateen % 40 baino gehiagoren programan dago. TRINDADE, A. K. eta GUBERT R. M., (2009). *Derecho y literatura. Acercamientos y perspectivas para repensar el Derecho*, “Ambrosio L. Gioja” aldizkaria.

²⁹ Una base de datos actualizada sobre derecho y literatura en Nueva Zelanda puede encontrarse en Txinan mugimenduak izan duen garapena aztertzeko, ikus: *The Orphan of China: Law & Literature in Contemporary China*, *Cardozo Law Review* 26 (2004-2005). Zeelanda Berriaren kasuan, jo www.victoria.ac.nz/lawlit web-orrira (azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

³⁰ MONTERROSO, A. (1972). *Movimiento Perpetuo*.

³¹ POSNER, R. A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition. 19. Orria.

esperientiaren ezaugarri iraunkorretariko bat da”. Kontaezinak dira lege zein justiziarekiko gorabeherak ardatz hartzen dituzten literatur lanak, eta arestian aipatu bezala, haiek zerrendatzeaz arduratu diren autoreak ugariak izan arren, Boyd Whitek³² ekin zion mugimendu iusliterarioa mamitzeari. Posnerrek, ordea, argi dio haren lanik ezagunenetarikoan ez dagoela legeen deskubrimendua ardatz nagusi eta erabatekotzat hartzen duen literatur fikziorik. Literatur lan ororen ardatza beti izan da giza kondizioa, eta kondizio horretan sakontzen laguntzeko beste tresnetariko bat baino ez da izan legeen edo justiziaren aipamena literaturan, haren ustetan.

Law & Literature lanak *vendetta* edo *beef*³³ baten tankera dauka, hasiera batean Robin Westen interpelaziotzat jo daitekeen *Authority, Autonomy and Choice: The Role of Consent in the Moral and Political Visions of Franz Kafka and Richard Posner*³⁴ lanari erantzuteko eta autoreak horrenbesteko fedez babesten zuen Zuzenbidea eta Ekonomia eskolaren tesia defendatzeko idatzia izan baitzen³⁵. Westen hitzetan, Franz Kafkaren produkzio literarioak mundu bat sortzen du, non ontasuna eta gaiztakeria, zuzena eta okerra, ez-deusak diren erabat, balizko ezein esanahi edo balio erauziak izan baitzaizkie.

³² WHITE, B. J. (1973). *The Legal Imagination, Studies in the Nature of Legal Thought and Expression*. Hau izan zen, Posnerren ustez, mugimenduari hasiera eman zion obra, lehenago aipatu bezalaxe (ikus 2. oin-oharra). POSNER, R. A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 469. Orria.

³³ WEISBERG, R. H. (1988). *Entering with a vengeance: Posner on Law & Literature*. *Stan. L. Rev.*, 41, 1597.

³⁴ Artikulu honek argudiatzen du Posnerrek aberastasunaren maximizazioa onarpen-printzipioen (*principles of consent*) arabera eratzea defendatzeko egin zuen ahalegina giza motibazioaren teoria psikologiko sinple eta faltsu batean oinarritzen dela. Posnerren argumentuak bi oinarri ditu: implizituki asumitzen du norbanakoek erabateko prestutasuna dutela haien mundua nola aldatzen den ikusteko haien ongizate ekonomikoaren mesedetan, eta esplizituki onartzen du onarpen-printzipioak, bere horretan, autonomia idealaren beharrezko ukanbeharrak asetzen dituela. Bi argudiook ezeztatu asmoz, Franz Kafkaren fikziozko lanak oinarri hartzen ditu autoreak, haren literatura produkzioak Posnerren tesien alde iluna argitara ekar dezakeela frogatu nahian. Era berean, literaturen eta zuzenbidearen arteko uztarketaren aldeko apostua egiten du autoreak. WEST, Robin (1985). *Authority, Autonomy, and Choice: The Role of Consent in the Moral and Political Visions of Franz Kafka and Richard Posner*. Georgetown Law Faculty Publications and Other Works. 489. <https://scholarship.law.georgetown.edu/facpub/489>

³⁵ Posnerrek, haren lanaren lehen edizioaren prefazioan, Westek Kritika hura egin arte *Law & Literature* mugimendua ezagutzen ez zuela dio. POSNER, Richard (1988). *Law & Literature: A Misunderstood Relation*. Harvard University Press; 1st edition.

Lan harekin aski ez, eta beste hainbatetan gogorki egin du Westen esanen aurka, haren hitzak “*eszentriko*” gisa kalifikatzera iritsiz. POSNER, Richard A (1986). *El significado ético de la libre elección: una respuesta al profesor West*. 99 *Harvard Law Review* 1433.

Posnerrek haren erantzunaren tonu erasokorra murriztu zuen lanaren bigarren zein hirugarren bertsioetan, frikzioak alboratzeko ahaleaginean: “*I have come to praise Caesar, not to bury him. Law & Literature is a rich and promising field; and if the first edition of this book had rather a negative and even defensive character (defending my academic specialty, “law and economics,” against criticism from Law & Literature scholars such as James Boyd White and Robin West), that was more than 20 years ago and the negative tone was gone by the second edition*”. POSNER, Richard A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 6. Orria.

Mundu horretan norbanakoak helburu bakarra dauka: desio eta behar duela sinetsita dagoen hura kosta ala kosta eskuratzea. Kafkaren fikziozko mundu horrek Posnerren aldarrikapen moralaren adierazpen dramatikoak eskaintzen du, alegia: Posnerrek argudiatzen du onarpen-printzipioak moralki legitimatzen dituela egintza guztiak; idazle txekoslovakiarrek, aitzitik, horrenbesteko legitimazio maila nagusi den mundu baten itxura izugarriki dantearra irudikatzen du.

Bere lehiakide intelektualak gisara, Kafka³⁶ du literatura legalaren adierazgarri gorentzat Posnerrek ere, eta haren *Prozesua*³⁷ lanean justizia istorioaren ardatz zentral izatetik gertu egotera iristen dela aitortzen den arren, kasu hartan ere legea gizakia bere horretan zer den konprenitzera heltzeko bitarteko gisa erabiltzen omen du literaturgileak, Kafkaren obra osoan zehar, bera abokatua izaki, epaitegien jarduteko era modu zehatz eta errealistan deskribatzen da, prozedura judizial³⁸ bat inoiz bizi izan ez duen norbaitek haren nondik norakoak zeintzuk diren ulertzea ahalbideratuz. Hori gutxi ez eta ustez justizia egiteak egiazko justiziarekiko dakarren justaposizioaren adierazgarri dira Kafkaren zenbait lan, autorearen ustez. Horren erakusgarri, Posnerrek *In der Strafkolonie*³⁹ narrazio laburra aipatzen du, non era guztiz sinesgaitzean, ofizial antagonista zigortzeko darabilen moduaren zentzugabekeria higuinagarria bere bertuteak ateratzeko eta erabiltzeko duen seriotasunarekin bat datorren⁴⁰. Bada justiziaren baitan auzi bat, justiziak berak zein haren hiritarren maiz nozitzen dutena; hori da, hain zuzen ere, justizientzat garrantzitsuen suerta daitekeen zerbait justiziaren erabiltzaileek seriozki ezin hartu izatea. Zehapenak zein zigorrak ezartzen dira, sarritan, horien zioak aintzakotzat hartzen ez dituztenen aurka, eta hori arazo handi bat da. Halakoxe kontraesanak era guztiz konprenigarrian islatzeko gaitasuna aitortzen dio literaturari Posnerrek, Kafkak frogatu gisara.

Gauzak horrela, haren sorkuntza literarioaren obra gorena den *Prozesua* hartzen du hizpidetzat autoreak, luzaz. Bertan, Joseph K. goiz batez ezezagun batzuek atxilotua da,

³⁶ POSNER, R. A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition. 170. Orria.

³⁷ KAFKA, F. (2006). *El proceso*. Ediciones Colihue SRL.

³⁸ Posnerren ustez, eta honetan bat nator harekin, Kafkaren lanaren itzulpen egokiena “*Kasua*” edo “*Prozedura*” zatekeen, bertan era parodikoan irudikatzen dena, aldebiko epaiketa angloamerikar klasikoa baino, aurkaritzarik gabeko prozedura judizial luzatua baita. Auzi berberaren jorraketa aztertzeko, ikus: ROBINSON, M. S. (1982). *The Law of the State in Kafka's The Trial*. 6 ALSA Forum, 127. Orria

³⁹ KAFKA, F. (2021). *In the penal colony*. Phoemixx Classics Ebooks.

⁴⁰ POSNER, R. A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition. 172. Orria.

ezezagun zaion eraikin batean giltzaperatua, eta ezezagun zaizkion bere egintza batzuetan oinarrituz, betirako ezezagun izango dituen kargu batzuk ezartzen zaizkio. Protagonistak ez du haraino eraman duten bere egintzen berri, preseski, egin ez dituelako, eta hala, ezezagutza absolutu batean, epaitua, kondenatua eta exekutatua da. Kasu honetan, beraz, errua aparatu judizialak fabrikatua da, hark deskubritua izan beharrean⁴¹. Deskripzio laburtuaren ondoren, obraren mezua xeheki aztertzeari ekiten dio Posnerrek. *Prozesua* justizia legalaren perbertsioaren inguruko liburu bat dela pentsatzeko joera dagoen arren, honi interpretazio okertzat deritzo. Guztiz absurdua, ulertezina eta edonori gertatzeko modukoa den zerbait irudikatzea du helburu lanak, *Metamorfosiak*⁴² bezalaxe. Bi lanetan protagonista injustizia absurdu bat pairatzen ikusiko dugu, era saihestezinean porrota laidogarri batera kondenaturik dagoela konprenitzen dugun heinean. Modu berean, protagonistaren dilema groteskoa giza kondizioaren adierazpide bat izango da, justizia ondorio horretara iristeko artefaktu literarioaren *atrezzoak* izatera mugatuko delarik. Posnerrek ez omen du *Prozesuak* interes legalik ez duenik iradoki gura; sinpleki, ez du haren fikzioaren gai metafisiko eta psikologikoen ulermena baztertzerik nahi haren garrantzia juridikoa azpimarratzeagatik, nahiz eta enfasi hori legitimoa izan. K. protagonista bere aurkako akusazioak aurkitzeko gai ez izatea zenbait auziren metafora izan liteke: legelariak ez diren herritarrek legea ulertzeko duten zailtasuna; ulertzen ez duten prozedura juridiko batean murgilduta dauden auzilariek sentitzen duten larritasuna; eta legelari ez direnen justizia egingo denaren ustearen eta prozesu judizialaren egiazko emaitzaren arteko bitasun paradoxikoa.

Azterketa guzti hau buruturik, eta Kafka inolaz kritikatzeko asmorik gabe, ondorio nagusi bat ateratzen du autoreak: “*Yet law is not at the heart of this work either*”⁴³ (“*Eta hala ere, lan honen bihotzean ez dago Zuzenbidea*”). Legeari buruzko eleberri bat dela esatea erredukzionistegia litzateke, askoz ere gehiago baitauka atzean, eta ondorioz, ez dago lan hau literatura eta zuzenbidearen uztarketa era absolutuan defendatzeko erabiltzerik.

Behin Kafkaren adibidea azterturik, eta autorearen ondorioaren irmotasunak kontrakoa iradoki balezake ere, esan beharra dago Posnerrek ez duela literaturak legeri eskain diezaiokeen laguntza huts absolutura mugatzen; are, literaturak, betiere haren esparrutik, legeri eskain diezazkiokeen tresnak ikertzen ditu “*How Else Might Literature Help*

⁴¹ ANDERSON, M. (1992). *Kafka's Clothes: Ornament and Aestheticism*. Habsburg Fin de Siècle 192

⁴² KAFKA, F. (1960). *La metamorfosis* (No. 801.952/K11). Planeta Colombiana c1985.

⁴³ POSNER, R. A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition, 173. Orria

Law?” (“*Zer beste eratarra lagun diezaioke Literaturak Zuzenbideari?*”) atalean⁴⁴. Irakurtzeak besteen azalean jarriz bizipenak interpretatzeko gidalerroak zehazten, fisikoki bizi gabeko esperientziak propio egiten, idazmen eta irakurmen trebetasunak zorrozten, norberaren emozioen mugalerroak hedatzen... lagunduko dio irakurleari, haren hitzetan. Norbere buruaren ezagutza areagotzeko bide bat da literatura, beste dimentsio batzuetarako ate bat. Ez, ordea, bizitzarako irakaspen praktikoen informazio iturri fidagarri bat.

Azken ideia hau azpimarratzeari garrantzitsu deritzot. Posnerren ustez, literaturak bertute pedagogiko-terapeutiko andana badu ere, bertuteotako bakar bat ere ez da irakurlearen moralara hobetzeko gai izango. Literatura ezin liteke, autorearen hitzetan, bizitzarako txantilo edo zirriborro kontsidera, arrazoi xehe batengatik: ez delako horretarako egina. “*Writers of imaginative literature rarely are practical people with sound practical guidance to impart*”⁴⁵ (“*Literatura irudimentsu baten idazleak kasu bakanetan izan ohi dira irakasteko orientazio praktiko baten jabe diren pertsona praktikoak*”) sententziak⁴⁶ egoki samar laburbiltzen du Posnerren literaturarekiko ikuskera pragmatiko bezain utilitarista.

Posnerrek instituzio juridikoak gizartearen garapen historikoaren arabera egokitzeko beharra defendatzen du, horretarako abiapuntutzat *homo oeconomicus*-a⁴⁷ hartuz⁴⁸. Gizakiaren izatearen ezinbesteko ezaugarria da erabakiak probetxu ekonomikoaren arabera hartzea. Ondorioz, legea, gizakiaren jokamoldeen eta haren logikaren erreflexu zuzena denez gero, erregela ekonomikoen arabera sortu behar litzatekeela sinisten du. Salgaien prezioaren eta eskari kopuruaren arteko alderantzizko erlazioa, eskaria eta

⁴⁴*Ibid.*, 389. Orria.

⁴⁵ POSNER, Richard A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition, 485. Orria

⁴⁶ Honakoa *ad hominen* erako falazia kontsidera liteke. Hona RAEk era honetako argumentu ez-deusei emaniko definizioa: “*Argumento que se funda en las opiniones o actos de la misma persona a quien se dirige, para combatirla o tratar de convencerla*”. <https://dile.rae.es/> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

⁴⁷ “*Ekonomia politikoak ez du gizakiaren izaera osoa deskribatzen, zeina estatu sozialak aldatu duen, ez eta gizakiak gizartean duen jokabide ere. Aberastasuna eduki nahi duen eta xede hori lortzeko bitarteko eraginkortasuna aztertzeko eta alderatzeko gai den izaki gisa deskribatzen du gizakia ekonomia politikoak*”. MILL, John Stuart (1836). *On the Definition of Political Economy, and on the Method of Investigation Proper to It*. London and Westminster Review. MILL, John Stuart (1874). *Essays on Some Unsettled Questions of Political Economy*, 2nd ed. London: Longmans, Green, Reader & Dyer, essay 5, paragraphs 38 and 48.

⁴⁸ POSNER, R. (1987). *The decline of law as an autonomous discipline: 1962-1987*. Harvard Law Review, 100. Edizioa, 761. orria eta hurrengoak

eskaintzaren lege gisa ezagunagoa, zuzenbidean aplikatu daitezkeen oinarrizko formula bat da, bere aburuz.

Adituaren arabera, Zuzenbidea goi mailako arlo teknikoa da, ezein literaturgilek bere ezagutza literarioei (eta ez haren jakintza juridikoei) eskerrak imitatu ezinezkoa⁴⁹. Haren hitzetan, literaturaren garrantziari buruzko argudioak bi tradizioetan subsumi daitezke: “*tradizio estetiko*” (“*aesthetic tradition*”), hark babesten duena; eta “*tradizio eraikitzailea*”, zentzugabetzat deritzona⁵⁰. Azken hau kritikatzeko du, hain zuzen ere, literaturak ez baitauka egiturazko pisurik lege-arloan, haren ustez, eta hala denez gero, ezin lezake legean eragin. Izan ere, literaturak ez dauka, ekonomiaren aldean, doktrina juridikoan egiaz eragin dezakeen pisuzko teoria zentralik. Fikzio aleak haien testuinguruan baino ez dira interpretagarri, haien egileen usteen, sinesmenen, jokamoldeen eta xedeen arabera sortuak baitira, eta subjektibotasun mugagabe baten baitan finkatzen direnez gero, esparru juridikora estrapola-ezinak dira. Ezinezkoa da autore orok obra bakoitzean esan nahi izan duena zehaztea, ezinezkoa den erara, hein berean, obra baten ustezko zentzua objektibotasunera ahal beste gerturatzea helburu duen giza-zientzia baten interpretazio ahalik eta eraginkorrena lortzeko erabilteza. Pentsa, Kantek Platoni buruz esan gisara⁵¹, Posnerren ustez posible da fikzio-egileek beraiek ere sortu berri dutenarekin esan nahi izan dutena ez jakitea. Zuzenbidearen iturri eta filosofiaren garapenerako baliogabe deritzo, hortaz, literaturari, eta beraz, Zuzenbidearen oinarri moralei uko egiten die, berau errealitate sozialetan baino oinarritu ezin daitekeela suttsuki defendatuz.

Kontraesan objektibo horretatik abiatutako kritikak, funtsean, izateko arrazoi logiko bat erantsi nahi izan dio korronteari, zentzu praktikoa eman abstraktutasunean eror zitezkeen mugimendu harri. Analisi honek, eta autorean asmoen kontra, akaso, koherentzian finkatzen den batasun bat ematen dio *Law & Literature* doktrinari, era horretan haren prestigioa areagotuz.

⁴⁹ *The frequency with which trials in literature turn on legal technicalities is not a comment on law or a criticism of it, but a dramatic necessity. Rarely can a work of literature be expected to yield deep insights into law at the operational level.* POSNER, Richard A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition, 546. Orria.

⁵⁰ POSNER, R. A. (2000). *Law & Literature*, Cambridge: Harvard University Press, 3rd Edition, 459-481, eta 506-509. Orriak

⁵¹ KANT, I. (1978) (Rivas, P.-ren itzulpena). *Critica de la Razón Pura*. Editorial Alfaguara, 314. Orria.

Posnerrek kritikei hastapena eman bazien ere, asko izan dira hark urraturiko bidea jarraitu eta Zuzenbidea eta Literatura maiseatu dutenak. Horien artean nabarmentzeko modukoa deritzot Richard Delgado eta Jean Stefancicen *Critical Race Theory*⁵² lanari, Posnerrekin ados agertzen baitira justiziaren egikaritzaz arduratzen diren epaile eta magistratuengan literaturak duen eragina zinez murrizta dela aitortzerakoan. Arraza dute aipagai haien lan soziologikoetan, tesi interesgarri bat jaurtikiz: arraza sozialki, politikoki eta legalki eraturiko kontzeptua da⁵³. Arazo sozialen aferaren muinean ez daude faktore indibidual eta psikologikoak, gizarte-egiturak eta suposizio kulturalak baizik⁵⁴. Hortaz, arrazismoaren sorgune diren, eta praktika sozialetan erabat sustraiturik dauden prozesu sozialetan jartzen dute arreta, betiere egiazko justiziaren erdiespena jomugatzat, literaturak horretan eskain dezakeen laguntzaren balioaren murrizta ezetsiz.

Haien ustetan, beraz, epaileen kokagune morala indar normatibo sozial zein politikoei bultzatzen dute harat-honat, literaturak baino askoz ere botere handiagoaz. Epaileen ebazpenek arrazismo kutsu bat badute, nabarmenki progresistak badira bezalaxe, ez da haiengan literaturak izan lezakeen balizko eragin batengatik izango, egunerokoko praktika sozialetan era batean edo bestean zeharkatuak izan direlako baizik.

Ugariak dira, beraz, Zuzenbidea eta Literatura osagarri direla onartzeari muzin egin dioten ahotsak, are anitzagoak diren heinean bi horiek lotzearen onurak onartu arren ikuspuntu desberdinetatik egin dutenak. Posnerren lanari kontra-kritika eginez⁵⁵, Seatonek azpimarratzen du posible dela bateratzea, literatura arte-alor anitza denez gero, idazleak desberdinak baitira goraiatzat dituzten bertuteetan eta kondenatzen dituzten bizioetan, esplizituki edo inplizituki. Literatura-lanek txalotzen edo gutxien dituzten giza nolakotasunen ugaritasuna ukalezina da, kontestualizatzen dituzten filosofia eta erlijioen barietatea dela medio. Lan guztiok, ordea, beharrezko seriotasunarekin aztertuak badira, badute gizakion irizpide morala gaitzeko, korapilatze eta sakontzeko gaitasuna, haren iritziz.

⁵² DELGADO, R., & STEFANCIC, J. (2023). *Critical race theory: An introduction*. 87. bol. NyU press.

⁵³ BESSONE, M. (2017) *Quelle place pour la critique dans les théories critiques de la race?*; Revue philosophique de la France et de l'étranger 142: 359-376 orriak.

⁵⁴ CRENSHAW, K.; GOTANDA, N.; PELLER, G. & K., eds. (1995). *Critical Race Theory: The Key Writings that Formed the Movement*. The New Press, 19. or.

⁵⁵ SEATON, J. (1999). *Law & Literature: Works, Criticism, and Theory*, 29. or.

Aipaturiko korrontearen aurkako autoreen ideiei erreparatuz, hortaz, hurrengo zioengatik izan da kritikatu *Law & Literature* mugimendua:

1. Zorroztasun akademikorik eza: kritikari batzuen esanetan, ikuspegi akademikotik azalekoa eta zorroztasuna gabea izan daitekeen diziplinarteko hurbilketa batean oinarritzen da mugimendua. Ez du Zuzenbidearen alor teknikoenetan sakontzeko abagunea eskaintzen, ez eta interpretazio metodo doi eta zehatz bat zehazten ere.
2. Zuzenbidearen eta literaturaren arteko nahasmena: mugimenduak zuzenbidearen eta literaturaren arteko desberdintasunak lausotzeko eta bateragarriak ez diren edukiak nahasteko joera duela azpimarratu izan da. Horrek lege-kontzeptuen interpretazio akatsdunak zein gizarte-legeen eta -arauen ulermen okerra ekar ditzake.
3. Aplikazio praktikoaren mugak: mugimenduaren baitan garatutako kontzeptuak eta teoriak esparru juridiko zehatzean aplikatzeak dakarren konplexutasuna izan da, oro har, berau ordena juridikoaren hobekuntzarako tresna baliogabetzat kontsideratzen eraman dezakeen beste arrazoietako bat. Literatura ez da zuzenbidea konpontzeko sortzen, ez eta zuzenbidea literaturaren esanetara meneratzen ere.
4. Kultur joera partziala: korrontea mendebaldeko kulturetan mamitu izanaren ondorioz, balio kultural konkretu batzuen eragin ukalezina dauka. Balore-karga hau kritikatu izan da, besteak beste, ordenamendu juridiko bakoitzak behar oso zehatz batzuk dituelako, eta beste balore batzuen baitan sortuak izan diren literatur lanek ez lezaketelako gabezia horiek osatzen mesede egin.

Agerikoa denez, etengabeko tira-bira baten erdian kokatzen da Zuzenbidea eta Literatura. Haren aldeko eta maiseatzaileen artean inork akademiaren babes erabatekoa eskuratu ez duenez gero, alderdietako bakar batek ere arrazoa ez duela ondoriozta liteke, hasiera batean, ikuspuntu propio bat eratzeko posibilitateak ateak guztiz zabalik dituelarik.

3. Espainiar ordenamendu juridikoaren beharrak. Zer eskain diezaioke Literaturak Zuzenbideari?

3.1 Espainiar ordenamendu juridikoaren eta haren operadore juridikoen jardunaren gabeziak.

Zuzenbidearen filosofiaren historian Zuzenbideari eman zaizkion definizioak aztertzen eta alderatzen hasi gabe, oro har, Zuzenbidea lan-tresna bat dela esan liteke. Arau eta printzipioen batasunean oinarritzen den sistema konplexu bat osatzen du zientzia juridikoak, noski, baina Zuzenbidea ez litzateke deus hartaz baliatzen diren profesionalik⁵⁶ zein herritarrik⁵⁷ ez balego.

Positibismoak ebazpen juridikoen autonomian⁵⁸ hartzen du oinarri, juridikotasuna zer den ebazten duten irizpideak sistema juridiko orok haren barne bilduak dituela uler genezake, eta sistema juridikoak gainontzeko sistema normatiboengandik (moralak, ekonomikoa, estetikoa, hizkuntzaren-arauea, erlijiosoa, politikoa...) sistema arauemaile autonomo gisa hautemanetz. Hortaz, sistema juridikoa autonomoa izateak hurrengoa esan gura du: hura sortu duten baina aldi berean hark konfiguratu dituen iturri propioetatik eratorritako arauak baino ez da osatuko⁵⁹.

Zuzenbideak, ordea, etengabeko legegintza jardunari meneraturik dagoen lan-instrumentu den heinean, hutsuneak izango ditu beti⁶⁰, eta hutsune horiek betetzeko zuzenbidez kanpoko iturrietara jotzeko beharra duela agerikoa da, zuzenbidearen kontzepzio positibista gaindituz. Zuzenbidearen ezaugarri gorena zuzentasunaren-uzia izango da, zuzena izatea bilatzen ez duen arau, printzipio, erabaki edo ebazpen bat ez litekeelako juridiko kontsidera, edo hala kontsideratua izatekotan, akatsduna litzatekeelako⁶¹. Akatsak, hutsuneak, izango ditu, beraz, ordenamendu juridiko orok,

⁵⁶ Profesional kontzeptuaren baitan uler bitez haien jardunbidea zuzenbidearen ezein adarrekin harremanean gauzatzen duten norbanakoak, eta ez trafikiko juridikoan zuzenki eragiten duten operadore juridikoak soilik.

⁵⁷ Herritarren aipamena Dworkinen zuzenbidearen kontzepzio arauemaile integratzailearekin uztartzeko xedez egina da, zuzenbidea fenomeno arauemaile bezala interpretatzea baitagokigu, eta ez arau edo lanbide juridikoekin soilik zerikusia duen zientzia gisa. AMANDI, V. R. (2006). *El concepto de derecho de Ronald Dworkin*. Revista de la Facultad de Derecho de México, 56(246), 355-412 or.

⁵⁸ ALEXY, R. (2008). *El concepto y la naturaleza del Derecho*, Marcial Pons, Madrid.

⁵⁹ GARCÍA, J. A. (2015). Sobre la idea de pretensión de corrección del Derecho en R. Alexy. Consideraciones críticas. *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad* Nº 7, 25. Or.

⁶⁰ Aristotelesen, Hiponako Agustinen, Montesquieuren, John Lockeren, Jeremy Benthamen eta Hans Kelsenaren Zuzenbidearen pertzepzioek komunean zuten ideia. Kreatio humano gisa, Zuzenbidea ez da humanitatearen ezaugarri bereizgarriena den inperfekzioetik sekula aldentuko.

⁶¹ ALEXY, R. (1997), *El concepto y la validez del Derecho*, Gedisa, Barcelona.

egituraz zein haren aplikazio praktikoan, eta haiek identifikatzea da legelari baten eginbarra.

Ordenamendu juridiko jakin baten baitan auzi bat era justuan ebatzi ahal izatea eragozten duen arau baten falta⁶² dira hutsune legalak. Beste era batean esanda, hutsunea “Zuzenbideak egoera edo kasu jakin baten baitan gauzatu ez duen arautzea da, zeinak operadore juridikoaren eginbide integratzailearen bidez, ordenamendu juridiko horretan zehaztuta ez dagoen eta aplikazio-prozesuan bilatu behar den erantzun konkretu bat eskatzen duen”⁶³. Hutsuneon aurrean, operadore juridikoen papera ez da ezerezari etsimenez so gelditzea izango, funtzio integratzaile bat betetzea baizik⁶⁴; hots, epaileek osotasun bat sortu beharko dute, hura osatzen duten zatiak kriterio juridikoz batuz. Epaileak ez dira legearen aplikatze soilera mugatuko diren automatikak, hutsuneen aurrean zeregin konplexua esleitzen baitzaie. Operadore juridikoek diskrezionalitate kuota ukaezin bat duten arren, irizpidezkotasan hori ordenamenduak eta legezkotasunaren babesak mugatua izango da beti⁶⁵. Sistemak ezarritako printzipioen arabera arauak ulertzea, interpretatzea eta aplikatzea dagokie, beraz, operadore juridiko guztiei, baina ez haiek sortzea. Hala egingo du beka-eskaera bat egiten duen ikasleak, ebazpen bat ematen duen funtzionario publikoak, gora jotzeko errekurtsioa tarteratzen duen abokatuak edota Auzitegi Goreneko Zibileko salako magistratuak, diferentzia batekin: epaileek azken hitza daukate aurkezten zaizkien auzietan. Gerora aztertuko dugu, dena dela, epaileen eginbidean literaturak izan dezakeen eragina.

Uler ditzagun orain zein diren egungo gure ordenamendu juridikoak dituen mugak, hutsuneak eta erronkak.

1. Prozesu judizialen iraupenaren batz-besteko altua⁶⁶: sistema judizialaren eraginkortasuna areagotzeko lege-proiektuak martxan diren arren⁶⁷, biztanleko

⁶² BOBIO, N. (1963). *Lacune del diritto*. Novissimo Digesto italiano, Torino, Utet, vol IX, 418. Or.

⁶³ SEGURA, M. (1989). *El problema de las lagunas del derecho*, Anuario de filosofía del Derecho VI, 289. Or.

⁶⁴ GALIANO, D., GONZÁLEZ, D. (2012). *Integrating Law in the Face of Legal Voids - An Unavoidable Need in Favor of Applying Law Appropriately*, Dikaion. 437. Or.

⁶⁵ FERRARI, M. (2010). *Los principios de legalidad y seguridad jurídica como fundamentos del proceso de integración del Derecho para colmar las lagunas de la ley en Cuba* (Doctoral dissertation, tesis presentada en opción del grado científico de Doctor en Ciencias Jurídicas, Universidad de La Habana).

⁶⁶ Ikus Eransnkinetako 1. Koadroa.

⁶⁷ 2022ko apirilean, Gorteek Justizia Zerbitzu Publikoaren Antolaketa Eraginkortasunari eta Eraginkortasun Prozesalari buruzko Legeei buruzko eztabaidak hasi zituzten (*Informe sobre el Estado de Derecho en 2021, Capítulo sobre la situación del Estado de Derecho en España*, 7. Orria). Gobernu defentsa-eskubideari buruzko lege-proiektu bat prestatzen ari da, bestalde, zeinak dokumentu bakar batean

magistratu eta epaile kopurua Europar Batasuneko baxuenetarikoa da⁶⁸ Espainiar estatuan. Arazo honen larritasuna nabarmen handitzen da kasu-motaren, materiaren edota Auzitegien arabera. Hori dela eta, Justiziaren erabiltzaileengan zein operadore juridikoengan egonezina eta segurtasun juridiko falta sumatzen dira⁶⁹.

2. Independentzia juridiko falta: biztanlegoaren⁷⁰ zein enpresarien⁷¹ gehiengo handienak ezbaian jartzen du epaile eta magistratuen independentzia, justiziari zor zaion sineskortasuna kolokan jarritz.
3. Aktibismo judizialaren⁷² gorakada graduala⁷³: epaile konstituzionalek politika publikoetan esku hartzeko joera geroz eta oldarkorrago baten⁷⁴ lekuko izan gara, gehiegikeriazko jarduera judiziala burutuz. Auzitegi Konstituzionala politizazio

jasoko dituen defentsa-eskubidearen hainbat alderdi, gaur egun lege espezializatu batzuetan sakabanatuta daudenak. Babes judizial eraginkorra izateko eskubideaz gain, berme gehigarriak ezartzen ditu, eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren eta beste alderdi interesdun batzuen iradokizunak jasoz (*Informe sobre el Estado de Derecho en 2022, Capítulo sobre la situación del Estado de Derecho en España*).

⁶⁸ Ikus Eranskinetako 2. Koadroa.

⁶⁹ CABRILLO, F. & PASTOR, S. (2001), *Reforma judicial y economía de mercado*, VII Premio Círculo de Empresarios, Madrid.

⁷⁰ Ikus Eranskinetako 3. Koadroa.

⁷¹ Ikus Eranskinetako 4. Koadroa.

⁷² Aktibismo judiziala portaera jurisdikzional arbitrario modu bat da, eta bi ezaugarriok dituzten erabakiak hartzean datza: i) balio konstituzional substantiboak (paradigmatikoki, oinarritzko eskubideak) osatzeko modukoak, ii) justifikaziorik gabe, balio konstituzionalen arabera (segurtasun juridikoa, printzipio demokratikoa edo botereen banaketa) era eskusiboan botere legegileari edo administrazioari dagozkien uneko edo balizko jarduera-ildoetan eragiten dutenak. LOZADA, A. (2018). *Activismo Judicial y Derechos Sociales. Un enfoque Postpositivista*. DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho, 41. 212. or. MUÑOZ, J. C. (2020). *Un replanteamiento al significado del Activismo Judicial*. Universitas, 2021, 34. Zenbakia - 75-96 or.

⁷³ ARRUÑADA, B. (2020). *Mala leyes*. Información Comercial España. Revista de Economía, 915(uztaila-abuztua), 9–28 or.

⁷⁴ Kasurik nabarmen eta sonatuena 2022ko abenduaren 19an eman zen, RTC 2022\177 Auto bidez, Auzitegi Konstituzionalaren plenoan. Haren bidez, historian lehenengoz, parlamentuko tramite baten geldialdia agindu zuen AKK. Izan ere, lege-zuzenketa batzuen bidez, BJKN-k izenda zitzakeen Auzitegi Konstituzionalako bi kideen hautaketa-sistema ezartzeko egitasmoa zegoen. Lege-zuzenketak jadanik Senatuan zeudela, Alderdi Popularraren talde parlamentarioak bultzaturiko babes-errekurtsoari eskerrak, Plenoaren kideetako 6 kideren aldeko bozkarekin eta kontrako 5ekin, babesa onartua izan zen. Kontra bozkatu zuten 5 magistratuek botu partikularrerako eskubidea egikaritu zuten, haien desadostasun erabatekoa agerian utziz. Hala dio Juan Antonio Xiol Rios magistratuaren bozka partikularrak: “*La jurisdicción constitucional no se preserva evitando el debate en sede parlamentaria de las disposiciones que modifican la Ley Orgánica que la regula. Incluso aunque diéramos por cierto que esta última integra el bloque de la constitucionalidad, cuestión que afirma el auto asociando a ello una serie de consecuencias que no fueron formuladas en el Pleno y adelantan un juicio de constitucionalidad que este Tribunal no debiera haber formulado. La jurisdicción constitucional se preserva cuando actúa dentro de los estrictos márgenes que la propia Constitución le confiere*”. Egun indarrean dauden alderdietako 19 kidek haien idatziez adierazi zuten gisara, “*botere legegilean aurrekaririk ez duen esku-sartzea*” izan zen.

prozesu batean murgildurik dago, komunikabideek⁷⁵ zein elkargo juridikoek⁷⁶ agerian utzi nahi izan dutenez, eta honek haren zein Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren beharrezko berrikuntza oztopatzen du⁷⁷.

4. Legediaren kalitate baxua⁷⁸: indarrean dagoen legedia behar sozialen arabera eguneratu edo ezabatu⁷⁹ beharrean, corpus juridikoa nahasgarriago bilakatzen duen eta eraginkortasun juridiko zein administratiboa oztopatzen duen⁸⁰ legedia era amaigabeen ekoizteko joera finkatu da⁸¹, legegintza jarduera sakon baten itxura emateko eginahalean. Legegintza-teknikaren⁸² irakaspene oso arlo zehatz bateko ikasleei baino ez zaie zuzentzen, haren premia segurtasun juridikoaren berme gisa ezinbestekoa izan daitekeen arren.
5. Ebazpenen nolakotasun konplexua eta haiek aurreikusteko ezintasuna⁸³: idazkera ilun eta nahaspilatsua ohikoa da sententzietan, haien ulermena eragotziz⁸⁴. Ebazpenen kalitatea dezente murrizten da, halaber, haiek emateaz arduratzen den auzitegia kide batek baino gehiagok osatzen dutenean⁸⁵, egungo epaile zein

⁷⁵ “*Mayoría progresista*” edo “*mayoría conservadora*” terminoen ohiko erabilerak era argian nabarmentzen du egun Auzitegi honek bizi duen polarizazio politiko gradua. Horren adibide gisa, ikus 76. oin-oharrean aipaturiko ebazpenaren inguruan argitaraturiko berria: <https://es.euronews.com/2022/12/20/el-tribunal-constitucional-paraliza-la-tramitacion-parlamentaria-de-los-cambios-en-el-pode> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

⁷⁶ Ikus 2021eko irailaren 13ko baterako komunikatua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren berritzeari buruz arduradun politikoei egindako adierazpenen aurrean.

⁷⁷ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia botere judizialaren autogobernu-organoa da, eta Espainiako Konstituzioaren 117. artikuluan ezarritako jurisdikzio-organoen eta epaile eta magistratuen independentzia bermatzen du. Berritzeke dago 2018ko abendutik.

⁷⁸ GARCÍA, Y. (2012). *Calidad de las leyes: algunos puntos críticos*. Revista Ratio Juris, 7(14), 21-52 or.

⁷⁹ Ikus Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren “*Dudgeon Ipar Irlandaren aurka*”, 1981eko urriaren 22ko epaia, edo “*Klass eta beste batzuk Alemaniaren kontra*”, 1978ko irailaren 6koa, edo “*Marks Belgikaren aurka*”, 1979ko ekainaren 13koa.

⁸⁰ DÍAZ, V. (2011). *Calidad de la ley, técnica legislativa y eficiencia administrativa*. Prolegómenos: Derechos y valores, 14(27), 147-163 or.

⁸¹ Hala dio Giza Eskubideen Europar Auzitegiak zenbait kasutan, hala nola “*Iglesias Gil eta A.U.L Espainiaren kontra*”. España MARTÍN-RETORTILLO BAQUER, Lorenzo (2003). *La calidad de la Ley según la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos*. Derecho Privado y Constitución. 17. Zenbakia, 377-406 or.

⁸² Auzitegi Konstituzionalaren 46/1990, martxoaren 15eko epaia. Bertan zehazten da legegintza-teknikaren helburua dela ordenamendu juridikoaren sorrera prozesuak sorturiko arazoak identifikatu eta horiei konponbidea emateko jarraibideak iradokitzea, segurtasun juridikoaren mesedetan.

⁸³ ARRUÑADA, B. (2021). *La Seguridad Jurídica en España*. Estudios sobre la Economía Española – 2021/18. Fedea.

⁸⁴ ITURRALDE, V. (1989). *Lenguaje legal y sistema jurídico. Cuestiones relativas a la aplicación de la ley*, Tecnos, Madrid.

⁸⁵ Lan-arloko 339 epaitegiren 2004-2017 bitarteko datu-panel bat aztertu eta guztira 4407 ohar egin ondoren, ikerlariak beste ondorio garrantzitsu bat atera zuten: epaile motak eragina du erabaki judizialen kalitatean. Zehazki, kalitatea areago murrizten da epaile laguntzailea karrerako epaile bat denean (berriki atera direlako Eskola Juridikotik), karrerarik kanpoko epaile bat izan beharrean (normalean abokatu eskarmentudunak eta/edo zuzenbideko irakasle edo doktoreak direnak). MORAL, Alfonso, ROSALES,

magistratuek eraginkortasunez komunikatzeko duten zailtasunaren erakusgarri. Balio juridikodun idazkien ulergarritasuna ezbaian dago, beraz, akademiak⁸⁶ zein ikerketek adierazi bezalaxe⁸⁷.

6. Pedagogia juridiko falta⁸⁸: legeak ez ezagutzeak legeok ez betetzetik desenkusitzen ez duen arren⁸⁹, asko dira legeak interpretatzeko beharrezkoa den formakuntza jaso ez duten herritarrak⁹⁰. Egokitze prozesu sekular bat dela medio, hizkuntza legalaren terminoek zentzu tekniko espezializatua dute, hizkuntza naturaletik guztiz bereizia⁹¹, haren ulerpena gutxieneko nozio batzuen jakintzaren mende dagoelarik. Behar adinako prestakuntza juridiko ezak segurtasun juridikoa kolokan jar dezakeen era berean, haren irakaskuntzak⁹² arlo sozio-politikoaren baitako ezagutzaren garapenerako giltzarri gisa funtzionatzen du, *post-egia*⁹³ edo *fake newsek*⁹⁴ xaxaturiko pentsamoldeen oldarraldia baretzeko tresna gisa funtzionatuz.
7. Praxi juridiko androzentrista: Zuzenbideak, gainontzeko zientzia humanistikoaren aldean, harrera destainaria izan du teoria feministekiko, haiek ordenamenduan zein praktika juridikoan txertatzeko geldotasun ahalkegabez jokatzerara iritsiz.

Virginia, & MARTÍN-ROMÁN, Á. M. (2021). *Professional vs. non-professional labour judges: their impact on the quality of judicial decisions*. International Review of Law and Economics, 65, 105948.

⁸⁶ NABASKUES, I. (2017). *Panorama actual de la calidad normativa en el ordenamiento tras la aprobación de la Ley 39/2015*. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria, 109. Zen., 389-419. Or.

⁸⁷ Justizia Ministerioak eraturako Hizkuntza Juridikoa Modernizatzeko Batzordearen txostena: Ministro Kontseiluak Hizkuntza Juridikoa Modernizatzeko Batzordea eratu zuen 2009ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren iritzi-barometroek dioenez, herritarren %82ak uste du hizkera juridikoa konplexuegia dela eta ulerterraza suertatzen dela. Halaber, etorkizuneko legelariak uste dute Zuzenbideko profesionalen ehuneko handi bat modu desegokian adierazten dela (%44a ahozko hizkuntzari dagokionez; %56a hizkuntza idatziari dagokionez).

⁸⁸ BAYO, J. (1996). *La formación básica del ciudadano y el mundo del derecho. Crítica lingüística del lenguaje judicial*. Revista de Lengua i Dret, 25. Zenbakia.

⁸⁹ 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila onartzen duena, 6.1 art.

⁹⁰ BAÉZ, J. F. (2021). *Pedagogía jurídica como acción transformadora*. Fondo Editorial para la Investigación Académica (FONEIA).

⁹¹ CAPELLA, J. R. (1968). *El derecho como lenguaje. Un análisis lógico*, Ariel.

⁹² PINZÓN, B. A. (2010). *La educación jurídica como práctica de construcción social: hacia una reflexión pedagógica*. Revista Logos, Ciencia & Tecnología, 2. Zenbakia, 65-83 or.

⁹³ “*Post-truth is an adjective defined as ‘relating to or denoting circumstances in which objective facts are less influential in shaping public opinion than appeals to emotion and personal belief’*”. Honakoa izan zen, Oxford English Dictionaryren arabera, 2016ko hitza.

⁹⁴ “*Sare sozialen bidez ugaritzen ari diren albiste faltsuen ondorioz, hainbat herrialdetako agintari politikoek auzia arautzeko beharra ikusi zuten. Berehalako lehen erreakzioa albiste faltsuak zentsuratzeko saiakerak izan zen, eta hainbat herrialdek, hala nola Iranek, Txinak, Italiak edo Alemaniak, horri buruzko lege-neurriak proposatu zituzten*”. ANDERSDOTTER, K. (2017). *Fatti alternativi e fake news: La verificabilità nella società dell’informazione*. AIB Studi, 57(1), 5–6 or.

Zuzenbidean ez da emakumea zein genero disidentziaren erakusgarri⁹⁵ diren gainontzeko norbanakoak barne hartzen dituen kontraera propio berri bat sortu, “*legearen sexua berridaztea*” zailagoa suerta daitekeenaren susmopean⁹⁶.

8. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpenak betearazteko geldotasuna⁹⁷: azken hamarkadan eman diren epai nagusien %61a betearazteke dago Espainiar estatuan, ebazpenok hiru urte eta hilabeteko epean izan ohi direlarik egikarituak⁹⁸, batz bestea. Datu esanguratsuok oinarritzko giza eskubideen errespetuarekiko kontzientzia falta edo axolagabetasuna adieraz ditzakete, besteak beste.

3.2 Literatura Zuzenbidearen gabeziak osatzeko tresna gisa.

Ordenamendu juridiko espainiarrak zein haren operadore juridikoek pairatzen dituzten gabeziak zerrendatu ondorean, haien aurkako batailan literaturak eskain lezakeen laguntza aztertzea dagokigu, horretarako mugimenduak egundaino eginiko ekarpenak birkapitulatuz eta interesgarriak suerta litezkeen beste zenbait ideia plazaratuz.

3.2.1 Gaitasun tekniko-juridikoez jabetzea.

Literatura gaitasun tekniko-juridikoak eskuratzeko korridore bat izan daiteke, agidanez, elez-ele artea bera gainditu eta zientzia juridikoan zein beste ia-edozein esparru akademikotan aplika daitezkeen tresna estilistiko, linguistiko eta erretorikoak eskaintzen dizkiolako haren hartzaileari. Zalantza izpirik gabe, Zuzenbidea eta Literatura

⁹⁵ Aipatzekoa berriki onartua izan den “*Ley 4/2023, de 28 de febrero, para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*”, zeinaren hitzaurreak honela dioen: “*Lege honen helburua lesbianen, gayen, bisexualen, transen eta intersexualen (aurrerantzean, LGTBI) eskubideak garatzea eta bermatzea da, diskriminazio-egoerak desagerraraziz, Espainian sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena, sexu-ezaugarriak eta familia-aniztasuna askatasun osoz bizirik izatea ziurtatzeko*”.

⁹⁶ CAMPOS, A. (2001). *La Transexualidad y el Derecho a la Identidad Sexual*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

⁹⁷ Betearazteke dagoen ebazpenik zaharrena Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia da, 2012ko uztailaren 24koa, B.S./España, 47159/08, 2012tik betearazteke dagoena. Epaia betearaztea Ministroen Batzordeak Espainiak 2019an aurkeztutako ekintza-plana ebaluatzearen mende dago. Polizia-agenteeek demandatzaileari arrazagatiko tratu txar fisikoak jasanarazi izanagatiko salaketa baten baitan ikerketa eraginkorrik gauzatu ez izana da auziaren muina, zeinak funtzionario publikoen transparentzia falta ere agerian uzten duen.

⁹⁸ Zifra guztiak Europako Betetze Sareak (European Implementation Network) kalkulatu ditu, eta 2022ko urtarrilaren 1eko urteko erreferentzia-datan gauzatzeko zeuden kasuen kopuruan oinarritzen dira. Ikus Europako Betetze Sareak Zuzenbide Estatuari buruzko Txostenari 2022an egindako ekarpena, 72. or.

korapilatzen dituen lokarri nagusia hitza⁹⁹ da, banaka aztertuak izango diren bi esparrutan banatzen dena: idatzia eta ahozkoa.

Idazmenaren esparruan, Zuzenbidea hitzek osatzen duten heinean, haren forma diskurtsiboak eguneratzerakoan hizkeraren filosofiari zein literaturaren teoriari erreparatzeari uko egitea zikoizkeria egintza bat baino ez litzateke, interpretazioaren alorrean¹⁰⁰, batez ere. Hizkuntza-trebetasunak eskuratzeko biderik zuzenena da literatura, hiztegi aberatsa, ortografia egokia, egitura gramatikalen asimilazioa eta gaitasun sintaktikoen garapena bultzatzen baititu. Argudio sendoz hornituriko testu harmoniko, argi eta zehatzak idazten ikasteko ezinbesteko pausua da lehenbizi literatura irakurtzea. Askok eta ongi irakurri ez duen ikaslerik gabe, ez legoke Zuzenbide egokirik, hitzaren erabilera zuzena baita esparru juridikoko ezein eginbeharren garapena posible egiten duen uztarria. Zuzenbidean diharduen edonork haren burua idazle kontsidera behar lukeela baieztatu izan da¹⁰¹; izan ere, hor sartuko lirateke edozein idazlek parean aurkitzen dituen sormenaren erronka, tradizioen arteko talkei aterabidea emateko beharra edota hizkuntzaren praktikaren bidez praxi profesionala eraldatzeko aukera. Borgesek zioenez, bera ez zen bera soilik, irakurri zituen autore guztiak baino¹⁰². Baieztapen hau jakinduria linguistiko ororen jatorria azaltzeko gai den axiomatzat hartuz, beraz, zenbat eta autore gehiago ezagutu, orduan eta kapazagoa izango da bat bere ideiak teknika, estilo, tonu eta lexiko anitzen bidez transmititzeko. Hots, kontzeptu baten inguruan zenbat eta idazle gehiagoren lumatik irakurri, orduan eta kontzeptu horrekiko ezagutza panoramiko eta anitzagoa izango du irakurleak, termino bakoitzaren esanahi guztiak bere egiteko gai izatera iristeraino. Hori gutxi balitz ere, literatura kontzeptu bat praktikan oso okasio bakanetan erabili beharko duen norbanakoari haren azaleko esangura ulertarazteko gai den espresio artistikoa da. Literaturaren bidez lege-xedapenen nolakotasun tekniko-juridikoak azaltzea biziki zaila suertatuko den arren, posible izango da hilketa¹⁰³ eta

⁹⁹ KARAM TRINDADE, A., MAGALHÃES GUBERT, R. (2009). *Acercamientos y perspectivas para repensar el derecho*. *Revista Electrónica del Instituto de Investigaciones Jurídicas y Sociales Ambrosio Lucas Gioja*, 164-213 or.

¹⁰⁰ AGUIAR E SILVA, J. (2001). *A prática judiciária entre direito e literatura*. Coimbra: Almedina

¹⁰¹ PÉREZ VAZQUEZ, C. (2005). *Derecho y Literatura*. Instituto de Investigaciones Jurídicas UNAM.

¹⁰² https://elpais.com/diario/1981/09/26/ultima/370303206_850215.html (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

¹⁰³ 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoaren 138. art.

erailketa¹⁰⁴ desberdin egiten dituzten ezaugarri legal nagusiak edonork ulertzeko moduan azaltzea, adibidez.

Gauzak horrela, literaturaren bitartez kontzeptu juridikoak jorratzen eta azaltzen badira, bada, bi onuradun-klase egongo dira: jadanik ezagun zuten kontzeptuarekiko jakintza sakonagoak eskuratuko dituzten legelariak, eta kontzeptu horren esanahi juridikoari buruz deus gutxi zekien herritar arrunta.

Literatura idatzizko sormen-iturri gorena izateaz gain, hortaz, sorkuntzak norbere nahi eta beharren arabera ageriko erraztasunaz taxutzea posibilitatuko duen lanabesa izango da, arestian aipaturiko definiziora itzuliz. Alor teknikoari gagozkionez, ondorioz, egungo ordenamendu juridikoaren zein haren operadore juridikoen jardunaren baitan identifikatu ditugun gabezien baitan izan dezakeen inpaktu zuzena ukazina da: legedia argi bezain ulerkorra sortzeko abilezia eskainiko du, edo informazioa sintetizatzeke eta ideia nagusi zein azpi-mailakoak behar bezala azpimarratzeko gaitasuna, horrek ebazpen, auto zein sententziak fineziaz soilduko eta hauek ezagutza juridiko urriagoak dituzten erabiltzaileentzako eskuragarriagoak egingo dituelarik.

Idazkerak zuzenbidean izan dezakeen eraginari dagokionez, azpimarratu izan da gaizki idazteak arau juridikoen aplikazio desagokiaz gain, giza eskubideekiko errespetu eta babes falta ekar dezakeela¹⁰⁵. Funtsean, agente-egintza gisa ulerturiko idazki administratibo, juridiko edo legegile bat ulertezin kontsideratzen bada, egitate hori zuzenbideko estatu demokratiko oro gidatzen duten printzipioen aurkako erasotzat har daiteke¹⁰⁶, herritar orok agintari publikoek haien posizioen egikaritzaren sorturiko idazkiak ulertzeko eskubidea baitu.¹⁰⁷ Izan ere, agintari publikoek, funtzio publikoa gauzatzeko garaian, ez dute opakutasun-pribilegiorik, harreman pribatuetan gerta ez bezalaxe. Ongi idaztea, hortaz, giza eskubideak sendotzea ere bada, hein batean.

Ebazpen judizialei dagokienez, alderdietako edozein haiek ulertzeko gai ez bada, idazkera ilun, lauso, nahaspilatsua dela medio, prozesuaren berme aldaezin diren publizitate-¹⁰⁸ eta

¹⁰⁴ *Ibid.*, 129. art.

¹⁰⁵ PÉREZ, C. (2006). *Derecho y literatura*. Isonomía, (24), 135-153 or.

¹⁰⁶ Espainiako Konstituzioa (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa), 24. art.-en urraketak herritarren babes-gabezia dakar.

¹⁰⁷ LIZARRALDE, M. D. (2017). *Derecho a entender*. Iudicium, (2), 139-156 or.

¹⁰⁸ Espainiako Konstituzioa (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa), 120. art. Ikus, honen inguruan, Auzitegi Konstituzionalaren 38/1982, ekainaren 22ko, 62/1982, azaroaren 17ko, eta 195/2005, uztailaren 18ko epaiak.

ekitate-printzipioen¹⁰⁹ urraketa bat emango litzateke¹¹⁰. Idazkera-estiloak ageriko moduan eragiten du argumentuak azaldu edo ezkututzerakoan, estilo korapilatsu baten finkapenak ebazpen aproposen idealetik urrun aldentzera eramango gintuzkeelarik. Guzti hau ulertzeko eskubidearen eta justiziaren erabiltzaileak harengana hurreratzeko printzipioaren¹¹¹ markoan kokatu beharra dago, aurretiaz aipatu ditugun¹¹² egungo ordenamenduaren zein berau darabilten profesionalen jardunean sumatu diren gabeziak¹¹³ konpontzera bidean.

Azkenik, legegintzari literaturak eskain diezaiokeena aztertu asmoz, jorra dezagun legegintza-teknika. Haren baitako doktrinaren arabera¹¹⁴, bost dira legedia sortu edota eraldatzerakoan aintzat hartu beharreko faktoreak:

1. Hizkuntza-kalitatea
2. Arrazionaltasun logikoa
3. Arau arteko kongruentzia
4. Koherentzia teleologikoa
5. Koherentzia sistematikoa

Guzti hauen eskuratzean literaturak bistako zeresana izan dezake; hasteko, erredakzioaren kausa eta zergatia konkretuak identifikatzen laguntzen duelako, eta testua haiengan funtsatzea posibilitatzen duelako. Horrez gain, erredakzioaren beraren forma zein edukia era koherentean atontzea ahalbidetzen du, eta nola ez, idazkera sintetizatu eta konkretu baterako irakaspenak ematen ditu literaturak, iradoki edo esan nahi dena hitz kopuru ahalik eta murriztuz transmititzeko tresnak eskainiz. Chejovek azpimarratu gisara¹¹⁵,

¹⁰⁹ Espainiako Konstituzioa (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa), 14. art.

¹¹⁰ PÉREZ, C. (2006). Derecho y literatura. Isonomía, (24), 135-153 or.

¹¹¹ Herritarrek Justizia Administrazioaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna, 2002ko apirilaren 16koa. Legez besteko proposamena, Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak 2002ko apirilaren 16an aho batez onartua. Hala diote haren 5. 6. eta 7. art.-ek, hurrenez hurren: “*Herritarrak eskubidea du jakinarazpen, zitazio, epatze eta errekerimenduek termino erraz eta ulergarriak izan ditzaten, beharrezkoak ez diren larderiazko elementuak erabiltzea saihestuz*”, “*Herritarrak eskubidea du ikustaldi eta agerraldietan, beharrezko eskakizun teknikoak errespetatuz, zuzenbidean adituak ez diren herritarrentzat ulergarria izango den hizkuntza bat erabilia izateko*” eta “*Herritarrak eskubidea du epaiak eta gainerako ebazpen judizialak hartzaileek ulertzeko moduan idatziak izateko, sintaxi eta egitura errazak erabiliz, zorroztasun teknikoari kalterik egin gabe*”.

¹¹² Ikus 3.1 ataleko 4., 5. Eta 6. gabeziak.

¹¹³ Ikus 88. oin-oharra.

¹¹⁴ SEGOVIA MARCO, A. (2015). *La Técnica Legislativa en la Elaboración de Anteproyectos de Leyes*. Gabilex, 1. Zenbakia.

¹¹⁵ TRIGUERO, E. P. (2013). *Cita-logía*. Punto Rojo Libros. 117. or.

finean, ongi idaztea hitz gutxitan asko esatea delako. Legegintza oparo bezain eraginkor baterako informazioaren emaria izan daiteke, beraz, literatura.

Ahozkotasanari dagokionez, bestalde, literaturak zuzenbidearen praxian ezinbestekoak diren entzuteko, limurtzeko eta komunikatzeko gaitasunak zorrozteko ataka irekitzen du¹¹⁶. Irakurlea den legelari batek, irakurlea ez den baten kontrara, hitz-jario emendatuago batez gain, beste era batera eskuraezin litzaiokeen berezkotasuna izango du ahoz komunikatzerakoan. Literatur-kontsumoak hiztegi lexikoaren hedapena faboratzen du, eta baita elkarrizketen ildoak zuzentzen eta berauek aberasten lagundu ere.

Ahozko judizioen esparruan, ukaezinak dira erretorika zein antzerkigintza bezalako berezko fenomeno literarioen barne hartzea. Prozesu judizialak gertakari eszeniko gisa aztertuz gero, beste ikuspegi literario bat erabil daiteke zuzenbidea aztertzeko eta praktikatzeko, beraz.

Judizioaren¹¹⁷ baitako ahozko diskurtsoa Zizeronek haren lanetan gorpuzturiko erretorika klasikoaren lau kanonetan (*inventio*, *dispositio*, *elocutio* eta *actio* delakoak)¹¹⁸ funtsatzeak, bestalde, operadore juridikoen eginahala erraztu eta hobetuko luke¹¹⁹. Bada, halaber, euskal kulturaren sano erroturik dagoen eta zuzenbidearen baitan haren bertuteak aplikatzeak eragin handia izan lezakeen ahozko-literaturaren edo erretorika errimatuaren adierazpide zehatz bat: bertsolaritza.

Bertsolaritza jendaurrean kantaturiko ahozko estiloko literatur moldea da, gehienetan bat-batean eginiko jarduera poetikoa¹²⁰, bere egiten dituelarik bete-betean Zizeronen lau kanonak¹²¹. Poetika eta erretorika uztartzen dituen ahozko-literatur adierazpide honek, ezbairik gabe, legelarien inprobisatze gaitasuna areagotzen lagundu dezake, eta baita norbere diskurtsoa argumentu sendoz armatzeko zein bat-batean kontra-argumentatzeko iaioetasuna eskuratzen ere. Izan ere, bertsolaritzaren baitako estrategia nagusia argudio edo

¹¹⁶ SUÁREZ LLANOS, L. (2017). *Literatura del Derecho: Entre la ciencia jurídica y la crítica literaria*. Anamorphosis. Revista Internacional de Direito e Literatura. 3. Bolumena, 2. Zenbakia.

¹¹⁷ Gogoan izan beharreko ñabardura bat da Zizeronek *iudicii* gisa izendatu zuela ahozkotasanaren generoetako bat, eta berau judizio edo epaiketa juridikoek osatzen zutela, oro har.

¹¹⁸ ZIZERON, M. T. (2000) *De la partición oratoria* (BULMARO, Reyes Coriaren itzulpena). UNAM, Colección Biblioteca Scriptorum Graecorum et Romanorum Mexicana, 2. Edizioa, 38. orrialdea.

¹¹⁹ PÉREZ VAZQUEZ, C. (2005). *Derecho y Literatura*. Instituto de Investigaciones Jurídicas UNAM.

¹²⁰ GARTZIA, J., SARASUA, J., EGAÑA, A. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Bertsotale Elkarte. Sarrera. 13-33 or.

¹²¹ *Ibid.*, 5.3.3. Inventioa bat-bateko bertsolaritzan. 5.3.4 Dispositioa eta bat-bateko bertsolaritza. 5.3.5 Elocutioa: funtzio poetikoa bat-bateko bertsolaritzan. 5.3.7. Actioa eta bat-bateko bertsolaritza. 175-214 eta 223-227 or.

esaldi garrantzitsuena bukaeran botatzean datza¹²², diskurtso guztia amaierako kolpe horren baitan eratuz. Honako estrategia guztiz estrapolagarria da, adibidez, ahozko-judizioetara, non alderdietako edozeinek ondorio zehatz batera iristea bilatuko duen uneoro era guztietako arrazoi-bideen bitartez. Prozesu penalaren printzipio diren ahozkotatasuna¹²³, publizitatea¹²⁴, lastertasuna¹²⁵ eta gertutasuna¹²⁶ bertsolaritzaren euskarri kontsidera litezke, era berean; funtsean, bertso-saio batean bertsolaria ahoz gora, publikoki, unean bertan, bat-batean eta epailearen zein herri-epaimahai rola har lezakeen entzulegoaren aurrean jardun behar delako.

Idatzizko testu juridikoetan gauza bera gertatuko da; legelaria gai izan beharko da haren lanak helburu zehatz batzuk erdiestera eramango duten arrazoien bidez osatzeko, betiere mezu printzipala amaierarako utziz. Nahitaez idazkiaren amaieran txertatu beharreko *petitumean* aldarrikatzen dena hitzez zehaztu ezean, edo ebazpen baten kasuan, epaitzan erabakia zein den argi esan ezean, ez legoke eragin juridikorik sortzerik. Berriz ere, beraz, argi dago mezuaren muina haren amaierarako uztearen adierazgarritasuna.

Esan beharrik ez dago, bestalde, bertsolaritzak aurtemein aipaturiko abilitade teknikoan eskurapen areagotu bat eskaintzen duela; literatur-molde neurtua eta errimatua izanik, hitzak kontu handiz aukeratzeko, behar komunikatiboen araberako diskurtso erretoriko bat eraikitzeke, hizkeraren estetika zein estilistika bereziki zaintzeko, eta noski, guzti hau unean bertan eta ahoz gora era egokian intonatuta eta ahoskatuta egitea eskatzen baitu. Hertsiki lotuak ageri dira, beraz, ustez zerikusirik ez duten bi disziplinok, egungo

¹²² *Ibid.*, Sarrera. 4. Bat-bateko bertsoaren sorkuntza prozesua. 77-133 or.

¹²³ “*Oro har, ahozkotatasunaren printzipioak esan nahi du epaia ematerakoan epaileak duen uste ona oinarritzeko garrantzitsuena haren aurrean egiten diren frogabideak direla. Aldi berean, printzipio honek balio epistemologiko nabarmena du, zalantzarik gabe, jazotakoaren egia historikora iristeko faktore erabakigarri gisa. Kontraesanean dauden bi alderdi daude, inputatua eta lekukoak, biak epailearen aurrean zuzenean elkar galdekatuz, bere argudioak unean bertan dialektikoki azalduz; azken batean, epaileak haren uste osoa askatasunez osatzeko aukera eskaintzen du ahozkotatasun printzipioak*”. DE LA ROSA, J. M. (2017). *Los principios del derecho procesal penal de menores: instrumentos internacionales, doctrina de la fiscalía general del estado y jurisprudencia*. Centro de Estudios Jurídicos.

¹²⁴ Espainiako Konstituzioa (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa), 120. art.-ak manaturikoak biak, 107. oin-oharrea zehazturikoa osatuz.

¹²⁵ Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena berresteko agiria, Erroman egina 1950eko azaroaren 4an, eta 1963ko maiatzaren 6ko eta 1966ko urtarrilaren 20ko 3. eta 5. protokolo gehigarriek zuzendua, hurrenez hurren, 5.3 art. Espainiako Konstituzioa (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa), 24.2. art

¹²⁶ 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena, 741. art.

justiziaren gabezia baten konponbidean lagungarri gerta litekeelarik bertsolaritza: justizia administrazioaren abiadura falta¹²⁷.

Laburbilduz, ondoriozta daiteke literaturak, dela idatziz, dela ahoz, zuzenbidearen baitan aritzen den edozein klasetako profesionali mesede egiten diola, eta are, legelariak haien jarduna modu eraginkorrean burutzeko beharrezko dutela haren gutxieneko kontsumo bat, beste era batera eskuratzen ezinezko diren gaitasun tekniko batzuen jabe egin ahal izateko.

3.2.2 Fenomenologia juridikoaren baitako perspektiba kritikoaren sustapena.

Zuzenbidea lan-tresnatzat duten profesionalek zein zuzenbideari meneratuta bizi diren herritar guztiek fenomenologia juridikoa ikuspegi kritiko batetik aztertzea komeni da; ez soilik zientzia juridikoaren emaitza perfektu atzemanekinaren bilaketan atzean ez gelditzeko, baita zuzenbidearen printzipio orokorrak zalantzan jarritz haren eraikuntza eta oinarriak sendotu eta etengabeko produkzio legalaren ondorioak kualifikatzeko ere.

Narratiba literarioak era guztietako problematikek zeharkatzen dituzten munduak sortzeko gaitasuna duen heinean, legea, justizia, zigorra edota boterea bezalako kontzeptuen baitako auzi juridikoak ekoizteko balio dezake¹²⁸. Hori dela eta, haien guztien jirako hausnarketa kritikoa sustatzeko tresna da literatura; era guztietako lege eta norma sozialen, botere-formen, justizia-sistemen balizko ondorioak irudikatzeko eta aztergai bilakatzeko gai den espresio artistikoa. Literatur-lanek, oinarrian zuzenbidea duten obra anitzetan froga gisara, errealitate fisikoan existituriko afera juridikoak deskriba ditzakete¹²⁹, edota etorkizunean zuzenbidearen baitan eman litezkeen fenomenoak imajinatu¹³⁰. Kontua, ordea, zera da: dela errealitate historikoan oinarrituz, dela fikziozkoa planteatuz, narratibaren bitartez zuzenbideak jendartean izan duen edo izan dezakeen inpaktua analizatu zein aurreikus daiteke. Erro horretatik abiatuz, zuzenbidearen zein haren bueltako fenomeno juridikoen azterketa kritiko bat burutzeko tresna zinez baliagarria da literatura, sustatu edo ekidin beharreko egintza normatiboak identifikatzea ahalbidetzen duen heinean.

¹²⁷ Ikus 3.1 Ataleko 1. gabezia.

¹²⁸ TORRES, O. (2017) *Derecho & Literatura. El derecho en la literatura*. México: Libitum. 30. or.

¹²⁹ CAPOTE, T. (1966). *In Cold Blood*. Penguin. GRAVES, R. (1934). *I, Claudio*. Arthur Barker.

¹³⁰ CAMUS, A. (1942). *L'Étranger*. Éditions Gallimard. ORWELL, G. (1949). *Nineteen Eighty-Four*. GOLDING, W. (1954). *Lord of the Flies*. Faber and Faber. ELORRIAGA, U. (2019). *Iturria*. Susa. ATWOOD, M. (2020) (GARRO, Z.-ren itzulpena). *Neskamearen ipuina*. Txalaparta.

Autore askoren ustetan, eleberria langai guztiz baliagarria da printzipio juridikoen azterketari ekiteko, egoera sozial espezifikoeetan gorpuztu ohi diren giza premia eta desiren etengabeko formak aurkezten dituelako, bizitza errealean gerta bezalaxe¹³¹. Zilegitasunik gabeko legezkontasuna, legez jantzitako injustizia, gradualki juridiko bilakatzen den botere faktikoa, bermerik gabeko eskubide-multzoa, moralik gabeko zuzenbidea zein justizia ankerra¹³² irudikatzeko gai diren obrak irakurtzeari eskerrak, hain zuzen, zuzenbidearen printzipio orokorrak konprenitzea eginahal samurragoa izango da, eta baita haiek kolokan jar litzakeen edozein egitate juridikoren ustekabeko sortzeaz ohartzea eta harekiko mesfidantza eta alarma-egoera piztea ere.

Literatur-fikzioak, esentzian, errealitatearen kritika gisa funtzionatzen du; sarritan, errealitateaz harago joan eta hura eraldatzeko nahi baten adierazpide izan ohi dira obra literarioak. Literatur kontsumoaren eraginez, hortaz, posible da era guztietako errealitateak zalantzan jartzera ausartuko diren herritarrak formatzea, irakurri dituzten obren eta errealitate faktikoaren arteko konparaketa egitera ausartuko direlako. Herritar literarioen gogamenetan exigentzia soziala altuagoa da, eta honek eragin zuzena du sistema juridikoekiko konformismo mailan.

Literaturak “*juridikoa*” errealitatera itzultzeko gaitasuna dauka¹³³, halaber, testu-legal ororen egiazko esanahia, hots, transmititu nahi duen mandamentu legalaren eduki juridikoa, xedapenaren hartzaile izango diren horiei ulertzeko moduko bihurtaraziz¹³⁴. Literaturaren kritikotasuna berpizteko bertutea ez da, ondorioz, zuzenbidearen alorreko profesionalen harrerara mugatuko, ez eta gutxiago ere. Herritarra zuzenbidearen esanahia eta egin nahia ulertzetik hurbilago egongo da literatur irakurlea izanez gero, aurretiaz aipaturiko gaitasun tekniko-juridikoen jabe egin ahalko delako; horren ondorioz, errealitate juridikoaren nolakotasuna ulertu eta haren baitako analisi kritikoak egiteko kapazagoa izango da, jendartea arautuko duen sistema juridiko justuago baten eraketa faboratuz.

¹³¹ NABASKUES, I. (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. Aranzadi, Lehen edizioa. 25. or.

¹³² TALAVERA, P. (2006) *Derecho y literatura*. El reflejo de lo jurídico. Granada: Comares. 60. or.

¹³³ SCHWARTZ, G. (MEINERO, F.P.-ren itzulpena) (2011). *La constitución, la literatura y el derecho*. Buenos Books América 121. or.

¹³⁴ NABASKUES, I. (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. Aranzadi. 25. or.

3.2.3 Bertute epistemiko eta moralen eskurapena.

Ideologia edo sinesmen baten sormena bertuteek egiaz baldintzatzen duten prozesu etiko baten emaitza da¹³⁵. Bertute epistemikoak, beraz, gure bizitza zein esperientzia pertsonalak baldintzatzen dituzten gaitasun mentalak dira, helburu on bat erdiestea ahalbidetzen duten gaitasun operatiboak¹³⁶. Arrazoimen judizial apropos bat formatze bidean, aurretiaz izendaturiko gaitasun juridiko-teknikoez gain, ezinbestekoa da bertute epistemiko eta moralen eskurapena.

Posible ote da, ordea, norbanako batek bertuteok literaturaren bidez eskuratzea? Itaun honen erantzuna ematen ahalegindu zen Alasdair MacIntyre “*After Virtue*”¹³⁷ lanean, haren teoria narratibista zenbait autorek goraiatu dutelarik¹³⁸. Mendebaldeko kulturaren edonork propiotzat duen konbikzio moral bakarra da, hain zuzen ere, ez dagoela irizpide objektiboetan oinarritzen den eta irizpide pertsonal-subjektiboak gainditzeko gai den konbikzio moral orokorrik¹³⁹. Ez dago balore unibertsal egokirik finkatzerik, ez eta orain arte finkaturik egondako horiek egiazkotzat hartzerik ere, gizateria eskema morala orokor batzuk eratzeko ez-gai delarik. Ezbairik gabe errefusatuak izan diren egun arteko baloreen eta haien transmisio-molde klasikoaren ordez beste batzuk finkatu dira, MacIntyrek gogorki kritikatzeko dituen tradizioak sortuz. Horiek dira, besteak beste, tradizio entziklopedista eta genealogikoa¹⁴⁰, zeinak autoreak bertutea muinetaratzeko modelo gisa ezesten dituen.

Horien ordez, MacIntyrek aztertzeaz garen ikuspegi narratibistaren balioa aldarrikatzen du, hurrengoa baieztatzuz: istorioen narrazioa da bertute-ereduak ulertarazteko bitartekorik eraginkorrena, hauek komunitate bat itxuratzen duen kontaktaren baitan konprenigarriagoak eta barneragarriagoak baitira¹⁴¹. Ez dago bertute moral zehatzik ulertarazterik, bertute-ereduak baizik. Bertutez jokatzeko ez da arauen arabera jokatzeko

¹³⁵ BATTALY, H. (2008). *Virtue epistemology*. Philosophy Compass, 3(4), 639-663 or.

¹³⁶ AXPE, M. R. V. (2019). *Virtudes epistémicas de las ciencias de la complejidad y la interdisciplinariedad*. Lumen, 68(3), 433-448 or.

¹³⁷ MACINTYRE, A. (2013). *After virtue*. A&C Black.

¹³⁸ NABASKUES, I. (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. Aranzadi, Lehen edizioa. 9-16 or.

JURI, M. A. (2019). *El narrativismo de Alasdair MacIntyre: una propuesta de restauración epistemológica de la Filosofía Práctica a partir de la Historia*.

FIGUEIREDO, L. M. (1999). *La filosofía narrativa de Alasdair MacIntyre*. Eunsa.

NASH, C. (1990). *Narrative in Culture: The Uses of Story-Telling in the Sciences, Philosophy and Literature*. London, Routledge.

¹³⁹ MACINTYRE, A. (2013). *After virtue*. A&C Black.

¹⁴⁰ *Ibid.*, 1-7 eta 43-61 or.

¹⁴¹ NABASKUES, I. (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. Aranzadi, Lehen edizioa. 9. or.

izango; narrazioen markoan ageri diren jokabide-ereduak kontuan izanik berezko erabaki autonomoetan oinarrituko portaera izatean datza bertutezko jokabideak.

Norbera nor egiten duena bera eta haren zirkunstantziak badira¹⁴², narrazio literarioa bera bizitzaren ondorioa da, drama eta nobela baita aldi berean¹⁴³. Era horretan, istorioen narrazioa hezkuntza moralaren funtsezko giltzarria da, ez baitago gizartea haren oinarritzko baliabide dramatikoek osaturiko narrazio gabe ulertzerik¹⁴⁴. Eduki moralak jatorri praktikoa duela ondoriozta daiteke, beraz, narratibismoaren eskemetan; balio moral oro narrazioa osatzen duten pertsonaien jokabide, bizipen eta hausnarketetatik eratorriko da.

Operadore juridiko arrunta bertutedun operadore juridikotik bereiziko duena izango da, alegia, azken hau narrazio literarioen irakurlea izatea. Era horretan, pentsatzekoa da literatura funtsezko tresna dela funtzio judiziala behar bezala betetzeko beharrezkoak diren bertute epistemiko zein moralak garatu ahal izateko¹⁴⁵.

Balio epistemiko eta moral konkretuetan sakonduz, Nussbaumen¹⁴⁶ iritziz, literaturak hirugarren norbanako batzuen azaletik guztiz ezezagun zaizkigun esperientziak bizitzeko parada eskaintzen duenez, arrazionaltasun juridiko eta moralaren zutabe den enpatia garatzen laguntzen du. Emozioak hautemateko, propio egiteko eta haien arabera jarduten ikasteko ezinbesteko tresna da literatura, pertsonaia literarioen nortasunaren ertzak fineziaz konprenitu izanak prozedura judizial baten testuinguruaren ezaugarri berezietara moldatzeko gaitasuna atxikiko diolarik operadore juridiko irakurleari. Arrazoibide juridiko puruan oinarrituriko eredu zientifikoaren aurrean, zeinak epaitzeko beharrezko gaitasunak murrizten dituen, Nussbaumek arrazoibide juridikoaren kontzepzio humanistikoaren aldeko hautua egiten du. Horrek, ezagutza teknikoa izateaz gain, gizateriaren mesedetan jarduteko gaitasunaren lanketa eskatzen du, literaturaren bidez baino eskura ezin daitekeena¹⁴⁷.

Literaturak mundu-ikuspegia orientatzen du; alegia, balio kolektiboen eremuan sartu eta irakurlea mundu berri posibleak imajinatzerara bideratzen du, haren hautemate atalasea

¹⁴² ORTEGA Y GASSET, J. (1914). *Meditaciones del Quijote*. 12. or.

¹⁴³ FIGUEIREDO, L. M. (1999). *La filosofía narrativa de Alasdair MacIntyre*. Eunsa. 105. or.

¹⁴⁴ NABASKUES, I. (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. Aranzadi, Lehen edizioa. 13. or.

¹⁴⁵ NUSSBAUM, M. (1995). *Poetic Justice: Literary Imagination And Public Life*. Beacon Press.

¹⁴⁶ WEST, R. (1996). *The Literary Lawyer*, Pacific Law Journal 27.

¹⁴⁷ NUSSBAUM, M. (1995). *Poetic Justice: Literary Imagination And Public Life*. Beacon Press. 121. or.

areagotuz¹⁴⁸. Hori gutxi balitz, lege-arauen literaltasunetik haragoko justiziaren idealaren bilaketan irakurketa kritikoa eta etikoa egiteak zientzia juridikoa *epieikeia*¹⁴⁹ tradizio aristotelikora gerturatzen du¹⁵⁰.

Hitz gutxitan, beraz, literaturak kontzeptu juridikoen ikuspegi gizatiarragoa eta konplexuagoa eskain diezaioke zuzenbideari, bai eta gizartea zedarritzen duten balioak eta arauak sakonago ulertzen lagundu ere. Narratibismoaren teoriatik abiatuz, bertutedun jokabide-ereduen hedabide ezin hobea izan daiteke literatura. Zuzenbidearen alorreko edozein profesionalak bertutez jokatzeko beharrezkoa denez gero, ondorioz, haren jarduna modu eraginkorrean burutzeko ezinbestekoa zaio literatur kontsumoa, hortaz.

4. Unai Elorriaga. Obra eta autorearen kosmobisioa.

4.1 Biografia eta testuinguru soziokulturala.

Unai Elorriaga Lopez de Letona 1973ko otsailaren 14an Bilbon jaio arren, Algortar petoa da. Hiru anai-arrebetan gazteena, Bizkaiko golkoan kokaturiko Getxoko auzo populatuenean hazi, eta ordurako legeztatua izan zen San Nikolas ikastolan hezi zen, Trantsizio garaian. Frankismoaren itzala oraindik presente, euskal gatazkan giltzarri izandako pasadizo zehatz batek bereziki markatu zuen Elorriaga hauraren kontzientzia juridiko-politikoa, herrian bertan jazoa: Eustakio Mendizabal “*Txikia*”, ETaren fronte militarreko arduradun nagusia zenaren hilketa. Gertakari hartaz gain, bada Elorriagaren bizitzaren noranzkoa horrenbesteraino markatu duen indarkeriarekiko lilura asaldatuaren pizgarri izan zen beste egitate bat: oraindik haurra zela Algortako San Nikolas plazako “*La Plaza*” tabernan emandako erailketa, “*droga edo politikagatik izan zen ez nekien arren*”¹⁵¹. Heroinak eragindako sarraski sozialaren eta “*berun urte*” haietako atmosfera biolento bezain erradikalki polarizatuaren mantuan hazitakoa dugu, bada, autorea.

¹⁴⁸ SANSONE, A. (2001). *Diritto e letteratura. Un'introduzione generale*. Milano. Giuffrè. 142. or.

¹⁴⁹ Honako printzipio etikoak dio lege baten aplikazioa ekidin daitekeela, betiere haren aplikazioaren saihestearekin haren betetze arruntak lekarkeen onura baino handiagoa lortzeko posibilitatea balego. CHROUST, A. H. (1942). *Aristotle's conception of equity (Epieikeia)*. Notre Dame Law., 18, 119. or.

¹⁵⁰ WATT, Gary (2009). *Equity stirring. The story of Justice beyond law*, Hart Publishing. 4. or.

¹⁵¹ Lan honen hurrengo orrialdeetan zehar karkotx artean emaniko zita guztiak, oin-oharren batek kontrakoa iradoki ezean, Unai Elorriagari 2023ko apirilaren 26an egindako elkarrizketaren grabaziotik ateratakoak dira.

Elorriagaren hitzetan, euskal literaturarekiko egiazko mira *Narrazioak*¹⁵² lan ezagunak sortu zion, ordura arte Txomin Agirre zein beste zenbait euskal autore klasikok lortu ez zutena erdietsiz: literatura unibertsalaren parte izan zitekeen euskarazko lan bat sortzea. Geroztik, egunean lauzpabost ordu irakurri ohi zituen nerabea bilakatu zen, haren literatur-zaletasuna Euskal Filologia ikasketak burutuz biribildu zuelarik, Deustoko unibertsitatean. Ibilbide akademikoari akabera eman orduko Labayru Ikastegian hasi zen irakasle, behar hura itzulpengintza lanekin partekatuz. Saiakera¹⁵³ eta haur literatura¹⁵⁴ jorratu baditu ere, narratibaren baitako eleberrien lurretan urratu du, gehienbat, haren ibilbide literarioa: *SPrako tranbia*¹⁵⁵, *Van't Hoffen ilea*¹⁵⁶, *Vredaman*¹⁵⁷, *Londres kartoizkoa da*¹⁵⁸, aztergai dugun *Iazko Hezurak*¹⁵⁹ eta bere azken nobela, *Iturria*¹⁶⁰, dira haren lanik esanguratsuenak.

90ko hamarkada amaierako idazle gazteen belaunaldikoa da, Espainiako Narratiba Sari Nazionalaren irabazlea, Euskadi Sarietan askotan izendatua eta birritan koroatua; haren lan guztiak pertsonalki itzultzen ditu gaztelerara. Prentsan kolaboratzaile aritu da *Berria*¹⁶¹, *El Pais*¹⁶², *El Mundo* edota *La Vanguardia* egunkarietan, eta euskal idazle profesional bakanetakoa izandakoa badugu ere, egun Literatura Unibertsal irakaslea da Leioako Jose Miguel Barandiaran BHI institutuan.

Idazkera gozoa, sotila eta ironiaz betea darabil haren lanetan, dagoeneko euskal literaturaren parte kontsideratzen den estilo guztiz propio bat fintzera iritsi delarik. Cortazar, Borges, Rulfo edo Faulknerren eragin nabarmenpean, hutsaltasunaren apologia¹⁶³ konstantea da bere narratiba, irakurlea itxuraz deus mamitsurik ezkututzen ez duten

¹⁵² SARRIONANDIA, J. (1983). *Narrazioak*. Elkar.

¹⁵³ ELORRIAGA, U. (2001). *Literatur ideia batzuk*. Labayru Ikastegia, 1. Edizioa.

¹⁵⁴ ELORRIAGA, U. (2006). *Matxinsaltoen belarriak*. Elkar. ELORRIAGA, Unai (2012). *Zizili*. Elkar. ELORRIAGA, U. (2015). *107 kiwi*. Elkar. ELORRIAGA, Unai (2018). *Erraldoiek ez dute lagunik jaten*. Begiko.

¹⁵⁵ ELORRIAGA, U. (2001). *SPrako tranbia*. Elkar.

¹⁵⁶ ELORRIAGA, U. (2003). *Van't Hoffen ilea*. Elkar. Honako lanak, bestalde, *Igartza Saria* irabazi zuen.

¹⁵⁷ ELORRIAGA, U. (2005). *Vredaman*. Elkar.

¹⁵⁸ ELORRIAGA, U. (2009). *Londres kartoizkoa da*. Elkar.

¹⁵⁹ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa.

¹⁶⁰ ELORRIAGA, U. (2019). *Iturria*. Susa.

¹⁶¹ https://www.berria.eus/egilea/Unai_Elorriaga (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

¹⁶² <https://elpais.com/autor/unai-elorriaga/> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

¹⁶³ Txikitasuna, zaugarritasuna, ez-deusa den horri begitandu eta haren izateko eraren jatorrian dagoenari zein haren existentziaren ondorioei erreparatzeko joera gisa uler bedi hutsaltasunaren apologia. Halakoxea da, halaber, XX. mendeko literaturaren erakusgarri diren autore horiengandik ohikotasunaren parte diren elementuei propietate fantastikoak txertatzeko, eta fantasiak ziprztinduriko literatura soziala egiteko gaitasuna ikasi zien Elorriagak. Literatur-molde modernistaren autore adierazgarriotaz gaindi, ageriko konexioa aurki liteke Elorriagaren literaturaren eta soziologia zein antropologia modernoarekin. Horren

zirrikitueta usnatzera gonbidatu eta hauts eta ilunari ihes egiten dioten hausnarketa luzeetara eramateko gai delarik. Haren lanek asko dute autobiografikotik, eta bere kosmobisio partikularren isla leialak dira denak ala denak; txikitik handira eraikiak, ñabarduretan funtsatuak, eta hitz potoloenen edukia maisutasun soil batez zukutzeko sortuak. Kontrakoa badirudi ere, idazkera zinez analitikoak du autoreak, argitaratu duen eleberri bakoitza argitara atera aurretik hirurogei aldiz irakurtzera iritsi izan baita. Izkiriaturiko hitz bakar bat bera ere ez du ausaz hautatzen, berba ororekin zerbait sortarazi eta pentsarazi gura duelarik.

Bestalde, apaltasun osoz bere burua linguistikaren edo literaturarekin zerikusirik ez duen edozeren gaineko “*aditu*” jotzeari muzin egiten badio ere, haren lanek badute historikotik, badute politikotik, eta baita juridikotik ere. Elorriagaren inguru sozio-politikoaren nolakotasunek bere nortasun propioan zizelkatu dituzten ezaugarrien isla dira bere obrak, *Iazko Hezurak* batik bat, bere obrarik “*esplizituki autobiografikoena, ziur asko*”. “*Behaketan*” oinarritzen dira haren lan gehientsuenak, ikusten duen edozer purutasun zintzo eta errealistenetik deskribatzeko ahalegin betean sortzen duelarik; *SPrako tranbia* irakurri ostean, adibidez, “*mediku batek baino gehiagok*” esan zion “*gaixotasun batzuen sintomak esku-liburuek baino askoz hobe*” deskribatzeko gai izan zela, Elorriagak medizina ez gertu bazekien ere.

Autoreak zuzenbidearekiko izan dezakeen konexioari buruz galdetzean, hala dio: “*zorionez, ez dut egundaino epaiketarik izan*”. Jakin badaki, ordea, prozesu judizial bat nork osatzen duen, zer bilakaera har dezakeen, zer terminoren baitan eratzten den... Itzultzaile gisa jardundako urteetan makina bat testu juridiko itzulitakoa da, eta hori izan da literatura juridikoa kontsumitzetik gertu egon den bizitza-unea.

Bestalde, haren klaseetan sarritan azpimarratzen zuen; “*idazleen aberria haurtzaroa da*”, eta bere kasuan, ume-umetatik “*justiziarekiko sentsibilitate berezia*” izan duela aitortzen du. Ahuldadeak, zaurgarritasunak erakarri izan dute beti, eta historikoki haiek tratatzeko eman diren moduak behatuz, justiziak haiei eman dizkien erantzunak aztertuz, eduki juridiko ukalezina duen lan bat sortzeko gai izan da: *Iazko Hezurak*. Protagonista den Irene Arriasen gogoeta oro propio egitera ausartu gabe, Elorriagak aitortzen du

erakusgarri da, adibidez, Günther Anders, Elorriagak “*Iazko Hezurak*” lanean aipatzen duen Hannah Arendten senarra, zeinak ekintzen hutsaltasunaren eta haiek sortzen dituzten ondorioen larritasunaren arteko konexioa aztertzen jardun zen bizitza osoan zehar.

“autofikzio” lan bat ere badela, eta hausnarketetako asko bere egin ditzakeela, arazorik gabe.

4.2 Autorearentzako literaturaren balioa.

Literatura “*mila eta bat bizitza da bakarrean*”¹⁶⁴, eskuarki, baina baita transformaziorako tresna ere, lan askotan frogatua izan den gisara¹⁶⁵. Autoreak, Lobo Antunesen *A ordem natural das coisas*¹⁶⁶ lanari buruzko gogoeta interesgarri bat egiten du:

*“Irene Arriasek 31 urte zituela irakurri zuen aurrenekoz António Lobo Antunes, A ordem natural das coisas. Oraindik geratzen zitzaion Ireneri arte hutserako pentsamenduren bat, txikia beharbada, lotsagarria beharbada, baina liburuko esaldi batzuetan iruditu zitzaion ezin zela bestela idatzi, Lobo Antunesen ostean ez dagoela ezer, ezin dela egon. Irene Arriasen bihotz muskulua ia erritmo perfektuan mugitzen zen A ordem natural das coisas irakurtzen ari zen bitartean. Lobo Antunesek ez zuen Angola edo gerra liburuaren segundo bakar batean ere aipatzen, Irene Arriasek irakurri eta 10 urte geroago gogoratzen zuenaren arabera”*¹⁶⁷.

Euskal herrietako garaiko muturreko politizazioaren fruitu, ziur asko, arteagatik artearen sorkuntzari lotsagarri iriztera iristen bada ere, literaturak “*artifizioa, gutizia*” ere izan behar duela defendatzen du autoreak. Literatura ez da munduaren alde hitsa, bazterren grisa, kale kantoï ilunenen isla hutsa izatera mugatu behar; aitzitik, “*plazerrera*” tresna ere izan behar da, pasio irrazional bezain neurrigabeetarako plaza. Hala dio bere lehendabiziko lan argitaratuaren hitzurrean:

“Literaturaren bitartez hizkuntzaz jabetuko gara, baina hori baino gehiago. Testuok sortu diren herriaren adierazgarri dira neurri handi baten, eta euren bitartez giza talde oso baten pentsakera, iruditeria, ohiturak, siniskerak eta izakera bera zabaltzen dira, zuzenean nahiz zeharka. Beste arteen moduan (eskultura, arkitektura...), literatura be unibertetsala da ezaugarri batzuetan,

¹⁶⁴ *Ibid.*

¹⁶⁵ ELLEN, W., THALIA, G., & STÉPHAN, V. L. (2014). *¿El arte por el arte? La influencia de la educación artística*. OECD Publishing.

¹⁶⁶ LOBO ANTUNES, A. (2013) (ROQUE, I.-ren itzulpena). *Gauzen ordena naturala*. Literatura Unibertetsala bilduma. Alberdania, Igela eta Erein.

¹⁶⁷ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 200. or.

baina lekuan lekukoa beste batzuetan. Alderdi bietatik da interesgarria, duda barik, aberasgarria dan neurrian. eta gozagarria ganera”¹⁶⁸.

Bere ustez, literaturak etengabe ustekabeen harrapatu behar du irakurlea, eta espero ez duen gauza bat eskaini. Bat dator, hein batean, MacIntyriren teoria narratisbitaren tesiarekin: *“Narrazioak balio-moralak edo jokabide-ereduak irudikatzeko eta transmititzeko bitarteko eraginkorrenetakoak izan daitezke”*. Ez ditu autoreak, bada, gainontzeko jokabide-ereduak txertatzeko moldeak (hezkontza, historia...) ukatzen, baina fikziozko narrazioek irakurlearengan bertutez jokatzeko moduak grabatzeko duten gaitasuna gorai patzen du, espreski.

Literaturaren formari dagokionez, oso argia da Elorriaga: *“Edonon dago literatura, ez paperezko liburu arruntetan bakarrik. Are gehiago, batzuetan, liburu batzuek baino askoz gehiago dute literaturatik ahoz-aho transmitituriko istorio eta kontuek”*. Ahozko literaturaren balioa aldarrikatzen du, beraz, berau historikoki laidoztatua izan bada ere. Ahozkotasunaren izaera literarioak, era berean, idazlea idatzizko literatura sortzerakoan *“hura baloratzera, estimatzera eta kontuan izatera darama, ezinbestean”*. Bere lanek ahozkotasunetik asko dutela onartzen du. Hitz horietatik, ahozkotasuna kontuan hartzen ez duten obrak hankamotz geratzeko arriskuan egon litezkeela ondoriozta liteke, beraz.

Horrez gain, literaturaren nonahikotasunaren baieztapena kontuan hartuz gero, testu juridiko zein ahozko judizioetan ere literatura dagoela esan genezake. Autorea ados dago honetan, ñabardura bat azpimarratuz: *“Itzultzeko testurik errazenak dira juridikoak, automatikoenak; egiaz ulertzeko eta nor bere egiteko, ordea, zailenak dira. Sekulako desberdintasuna dago gaztelerazko literatura juridikoaren eta euskarazkoaren artean. Gaztelaniazkoak zientoka urte ditu, esaldi eginak, egunerokoan aditzen ez diren hitzak. Euskarazkoa, ordea, berriki sortua denez, ulertzeko samurragoa da. Hala gertatzen da, adibidez, bankuaren edo administrazioaren jakinarazpen bat jasotzerakoan; irakurri ezazu gazteleraz aurrena, eta zorabiatzear zaudenean, irakur ezazu euskaraz. Horrela soilik uler daiteke batzuetan”*. Literaturaren antzintasunak proportzionalki eragiten dio haren ulergarritasunari; horrek ez du zertan kalitatea gutxiagotzen duenik esan nahi, baina bai erraztasun gutxiago eskaintzen dituela. Hari horretarik tiraka, beraz, arlo guztietako literatura eguneratzeko beharra dagoela uste du autoreak, literatura horren helburua

¹⁶⁸ ELORRIAGA, U. (2001). *Literatur ideia batzuk*. Labayru Ikastegia, 1. Edizioa, Aurkezpena.

zerbait ulertaraztea denean, batez ere. Literatura organismo bizi kontsideratzen du, bada, eta haren organikotasuna errespetatzeko beharra aldarrikatzen.

Azkenik, bertsolaritzaren nolakotasunei erreparatuz zuzenbideko zenbait alor zehatzekin izan lezakeen bat etortzeari buruz ihardestean, autoreak, zeina bertsolaritzan ibilia izan den, hala dio: “*ez dago publikoki hitz egiterako garaian gehiago lagundu didan arte-espresiorik*”. Operadore juridiko batek bertsolaritzaren inguruko edozein jakintza edukitzeak mesede handia egin diezaiokeela defendatzen du Elorriagak, “*inprobisatzen, hutsetik abiatzean, bat-bateko ideiak unean-unean txertatzen, solaskideari arreta handiagoaz entzuten*” lagungarria delako honako ahozko-literatur moldea.

5. Iazko Hezurak liburuaren analisi iusfilosofikoa.

5.1 Lanaren gorputza, baliabide literarioak eta eztabaida juridikoa.

Iazko Hezurak (2014) protagonista gisa 1970eko hamarkadan jaiotako Irene Arrias algortarra duen ez-ohiko eleberri bat da. Klase guztietako biolentziak hartzen ditu hizpide uneoro, haien testuinguruaren, ezaugarrien eta zergatien inguruko galdera ugari airera jaurtiz, batzuetan haiek erantzuteko, besteetan zintzilik uzteko. Obsesio baten kontakizuna da eleberria, tramaren nukleo zentral gisa “*euskal herrietan*” emandako gatazka politikoaren ibilbidea eta Ruandako genozidioa edo genozidio-ahalegina¹⁶⁹ dituen, baina planeta osoko biolentzia kasuetara hedatzen dena.

Protagonistaren jaiotzarekin ekiten dio obrari autoreak, erditze hark amarengan sorturiko mina azpimarratuz:

“Irene Arriasek ia zentimetro eta erdiko urratua egin zion amari jaio zenean, Algortan, 1971ko urtarrilaren 25ean. Odol asko eta desberdinak nahastu ziren amaren izterretatik, likido lodi batzuk ere bai beharbada. (...) Hori guztia Algorta erdi-erdian, trenbidetik oso hurbil, Avenida del Ejército esaten zioten kalean, Bilboko Basurtuko ospitaleari Hospital Civil del Generalísimo esaten zioten bezala, urte bi geroago Eustakio Mendizabal Txikia hara

¹⁶⁹ Honako terminologia desberdintze ariketa egiten du autoreak etengabe obra osoan zehar. Sakonago aztertua izan da 5.2 atalean.

*hiltzera eraman zutenean, bala zulo bat bizkarrean eta beste bat buruan, frontalean sartu eta okzipitalean kanporatu zena*¹⁷⁰.

Odolaz eta minaz mintzo zaigu obraren hastapenetik Elorriaga, mota eta leku askotako oinazeak konektatuz, liburu osoan zehar etenik gabe egingo duena aurreratuz. Lehenbiziko deskribapen honen kasuan, halaber, edozein prozesu konstituziogile demokratikoren sorrerarekin¹⁷¹ erkaketa bat egitera ausartuko nintzateke; Irene Arriasen jaiotzak oinazea sortu zuen haren amarengan, ordurarte betetzen zuen espazio bat hutsik utzi zuelako, beste espazio fisiko bat okupatzeko, alde batetik, eta baita min fisiko deskribaezin bat eragin ziolako, bestetik. Min fisikora baino trantze sinbolikora gehiago hurbiltzen den zerbait espermentatzen du, era berean, prozesu konstituziogile bat bertatik bertara bizi duen herritarrak. “*Odol asko eta desberdinak*” ikusiko ditu nahasten hark ere, bat egiten, ordurarte beste espazio bat okupatzen zuten eskubide sozial eta politikoak arau inperatibo edo xedagarri bilakatuko dituen eta lege-iturri goren izango den dokumentu juridikoan leku hartzen, alaba, eskubideen haragiztatzea. Sorrera orok desagerpen bat dakar, gogaidetasun bat eman dadin etsaitasun bat existitu behar izan den era berean.

Era honetako gogoetak ahalbidetzen dituzten pasarte ugari daude; hona honen beste erakusgarri bat: “*Azaldu zuen gero Idi Aminek berak jan zuela ministroaren gibela, ohitura zela haren herrian, etsaien haragi zatiak irensten zituztela, espiritu gaiztoak uxatu eta aldeko zorteari eusteko*”¹⁷². Zer da ohitura? Zilegi al da Zuzenbidearen iturri¹⁷³ gisa? Biolentziaren kulturaren globalizatzearen sinbolo bilaka daitezkeen gertakizunei buruzko zertzeladak eskainiz, gogoetarako amu andana jaurtitzen ditu autoreak. Elorriagak ez ditu indarkeriaren krudeltasun edota irrazionaltasun maila konparatu nahi, haien presentzia saihestezin, etengabeko eta non-nahikoa azpimarratu baizik.

Irene Arrias ez da edonor izango, autorearen *alter egoa* den heinean, baina garai hartako edozein euskal ume da, hein berean. Espreski protagonista emakumea hautatu zuen

¹⁷⁰ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 9. or.

¹⁷¹ “*Los procesos constituyentes en democracia son hitos que demoran en concretarse, principalmente porque deben ser fruto de un amplio consenso social y político*”. ESCUDERO, M. C., & GAJARDO, J. (2020). *Nueva Constitución y proceso constituyente*. IdeAs. Akordio sozialetara iristea posible denetan ere, prozesu konstituziogilea errealitate juridiko bilakatuko duten akordio politikoen beharrezkotasuna azpimarratzen da obra honetan, Chileren kasuistika kontuan hartuz,

¹⁷² ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 10. or.

¹⁷³ 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila onartzen duena, 1.3 art: “*Ohiturak lege aplikagarriak izan ezean bakarrik eraenduko du, betiere moralaren nahiz ordena publikoaren aurkakoa izan ez eta ohitura hori frogatuz gero*”.

autoreak, “zaurgarritasun” eta “injustizien pairamen” areagotu bat irudikatzea xede zuelarik. Algortaren erdigunean heziko da protagonista, eta baita bertatik ez oso urrun hil ere, liburuaren laugarren atalaren amaieran, torturapean. Bere bizitza osoa, hasi eta buka, parez-pare ikusiko du irakurleak, baina ez edonola: Ireneren une bital garrantzitsuenak gizateria globalaren, oro har, zein euskal jendartearen, konkretuki, noranzkoa markatu zuten gertakari biolentoekin lotuko ditu autoreak:

“Irene Arrias umearen buruak gora eta behera egiten zuen, amaren titimuturra aho barruan sartzeko, baina ez zuen topatzen, begiak itxita oraindik. Kolpeak hartzen zituen umeak titi-sagarraren kontra, sudurrean eta kokotsean batez ere. Baina lortu egin zuen halako batean, amak ikara bat sentitu zuen, eta une horretan bertan, 1971ko urtarrilaren 25ean, Irene Arriasek amaren titiburua aurrenekoz harrapatzen asmatu zuen unean bertan, abiatu zuen estatu-kolpea Idi Amin Dada jeneralak Ugandan, Milton Obote presidentea atzerrian zela”¹⁷⁴.

Irene Arriasek bizirik zela era inkontzientean egin zuen lehendabiziko ekintza deskribatzen du Elorriagak, sortu berri zuen eta elikatuko zuen amaren bularrari lehenengoz heltzea. Egitate hori, alabaina, une zehatz berean, eta erabateko kontzientziaz Ugandan emaniko estatu-kolpearekin konektatzen du, biak hari ikusezin batek lotuko balitu bezala. Itxuraz logikaz aurkakoa izan badaiteke ere titi-sagarra ahoratzea bezalako mugimendu xalo bat bizitzeko modu oro guztiz irauli dezakeen estatu-kolpe batekin harilkatzea, autoreak intentzio oroz eginiko zerbait da: jaiotza eta heriotza aurrez-aurre jartzen dira, txanpon berberaren bi aurpegi diren justizia eta injustizia pertsonalizatuz. Bertutezko jokabide-ereduaren muina irudikatzen zaigu, era negatiboan; estatu-kolpea, odol bidezko zentsura, justiziaren aurkako oldarraldia. Inork jasan behar ez lukeena deskribatzen zaigu, jazo behar ez litzatekeena, baina zoritxarrez, errealitatean gertatu dena; krimena, basakeria, gizatiarra gainditzen duen jokamolde higuigarri bezain jasanezina, eta hori guztia ezinbestez gertatu behar denarekin, jaiotzarekin, justizia ahalbidetzen duen egitate gorenarekin parekatzen. Hala jarraitzen du:

“Lehen orduetan, Irene Arriasen ama lehen lo txikiak egitea lortzen ari zen bitartean, armadaburu gehienak hil zituen Idi Aminek. Hurrena, abokatu,

¹⁷⁴ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 2. or.

irakasle, mediku ugari atxilotu eta hil zituen. Auzitegi goreneko presidenteari, Benedicto Kiwanukari, esate baterako, hankak eta besoak ebaki zizkion hasteko, sexu-organoak erauzi gero eta ahoan sartu. Odolusten ari zela, bizirik artean, erre egin zuen”¹⁷⁵.

Giza-historiaren pasarterik ilunenetarikoa izan daitekeen hura hitzez azaltzea hura berriz gerta ez dadin aldarrikatzeko era argia da. Ireneren bizitza zeharkatu zuen bezalaxe, irakurlearen bizitza zeharkatzea asmo duen zerbait izan zen estatu-kolpe hura, injustizia lez ulertua, errealitate fisikoan eman zelako, eta obran aurrera egin ahala irakurleak deskubrituko duen gisara, edozein unetan edonon gerta daitekeelako. Hona hemen Ireneren egunerokoaren eta errealitate gordinaren arteko parekatze saiakera konstantearen beste adibide bat:

“Ematen du indarkeria giroetan ohitura handia dagoela umeak hiltzeko, gerretan, soldadu-umeak Afrikan, Amerikan, Europan ere bai. Adalbert Munzigurari, interahamweek buruzagi izendatu zutenean, fusila eman zioten, granada batzuk ere bai. Fusila probatzeko, ume biri jo zien tiroa egun horretan bertan. Esaten du oso berezia egin zitzaioela sekuentzia: tiroak, nola jausi ziren lurrera ume biak zaratarik gabe... «Oso eroso» izan zela esan zuen, «atsegina ere hartu zuela ia».

Beste kontu bat da aihotza, odola, usaina, edo Ignace Rukiramacumuk kontatzen duen moduan, Birombeko meatzetan ezkutatu ziren 27 tutsiri su ematea. Meatze-ahoa itsutu zuten, sastrakak, etxe abandonatuetako habeak, su eman zieten gero. Erreta hil ziren barrukoak, keak itota batzuk. Ignacek esaten du ametsetan ikusten duela hori guztia askotan, hiltzeko modu hori ez dela naturala. Data zehatza ere gogoratzen du, 1994ko apirilaren 22a, Ireneren alaba jaiotzeko 14 urte zehatz falta zirenean”¹⁷⁶.

Kasu honetan ere, Ireneren bizitzaren norakoa markatuko zuen ekintza bat (lizentziatura amaierako azterketa) lur planeta ia bere osotasunean kolpatu zuen egitate baten (Ruandako genozidioa) zati nimiño batekin gurutzatzen da, intentzio osoz. Antolakuntza sozialaren baitako kontraesanik funtsezkoena irudikatzen da kasu honetan ere: delitua eta

¹⁷⁵ *Ibid.*, 2. or.

¹⁷⁶ *Ibid.*, 2. or.

krimena lege eta ordenaren aurka, ohituraren izenenean. Gizarte modernoaren oinarri den Zuzenbidezko estatuaren zigor mekanismoak ez-deustasunera murriztuak izan diren esparru batean kokatzen da autorea, bertan legez-kontrakotasunaren arantzarik zorrotzenak adierazteko. Legezkotasunak ekar dezakeen ustezko ziurtasuna, bakea, armonia zer den ulertarazteko, aitzitik, Irene Arriasen bizilekua darabilki Elorriagak, eta baita lortu ere. Kontrakotasun inperfektu hau, ordea, Zuzenbidearen jardunean horren garrantzizkoa den eta behar baino maizago gogoratzen ez den maxima batekin lotzen du Elorriagak: ez dago zuri edo beltzik, mutur absoluturik. Hori argien gerora aztertuko den lanaren Laugarren atalera iristean konprenituko du irakurleak.

Ordura arte, liburuaren Lehen, Bigarren eta Hirugarren ataletan, Irene Arriasen bizitza “*arrunta*” kontatzen da, garaiko testuinguruan ere harrigarri suerta daitezkeen baina era berean erabat posible ziren gertakizun batzuez hornitua. Atal guzti horien arteko trantsizioetan, eta trantsizio lanak egitea baino helburu askoz garrantzitsuago batekin, “*Atzerriko egunkarietan aurkitutako narrazioak*” txertatzen ditu Elorriagak, kutsu oniriko, surrealista duten kontakizun labur bezain bortitzak.

Obra nobela kontsideratua bada ere, eta *Iturrian* bezain nabarmena izan ez arren, eleberriak beste literatur-espresio batzuen marko gisa funtzionatzen du, haren argumentuaren, korapiloaren estutzean laguntzen duten literatur-lan xumeagoak bere egiten dituelarik. Ezagun da *Mila gau eta bat gehiago*¹⁷⁷ literatura unibertsalean edo *Obabakoak*¹⁷⁸ euskal literatura modernoan gai izan direla marko tenporal zein geografikoa ezartzen dieten lehen narrazio edo ipuin batetik abiatuz narrazio labur edo ipuinez osaturiko liburu baten forma hartzeko, kontakizun guztiak nolabaiteko batasuna eta batasunerako zergatia ematen dieten hari fin batez lotuak direlarik. *Iazko Hezurra* kasuan, Irene Arrias da Sharihar erregea, eta haren une bital zelebreenen artean iltzaturik ageri diren esapide, atsotitz, bertso, poema eta narrazioak haren giza garapenaren zentzuaren motibo. Entzun, ikusi eta irakurri duena da Irene, guk, irakurleok, hark ahorraturiko guztia eramango dugularik sabelera, gu ere haren seme-alabak garelako. Ibai berean bi aldiz bainatzea ezinezkoa dela defendatzen duen teoria heraklitoarrarekin bat eginez, beraz, ez da Irene bakar bat hautematerik egongo, begirada adina Irene egongo direlako, eta protagonistaren transformazio betiereko eta halabeharrezko horren lekuko

¹⁷⁷ Autore ezezaguna (ZUBIZARRETA, P.-ren itzulpena) (2002). *Mila gau eta bat gehiago*. Erein.

¹⁷⁸ ATXAGA, B. (1988). *Obabakoak*, Erein.

izango dira literatur-espresio desberdin guzti horiek. Horren adierazgarria da, adibidez, liburuari izenburua ematen dion “*Ygazco asto illac, aurten lurruna*” esamoldea lehen aldiz Lehen atalaren amaieran¹⁷⁹ aipatzen denetik Laugarren atalaren amaieran¹⁸⁰ azkenekoz agertu arte, beste lau alditan ere aipatzen dela obra osoan zehar literalki, eta hamahiru aldiz moldatuta: “*Iazko txakur hilak aurten lurruna*”, “*Iazko barku hilak aurten lurruna*”, “*Iazko kimikari hilak aurten lurruna*”... Irene solidotik likidora eta likidotik gasera doan sustantzia bezala hauteman liteke, eta bera inguratzen duten autore, bertso-ahapaldi, narrazio labur edo biolentziari buruzko informazio txatal oro, fusio zein baporizazio prozesu hori ahalbidetzen duten energia-emaileak.

Esan bezala, narrazioak dira eleberriaren hari nagusiaren etengailu magnetotermikoa, eta haien gisa, itzaliz eta piztuz, jasoz eta emanaz funtzionatzen duten beste adierazpide artistiko bat dira. Egoera absurdoak planteatzen ditu autoreak haietan, bakar bat bera ere geografikoki kokatzera iritsi gabe, eta protagonisten izendegiarekin etengabe jolastuz.

Torturatua izateko zain, patxadaz, bulego txukun batean bederatzi ordu igarotzen dituen norbanakoaren istorioa kontatzen du *Etzanda* narrazioan, edota hutsik egoteko pisu gehiegi duen armairu bat zenbait egunez karretilan garraiatzen duen jopu errukigarriaren konfesioa azaleratzen *Hamar txakur* istorio laburrean. Bortitzena izateaz gain mami juridiko handiena duena *Bodrogiren zuhaitzak* da, hala ere.

Bertan, etxalde handi baten eta haren lur-sailen jabe den Jens Bodrogi aurkezten zaigu. Etxalde hartan hartu zuten aterpe “*holandarrek*” bost egunez, eta bosgarrenean norbait, izaki edo izaki-multzo ezezagun bat, etxaldea erretzen ahalegindu zen. Holandar guztiak eta haien zerbitzariak, tartean Mobru, Tandra familiakoaren, narrazioko beste pertsonaiaren, ahaideak, erailak izan ziren seigarrean egunean, herrixka bat hartzen saiatu ondoren. Bodrogi lur-jabeak, haren etxaldeko leihotik beha dagoela, Mobru, Tandra familiakoa, pertsonak itoz, haurrak errez batzuetan, baina ia beti itoz hiltzen dituenetarikoa, ikusten du haren oihanera sartzen. Orduan, haren atzetik abiatzen da, ernegu bizian, aiztoa eskuan duela. Oihanean ibiltzen da denbora luzez etsaiaren bila, eta azkenerako, bestea zuhaitz batetik erori eta odolez blai eta ihesgabe gelditzen denean, harengana hurbiltzen da Bodrogi. Honela ixten da istorioa:

¹⁷⁹ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 88. or.

¹⁸⁰ *Ibid.*, 360. or.

“Mobruk, Tandra familiakoak, badaki zer egin behar duen. Eskumako eskua zabaldu du. Jens Bodrogik aiztoa eman dio. Mobruk aiztoa eskuan hartu eta luze egon da hari begira. Jens Bodrogik esan du:

— *Hemen?*

— *Hemen.*

Harri zapal bat seinalatu du. Jens Bodrogik harri zapalaren gainean jarri du eskua. Begiak itxi ditu. Mobruk, Tandra familiakoak, aiztoa estutu eta kolpe bakar batez ebaki dio eskua Jens Bodrogiri, eskumuturretik”¹⁸¹.

Dela amaieraren ezustekoak utziriko aho-zapore mingotsagatik, dela narrazioak duen kutsu exotikoak sorturiko misterioagatik, dela xumetasunetik kolonialismoaren endekapenaren iruditeria oso bat sortzeko duen gaitasunagatik, istorio intrigazko bezain dirdiratsua da honakoa.

Ilustrazio garaiko jendarte modernoan lehendabizikoz agertu zen eta beste ezein garaitan errepikatzen iritsi ez den auto-justiziaren¹⁸² adierazpide bat da Jens Bodrogirena; autoreak ez ditu ausaz aipatu holandarrak gerra baten erdian; ez du alferrik aukeratu Afrikarra dirudien oihan amaigabeen kokatzen den etxalde aziendaduna eszenatokitizat; protagonistatzat izen frantsesa eta abizen hungariarra dituen baina haren emaztearekin alemanieraz mintzo zen lur-jabe boteretsua aukeratu izana eta haren izena lau orri eskasetan hogeita hamar aldiz errepikatu izana ere ez da kasualitatea idazlearentzat.

Injustizia egiteko mila era dagoen eran, justizia egiteko modu ugari dagoela irudikatzen intentzio sendoa zuen Elorriagak. Norbere burua zigortzea da horietako bat, horretarako beso-egikaritzaille baten laguntza beharrezkoa izatera irits badaiteke ere. Borreroa eta biktima bat eta bakarra izan daitezke. Ez dakigu Bodrogik zer egin zuen; badakigu holandarrak hartu zituela etxaldean gerra garaian, bosgarren egunean hark eta bere zazpi zerbitzariak etxetat zuten etxaldez bereganatzen ahalegindu zirela europar arrotzak, eta jakin badakigu egun hartan bertan norbait edo zerbait etxaldea erretzen ahalegindu zela, atzerriko soldaduak han zeudelako. Horrez gain, suma dezakegu Bodrogi-Tandra bikotearen atzean badela familia-, klase- edo etnia-arteke ezinikusi bat, gorrotoa akaso,

¹⁸¹ *Ibid.*, 115. or.

¹⁸² BONILLA, C. M. (2012). *El derecho a la digna ira*. Astrolabio: Revista Internacional de Filosofía, 483-487 or.

borroka bat, apika. Informazio apur horrekin, irakurlea ondorio propioak ateratzera behartzen du idazleak, bere ohiko estiloan, baloraziorik egin gabe: nor da egiaz Bodrogi? Nor da Mobru? Zer egin ote du Bodrogik era horretan zigortua izateko? Zergatik moztu eskua? Lapurra al da Bodrogi? Justizia egin al da?

Jokabide-arau patriarkal batzuen baitan mugitzen dira gizon protagonistak; autoritarismoa hartzen dute haien gizontasunaren ideologia bital gisa¹⁸³, haien buruarekiko, laborri sentimenekiko, egitear direna ez egiteko agintzen dieten barne-bulkadediko autoritarismoa. Jens Bodrogik haren emaztea etxaldera ekarri zuen gogoz- kontra bere garaian, eta bertan hiru seme-alaba izan zituzten, denak zazpigarren urtean norbaitek hilak. Haiekin bizi zen izebarik gazteenak ere bere buruaz beste egin zuen. Haren inguruan zituen emakume guztiekiko autoritarismo zanpatzailez bizi izan da Bodrogi, haien bizitzen gain erabakiz; orain, baina, bakar-bakarrik bizi da... Bakarrik, baina zazpi zerbitzarirekin. Kolonizatzailea ere bada, eta holandarrei, denak gizonezkoak, haren etxaldean lo egitea baimendu zien, Mobruren familiakide batzuk zerbitzari hartu zituzten soldadu eta agintari berberei. Bere burua juzkatu ondoren, errudun dela ebatzen du Bodrogik, edo hori dirudi, baina bera baino ez da justizia ahalbidetzeko gai; Bodrogik baino ez dauka Bodrogirekiko “*ius puniendi*”-a. Kolonialismoa eta genero zapalkuntza, era argian, txanponaren aurpegi berbera bezala irudikatzen dira narrazioan; zuzenbidearen deskolonizazioak gorputz femeninoen deskolonizatzea dakar¹⁸⁴. Narratiba honen bidez, zuzenbidetik kanpoko arau-multzo baten operatze okerraren ondoriozko antzutze-prozesu bat irudikatzen da, auto-gaztigu ekintzaren bitartez Bodrogiren praktikek sinbolizatzen duten errepresio historikoa perspektiban jarri eta zigortzen delarik.

Justiziaren baitako balore moral goren batzuk beste ezein botere-iturriren gainean kokatuta ageri diren eta norbanakoa guztiz menperatua duen estruktura sozial bat da narrazioan islatzen dena. Inor justiziari, edo justiziaren egikaritzari bederen, ihes egiteko gai izango ez den jendarte bat da azaleratzen zaiguna, 1984¹⁸⁵n bezalatsu. Berdin dio norbanakoaren aurka zigorra ezarri eta hura exekutatzeko egiazko motiborik egon edo ez;

¹⁸³ RODRÍGUEZ, E. V. (2019). *La Justicia Feminista Anticolonial: claves interdisciplinarias para incidir en el Derecho Patriarcal de un Capitalismo Neoconservador*. Nuestrapraxis. Revista de Investigación Interdisciplinaria y Crítica Jurídica, 3(5), 37. or.

¹⁸⁴ *Ibid.*, 37. or.

¹⁸⁵ ORWELL, G. (1949). *Nineteen Eighty-Four*.

zigorra ezarria izan zaionak, zigorra konplitu ikusiko du haren azalean. Horrenbestera da jendarte horren kide direnek sentitzen duten zigorrarekiko fede dogmatikoa, non zigortua izateko erabateko alde aurretiko jarrera izango duen zigortuak, zigorra pairatzeak berak nahikoa min eman ez eta, kasu konkretu honetan, bere etxalde propioan bere aitzo propioarekin zigortua izateak dakarren umiliazio samingarria sentiarazten dion bere buruari, inork horretara behartu gabe. Justizian sinisten du Bodrogik itsu-itsuan, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Narrazio guztiek dute legezkotasunaren, delituaren eta biolentziaren zergatien zalantza egite sakon bat muinean, eztabaida juridikoa pizteko ezin aproposagoak direlarik denak ala denak. Bestalde, narrazioak hizkera xalo eta freskoan idatziak daude, autore askoren galbide den altxafuego edo artifizio literario ikaragarriak sortzeko grin hanpurutsutik urrunduz. Gaitasun tekniko zehatz batzuk eskuratzea ahalbidetzen dio, era horretan, irakurleari: sintetizatzeko abilezia, auzi juridikoen deskribapen zehatza egitekoa, irakurritakoen atzean ezkuta daitekeenaren aztarka egiten ikastekoa... Mesedegarriak izan daitezke guztiok, nola ez, operadore juridikoen egunerokotasunari begira.

Esapide edo kopla zaharrei dagokienez, ezin konta darabilzki autoreak. Bada titulukoaz gaindiko bat, ordea, haren eduki zorrotzak obra duen zeresanagatik gainontzekoei gailentzen zaiona:

*“Ai, neure amainarreba,
muskerrez betia
subeak eingo al deutsu
arratserako ohia”¹⁸⁶.*

Frantzian urteak eman eta gero, odisea homeriar bat tarteko etxeratzea lortzen duen seme euskaldunaren istorioaren harira kantatzen omen zen honako kopla hau, beste hainbat bertsio baditu ere¹⁸⁷. Semea, familiako inori kontatu gabe, frantses batekin ezkondu zen, eta amak hala esaten dio: *“Ez dot gure prantzesik, hain gutxi errenik”*. Emaztegaia hiltzeko agintzen dio amak semeari, eta kostata bada ere, agindua betetzen du semeak,

¹⁸⁶ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 213. or.

¹⁸⁷ Elorriagak, ahozko literaturaren aberastasuna irudikatze aldera, obra osoan zehar pilatu dituen bertso zaharren bertso anitz dagoela azpimarratzen du uneoro. Ez da kasualitatea, bada, guztien bertsoak metatu ondoren, guztien xehetasunak aipatu eta bertsoietako bakoitza aztertze joera, frogatze ahalegin bat baizik.

anaiaren laguntzaz. Emaztegai frantsesak, hilda bada ere, haren ustez bere heriotzaren errudun den amaginarreba madarikatzea lortzen du, eta haren kontra mendekuan oinarrituriko justizia-moldea desiratzuz esaten dio adio kontakizunari. Elorriagak ederki azpimarratzen duen gisara, harrigarria da nola emazteak ez duen ustez horren gertuko eta bere zuen senarrarekiko gorrotorik txikiena ere adierazten, onartuko balu bezala hark ez zeukala ezeren errurik, agindua betetzea besterik eduki ez balu bezala. Orduan, *The perils of obedience* dakar gogora autoreak¹⁸⁸, Stanley Milgram ikerlariak¹⁸⁹ hala deskribatu zuen esperimentera:

“Obedientziaren alderdi legalak eta filosofikoak oso garrantzitsuak dira, baina oso gutxi diote jende gehienak egoera zehatzetan duen jokatzeko erari buruz. Yaleko Unibertsitatean esperimentera simple bat egin nuen, non esperimentera zientifiko bat zela eta hala eskatzen zitzaionaren aitzakia pean, herritar arrunt bat beste pertsona bati zenbaterainoko mina eragiteko prest ote zegoen aztertu genuen. Autoritatearen laztasuna subjektuen (partaideek) beste norbaiti min egiteari buruzko barne agindu moral sendoei nagusitu zitzairen; eta biktimen oihuek subjektuen (parte-hartzaileen) belarriak kolpatzen zituztela, autoritateak are gogorrago azpiratzen zituen subjektuak. Agintariak agindutako ia edozein eskakizun betetzeko helduek duten muturreko borondate ona izan zen ikerketaren aurkikuntza nagusia”¹⁹⁰.

Adolf Eichmann, holokaustoaren logistika gidatzen zuen arduradunetako bat, Mossadek Argentinan deskubritu, bahitu, torturatu eta 1961an Jerusalem epaitua izan ondoren bururatu zitzaion Milgrami honako esperimentera, Eichmannek judizioan egindako deklarazioen funtsean oinarrituz: goragokoen aginduak baino betetzen ez omen zituen. Heriotzera kondenatua izan zen, eta Elorriagak beste aspaldiko bertso batekin lotzen du egitate hau: *“laur quarto eguin eta / khentzeko bihotza / urkhaberat bideko / haiziaren hotza”*. Justiziaren egikaritza posibleak analizatzen ditu, beraz, autoreak, haren ondorioak formatu berritzaile bezain zahar baten bitartez itxuratuz: koplak eta esapideen bitartez.

¹⁸⁸ Lehenago beste sei aldiz aipatzen du autoreak; lehenengoz, ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurra*. Susa. 29. or.-an.

¹⁸⁹ MILGRAM, S., & GUDEHUS, C. (2009). *Obedience to authority*. Berau da haren lanik ezagunena. Autoritateari arrazoitu gabe men egitea zer den aztertu zuen lan hartan, Yale unibertsitatearekin elkarlanean.

¹⁹⁰ MILGRAM, S. (1973). *The perils of obedience*. Harper's Magazine, 247(1483), 62-77.

Adornok “*ez da poesiarik egongo Auschwitz eta gero*”¹⁹¹ esan zuen, eta Primo Levik berretsi¹⁹²; Kristoren jaiotzak gizateriaren historian izandako inpaktu berbera izan zuen holokaustoa gordinen sinbolizatzen duen *lager* honek biolentziaren historiarekiko. Tesi hori esplizituki aurkaratu gabe, Auschwitzten aurretik sorturiko poesiak dakartza autoreak Auschwitzten ondorenera, eta gaur egunera moldatu, indarkerien eboluzioak eta haiek gaztigitzeko formulak literaturaren argi eta itzalez aztertuz.

Hala zioen honen inguruan Foucaultek: literatura fikzio, artifizio gisara finkatu behar da, baina “*egiazko efektuak sortzera konprometituz*”¹⁹³. Erresilientzia lanketa gisa planteatu liteke, hortaz, lana: biolentziaren, muturreko basakeriaren ondoren poesia egitea (poesia gisa uler bitez literaturak) behar moral bat da, poesia horien erditzean laguntzeko ordurarte jasandako oinazeak eta geroa argiztatzeko lezioak barne hartu behar direlarik. Beste behin ere, literaturak bertutezko jokabide-ereduak irakasteko, eta hala ez denetan, bertutearen aurkako jokabideak salatzeke duen poderioa agerian uzten du maisuki Elorriagak, ahozko-tradizioaren aniztasunak hausnarketa iusfilosofikoari ireki diezazkiokeen ateak bistara utziz.

Argi geratu da, beraz, lehendabiziko hiru ataletan Irene Arriasek XX. mendeko batz besteko emakume bizkaitarraren bizimodua irudikatzen duela, ñabardura konkretu batzuk bestalde. Herritar aski jantzia da; biolentziarekiko ezinegon primitibo baten bulkaden ondorioz hura ikertuz igarotzen ditu gaztaroa zein helduaroa¹⁹⁴, baina Laugarren atala iritsi arte, deus ez da normaltasun hertsitik aldentzen.

Laugarren atalean Irene Arrias helduaren bizitzako arratsalde ustez arrunt bat kontatzen zaigu. Bulegoan dagoela, nagusiaren dei arraro bat jasotzen du: “*ez etxera joan, zain dituzu*”. Irenek kasu egiten dio deiari, eta etxepean ongi jantzitako gizon susmagarri batzuk ikusi ondoren, Algortako txokorik marjinalenetara egiten du, ezkutatu asmoz, haren bikotekide Iboni zein bere alabari, ikaraz, agur esaterik gabe. Hara bidean, bera bezalako beste hainbat noraezean dabilzala sumatzen du, haiek ere pertsegituak balira bezala, eta Faduran dagoelarik, bonbak entzuten ditu herriko erdigunean. Estratetara jotzen du biharamunean, eta hango etxe abandonatu batean egingo ditu egun batzuk ezkutaturik, ia-deus jan eta edan gabe. Laguntza bila ahaleginak eta bi egin arren,

¹⁹¹ ADORNO, T. (2000) (BILBAO, R.-ren itzulpena). *Consignas*. Amorrortu.

¹⁹² LEVI, P. (2011) (OLANO, M.-ren itzulpena). *Hau gizon bat bada*. Alberdania.

¹⁹³ FOUCAULT, M. (1996). *La vida de los hombres infames*. Altamira. 138. or.

¹⁹⁴ Honako puntua 5.3 atalean jorratuko da sakontasunez.

mesfidantza erabateko batek hartua dio gogamena; ez da inorez fio. Ihesean ematen ditu egunak, kordea galtzen hasten den arte; gizon batzuek Galeako gotorlekutik kainoi batekin tiro egitera behartzen dutela sinistra heltzen da, haluzinazio trantze betean, errealtatea eta fantasia nahasteraino iritsiz.

Halako batean, baina, harrapatu, identifikatu eta atxiki hartzen dute gizon ezezagun batzuek, auto batean etxe handiki batera eraman eta bertako logela modernizatu batean giltzaperaturik izateko. Hasieran bahitzaileek eroso lo egiten utzi eta jatekoa ematen dioten arren, laster era guztietako teknologiaren bidez Ireneren loa galarazteari ekiten diote: begiak gogor itxita ere begi-globoak minberatzeko adinako argi indartsua etengabe pizturik utziz, ohean zein besaulkian eseri orduko deskarga elektriko bortitzak emanez, lurrean etzanez gero gorputza izozteko moduko haize hotz korronteak martxan jarritz...

Ez dauka logelatik alde egiterik, zine areto batera joateko baino ez diotelarik ateratzen uzten. Bertan, bere bizitzan zehar ikusi dituen zenbait film proiektatzen diren bitartean, ikusiko ez duen gizon batek itaunduko du, biolentziari, Ireneren bizitzari eta haren ezinegon politikoei buruzko galderak eginez. Irene ondoezik itzultzen da logelara lehen bi itaunketa saioetatik, eta bertan, une zehatz batzuetan, argiak itzaltzen dira, eta zerbaitek edo norbaitek ukituak egiten dizkio gorputz osoan zehar, berak gelan bakarrik dagoela ongi dakien arren. Ez daki egiazkoak ote diren ukitu haiek, baina sentitu egiten ditu.

Hirugarren galdeketa-saioan zehar, jadanik fisikoki zein mentalki pott egitear dagoela, mantu zuri batek ikuseremua hartzen dio apurka, lurrera ziplo erortzen den arte. Hil egin da Irene, zergatik jakin gabe.

Autoreari Ireneren patu krudelari buruz galdetuta, hala erantzun zuen: *“Jendeak uste du bigarren mundu gerra zein gerra zibila aspaldiko kontuak direla. Garai hartako pertsonak, ordea, gu bezala bizi ziren. Ados, ez zuten Internetik, baina bizimodua? Pasioak eman, ardoak hartu, kirol apur bat egin... Hori zen haien bizitza, harik eta tipo edo multzo zoro bat heldu, eta seme-alabak, gurasoak, hil zizkieten arte. Hori da Ireneri gertatzen zaiona, arrazoirik gabeko heriotza bat, baina XXI. mendean, ustez gauzak horrenbeste aldatu diren garaiotan”*.

Laugarren atal honek Zuzenbidezko estatuaren desagerpenak eragindako ikara gaindiezina irudikatzen du era ezin hobean. Rawlson teoriari jarraiki, justiziaren helburu nagusia gizartearen oinarritzko egituraketa da, edo zehatzago esanda, instituzio handiek oinarritzko eskubideak eta betebeharrak banatzeko eta gizarte-lankidetzatik datozen

abantailen banaketa zehazteko duten modua¹⁹⁵. Oinarrizko egituraketa ordenatu hori ahalbidetzen duten mekanismoek funtzionatzeari uzten dioten unean, ordurarte betiereko kontsideratzera iritsi den babes-sistema herritarraren muturren aurrean arrazoirik gabe lurruntzen denean, psikosi zein paranoiaren eraginpean bizitzera kondenaturik geratzen da herritarra. Hala gertatzen zaio Ireneri, badakielako historian sarritan gertatu dela jendea arrazoirik gabe haien etxeetan atxilotu izana, tortura-zentro erraldoietan ziegapetu izana, heriotzeraino zanpatu izana. Biolentziak inguratu eta markatu du Irene obra osoan zehar, baina beti ikusi du urruneko, aparteko zerbait bezala. Espektatiba faltsu batzuetan funtsaturiko inozentzia zaurigabe horretan, sinestera iritsi da aipatu indarkeria guztia “iazko” kontua dela, eta orduko “hezurren lurrinak” ez duela haren Zuzenbidezko kapsulan barneratzerik, uste hau espreski onartzera iristen ez bada ere. Horregatik etengabeko bere zentzumenen eraginkortasunarekiko susmo paranoiko hori, pairatzen ari zen sufrimendua imajinazio hutsa balitz gisan:

“Intziri txiki bat egin zuen Irenek, kuzkurtu egin zen, bere baitan bildu, bularrak belaunen kontra, hankak oso itxita. Argiak piztu ziren une batean, piztu eta itzali, ez betiko intentsitatean, baina gauzak ondo ikusteko moduan. Irenek zalantzarik gabe ikusi ahal izan zuen orduan ez zela inor bere inguruan. Urduriago jarri zuen horrek, logikaren kontra. Berriro amatatu zituzten argiak gero, berriro erabat ilun. Zango-bizkarrei heldu zien lehen baino gogorrago. Berehala hasi ziren ukituak berriro. Orain ez zien kontra egiten Irenek, burua belaunetan, aurpegia”¹⁹⁶.

“Asaldatu egin zuen ahotsak. Gelan bakarrik zegoela uste zuen, seguru zekien bakarrik zegoena. Ahotsa aurrekoan baino hurbilago sentitu zuen ordea”¹⁹⁷.

Tesi bat, denik eta adierazgarriena izanagatik ere, baztertua edo berrikusia izan behar da egiazkoa ez bada; teoria oker baten existentzia onartzeko aukera bakarra hura baino hobe baten existentzia eza da¹⁹⁸. Elorriagak ez du ezekin tesi onartzen ez baztertzen, errealitate bat plazaratzen baizik: gertatu den guztia gerta daiteke berriz ere; ez dago justizia

¹⁹⁵ RAWLS, J. (2012). *Teoría de la justicia*. Fondo de Cultura Económica.

¹⁹⁶ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 363. or.

¹⁹⁷ *Ibid.*, 364. or.

¹⁹⁸ *Ibid.*, 17. or.

eternalik. Marxek “*Luis Bonaparteren Brumairearen hemezortzia*”¹⁹⁹ lanaren hitzaurrean hala esan zuen, Hegel ahotan hartuz: “*historia bi aldiz errepikatzen da, lehenik zorigaitz eta gero fartsaren gisan*”. Elorriagak, ordea, obran horren usu darabilen epanalepsiaren bitartez zenbatetsiko luke historia errepikatzeko arrisku kopurua: birritan gerta liteke, baina baita gehiagotan ere.

5.2 Literatura terminologia juridikoaren baitako hausnarketarako tresna gisa. Genozidioa.

Iazko Hezurrak obrak, literatura unibertsalaren historiako hainbat lanek egin gisara, terminologia juridikoaren esanahi desberdinen inguruko hausnarketen abiapuntu gisa funtzionatzen du, hausnarketa juridikoa abiatuz. Honakoa da, hain zuzen ere, literaturak zuzenbideari eskain diezaiokeen beste bertuteetako bat: kontzeptuen esanahia zehaztearena, eta termino konplexuak legelari ez direnentzako ulergarri bilakatzearena. Honek, noski, indarrean dagoen legedia zein hainbat erabaki judizialen edukia ulerterrazago bihurtzen laguntzen du, pedagogia juridikoa eginez.

Obra honetan beste hainbat termino juridiko zalantzan jartzen badira ere, adibiderik esanguratsuena “*genozidioa edo genozidio ahalegina*” dikotomiarena da, justizia trantsizionalaren ikuspegitik sakonki aztertua²⁰⁰ izan den Ruandar kasuan oinarrituz:

*“Luis Carrero Blanco hil zuten urte berean jo zuen estatu-kolpea Juvénal Habyarimanak Ruandan. Ordurako hainbat hilketa egon zen, hutuenak, tutsienak, 1963an, 1972an, baina askozaz geroago izan zen genozidio ahalegina, 1994an. Litekeena da ahaleginak izatea ia beti genozidioak, nekez konponbide finalak, juduak, kurduak, armeniarrek, eutsi egin zioten; juduek egiten dutenari begira bizi gara orain ere”*²⁰¹.

Genozidioa termino erlatiboki modernoa da. Raphael Lemkin abokatu poloniar eta juduak proposatu zuen bera bezalakoan jazarle izandakoen aurkako Nürembergeko epaiketetan. “*Genos*” (herria, arraza, grezieraz) eta “*Cide*” (hil, latinez) elkartuz, ordurarte izendatzerik ez zegoen delitu klase bat bataiatzeko proposamena luzatu zuen:

¹⁹⁹ MARX, K. (2023) (SANTAMARIA I.-ren itzulpena). *Luis Bonaparteren Brumairearen hemezortzia*. Igela.

²⁰⁰ Ikus SALABERRIA, A. (2020). *Ruandako Genozidioa Justizia Trantsizionalaren ikuspegitik*. EHUko Gradu Amaierako Lana.

²⁰¹ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurrak*. Susa. 49. or.

nazionalitate, etnia, arraza edo erlijio bereko gizabanakoek osaturiko giza-taldeen suntsipenean oinarritzen den krimena²⁰². Kasu honetan, literaturak ez du erantzun espliziturik emango genozidioa burututzat kontsideratzeko ukanbeharren inguruan, baina edozein legelari alerta jartzeko moduko zalantza pizteko gai da: zer da genozidio burutua, eta zer saiakera?

“*Calle Este-Oeste*”²⁰³ literatur lanak ezin hobeki deskribatzen ditu, besteak beste, termino honi delitu izaera aitortzeko indar desberdinen artean emaniko tira-birak: Nürembergeko epaiketetan ez zen aintzatetsia izan, eta NBERen baitan ere, sektore anglosaxoiaren erresistentzia zela medio²⁰⁴, izugarri kostatzen zen genozidioa tipifikatzea. Azkenik, 1946ko abenduaren 11ko NBERen batzar orokorraren 96 (I) erresoluzioak argi eta garbi babestu zuen genozidioa krimena dela nazioarteko zuzenbidearen arabera, eta 1948ko abenduaren 9ko 260 A (III) ebazpenak, Genozidio-Krimena Prebenitzeko eta Zigortzeko Hitzarmenarenak, nazioarteko krimen gisa tipifikatu zuen²⁰⁵.

Genozidioaren baitan, gizabanakoen “*ez-funtsezkotasuna*” hartzen du hizpide Irene Arriasek, Hannah Arendt aipatuz²⁰⁶. Ez-funtsezkotasunera iristeko aurretiazko baldintza da gizabanakoa haren mundu zatitik deserrotzea, propiotzat duen edozein espazio erauztea. “*Gizabanako ez-funtsezko*” izateak (“*superfluo*”, gazteleraz) munduarekiko loturarik gabe gelditzea esan nahi du; gizakion mundukoa izateari uztea, erabatean²⁰⁷. Genozidio edo genozidio saiakera baten baitan, nahitaez emango da suntsiarazi gura diren giza-taldeetako kideak “*ez-funtsezko*” kontsideratuko dituen doktrina baten zabalkunde ahalegin bat, hizkuntzatik hasiz.

“Idatzi izan da Butareko Unibertsitatean asmatu zuela irakasle talde batek labezomorroena, tutsiak izendatzeko. Beste izen batzuk ere asmatu ziren, okerragoak beharbada, baina labezomorroena izan zen gehien erabili zena,

²⁰² LEMKIN, R. (2012). *Lemkin on genocide*. Lexington books.

²⁰³ SANDS, P. (2017) (RÁMOS, F. J.-ren itzulpena). *Calle Este-Oeste*. Anagrama.

²⁰⁴ Hauek genozidio delitu tipoaren baitan kolonia afrikarren baitan gauzaturiko krimenak barnebilduko ote zirenen beldur ziren. beldur ziren, zalantzarik gabe, eta temati aritu ziren delitu haren sorrerarekiko erresistentzia lanetan.

²⁰⁵ Genozidio-Krimena Prebenitzeko eta Zigortzeko Hitzarmenaren 2. art.: “*Genozidiotzat hartzen da jarraian aipatzen diren egintzetako edozein, talde nazional, etniko, arrazazko edo erlijioso bat osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz jazartitakoak: a) Taldeko kideak hiltzea; b) Taldeko kideen osotasun fisiko edo mentalari kalte larria egitea; c) Taldea, nahita, bere suntsipen fisiko osoa edo partziala ekarriko duten bizi-baldintzen mende jartzeko; d) Taldearen barruan jaiotzak eragozteko neurriak hartzea; e) Taldeko haurrak beste talde batera indarrez eramatea*”.

²⁰⁶ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 66. eta 87. orr.

²⁰⁷ ARENDT, H. (2004) (SOLANA G.-ren itzulpena). *Los Orígenes del Totalitarismo*. Taurus. 576. orr.

inyenzi hango hizkeraz, kinyaruandaz. Mila Muinoetako irratiak zabaldu zuen izena gero. Horretarako balio du irratiak ere, telebistak, internetek, horretarako balio du unibertsitateak batzuetan”²⁰⁸.

Hedabideen zein jakituria gardenen iturri diren erakunde kontsokratuen papera zalantzan jartzera behartzen du autoreak, lerro-artean irizpide propioen arabera jorraturiko iritzi kritikoak izateko beharra aldarrikatzen duen era berean. Norbanakoen zein taldeen izendapenaren garrantzia ere agerian utzi nahi du idazleak, hizkuntzaren bidezko zapalkuntzek esparru fisikora hedatzeko joera baitute. Hizkuntzak edozein alorretan izan dezakeen inpaktuaren dimentsioaz ohartaraztea du xede, bada, Elorriagak, baita zientzia juridikoenean ere. Hori dela eta aipatzen ditu Hannah Arendt zein genozidioaren burutzearen eta saiakeraren arteko aurkakotasuna, kontzeptuen definizioen ñabardurek ebazten baitute kontzeptu horien baitan eratutako justiziaren patua.

Auziak azterketa egiaz sakonago baterako aukera eskaintzen duen arren, analisi estraktu honen xedea literaturak zuzenbidearen fenomenologiaren zein haren hiztegiaren inguruan esateko duen guztiaren froga gisa azaltzea zen. Narratibak zenbait errealitate faktiko plazaratzen ditu, eta haiek izendatzeko legediak zein jurisprudentziak darabilen terminologiaren esanahia auzitan jartzen, irakurleen perspektiba kritikoa zorrotzuz, eta bestela eskuratzeko ia-ezinezko liratekeen corpus juridikoa ulertzeko baliabide teknikoak eskainiz. Literatura, bada, ez da ongi idazten ikasteko parada eskaintzen duen esparru soil bat; literaturaren kontsumoak sektore zientifiko-teknikoetatik ekoitziriko lanen edukia galbahetzen, konprenitzen eta errealitate propioetara ekartzen irakatsiko du, trafiko juridikoaren parte diren operadore juridikoen zein herritarren mesederako.

5.3 Zuzenbidearen eta justiziaren kontzeptuen ilustrazioa Iazko Hezurak lanean.

Irene Arrias: Lekukoa. Epailea. Akusatua. Biktima.

Irene Arrias bertute zehatz konkretu baten gizatiartzea dela esan liteke; jokabide-eredu zehatz batzuk barneratuak dituen, eta haiekin bat ez datozen jardunbideak identifikatzeko, analizatzeko, konparatzeko, ulertzen ahalegintzeko eta azken instantzian, epaitzeko gai izan daitekeen, baina epai zehatz bat emateko apalegia den izakia.

²⁰⁸ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 34-35. or.

Obra osoan zehar 217 delitu larri edo basakeria-egintza aipatzen ditu Elorriagak, Idi Amin Dada jeneralaren Ugandako estatu-kolpearekin hasi²⁰⁹ eta bigarren mundu gerran Japoniako Armada Inperialeko soldaduek Australiarren gorpuzkiekin egindako otordu kanibaletaraino²¹⁰. “*Dokumentazio lana izan zen zailena, zalantza izpirik gabe. Liburua osatzeko bost urte behar izan banituen, bi edo hiru horretan eman nituen, ia erabatean. Dena den, etenik gabe jarraitu nuen Iazko Hezurrak-en agertzen diren gertakari guztien inguruan irakurtzen, ikasten, era guztietako liburu, artikulu zein sareko informazio iturrien bidez*”. Guzti haiek Ireneren zentzumenen bitartez jasoko ditu irakurleak, eta haren atal-bitalaren arabera, ere batean zein bestean hautemango: hoztasunetik batzuetan, harriduratik besteetan, amorrutik zein ernegutik askotan.

Protagonistaren bizitza prozesu judizial baten haragiztatze kontsidera liteke, finean, eta lau fase igarotzen ditu: lekuko izatetik epaile izatera pasako da, akusatu bilakatu ondoren biktima gisa agertzeko, azkenik; “*hori irudikatu nahi izan nuen, hein handi batean*”.

Obraren hasieran, indarkeria zirimola erraldoi baten nukleoan kokatzen da protagonista, hurakanaren erdian egoteak sentiaraz dezakeen sosegu faltsu horren konfortean bizi delarik. Krimen guztien existentzia indarkeriaren ozeanoan bustitzeko beharrik gabe begitantzea ahalbidetzen dion atalaian dago, beraz, Irene; lekuko pribilegiatua, azken finean. Behaketa ez parte-hartzailean²¹¹ oinarritzen du haren bizitza, historiaren gorpila jirarazten duten egintzetan parte hartu eta baloratu gabe, haiek ikustera mugatuz. Indarkeria guztien lekukotzak asimilatzen ditu Irenek apurka, Solomon Jarry-Bladicek edo Claudine Kayitesik²¹² esanak Ruandaren kasuan, bere lehengusu zaharraren²¹³ zein Marina Sasietaren²¹⁴ konfesioak euskal herrienean.

Heldu bilakatu ahala, ordea, propio egin dituen lekukotza horietatik lezioak ateratzeari ekiten dio. Indarkeria gizabanakoek edo taldeek beste batzuen aurka indar fisikoa modu oldarkorrean erabiltzea dela esaten bada ere, badira min handiagoa egin dezaketen beste agresibitate ez-fisiko mota batzuk: hitzezkoa, sinbolikoa eta morala. Horren erakusgarri dira, noski, Irene Arriasen obsesio bilakatzen den erregimen totalitarioetan kale-izendegia

²⁰⁹ *Ibid.*, 10. or.

²¹⁰ *Ibid.*, 360. or.

²¹¹ CAMPOS, G., & MARTÍNEZ, N. E. L. (2012). *La observación, un método para el estudio de la realidad*. Xihmai, 7(13), 45-60 or.

²¹² ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurrak*. Susa. 36. or.

²¹³ *Ibid.*, 23. or.

²¹⁴ *Ibid.*, 21. or.

norbere nahietara meneratzeko joera, edo hizkuntza zehatz batzuetan mintzatzea atzera egitea dela sinestarazteko gai den diskurtsoaren ezarpena, zein herrialdeetako ikur edo banderak mezu zehatz batzuen transmisiorako sortzea. Indarkeria ez da indarra erabiltzera mugatzen; indarra erabiltzeko ahala adieraztea, edo harekin mehatxu egitea ere indarkeria da²¹⁵, eta hori ulertuz doa protagonista.

Biolentziak konparatzeari ekingo dio orduan, eta haien izateko zergatiak ulertzeko egindako ahaleginei ere kritikak jaurtiko dizkie, historiaren “*prozesu judizialaren*” epaile gisa:

“Irenek Arriasek indarkeriak konparatzeko ohitura hartu zuen, ia egunero egiten zuen, Balkanak, Argentina, Europa eta Afrika, Ruandakoa, euskal herrietakoa. Konturatu zen, ordea, ezin dela gehiegi ere konparatu, beti dela desberdina, beti dela gauza bera”²¹⁶.

Justua al da urruneko edota antigoaletako indarkeriak norbere jaioterritik zein gaur egunetik juzkatzea?

“Bistan da dena grabatzen dutela kamerek XXI. mendean, eta ez duela ezertarako balio, asko balio duela”²¹⁷.

Zenbateraino zaio mesedegarri teknologia justiziari? Dena ikusteak zerbaitetan laguntzen al du, justizia parametrotan?

“Heriotzak irregularrak eta erregularrak izan daitezke beraz. Juan Paredes Manotena, esate baterako, erregularra izan zen, epaile batek agindu zuelako, aginpidea eman zioten horretarako, heriotza-zigorra ezartzeko. Baina ez dago argi epaile horrek berak bizitzarako eskubide propioa galdu zuen une horretan, bestea hiltzeko agindu zuenean, ala eutsi zion. Ez dago argi epaile hori armadaren parte ote zen Bellamyren²¹⁸ irizpidearen arabera, combatant ala non-combatant. Edota epaile horri aginpidea eman zioten agintariak ere combatant ziren ala ez, hau da, ondoriorik gabe hiltzeko modukoak, ala

²¹⁵ VELHO, G. & M. ALVITO (1996). *Cidadania e violência*, UFRJ/FGV, 7. or.

²¹⁶ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 267. or.

²¹⁷ *Ibid.*, 253. or.

²¹⁸ BELLAMY, A. J. (2006). *Just wars: from Cicero to Iraq*.

*magnizidioa deituko zion Bellamyk, historikoki gehien penatuta dagoen delitueta bat*²¹⁹.

Justiziazko kontsidera al daiteke heriotza zigorra? Zer da heriotza erregularra? Eta zer irregularra?

Halakoak galdetzen dizkio haren buruari protagonistak, erantzun argirik ematera heldu gabe, baina haren egiazko usteei buruzko printza argigarriak eskainiz. Eleberrian zehar Irene 14 epaiketa eta prozesu judizial historiko aipatzera iristen bada ere, ez da ezein auzi juridikoren inguruko epaitza nahasezin, seguru eta argi bat ematera iritsiko. Zalantzaren hazia landatu eta ziurgabetasunaren frutarbola hazten ikusi bai, baina egia ziurren fruituari koxk egitera iritsi gabe, hala ariko da Irene testigu eta epaile paperean diharduen bitartean. Bada, ordea, datu kurioso bat: ez dira obra osoan zehar behin ere, espreski, giza eskubideak aipatzen, eta hala ere, oso era nabarmenean plazaratzen da haien unibertsalizazioaren eta erlatibismo kulturalaren arteko gatazka²²⁰.

Laugarren atala, beste behin ere, inflexio puntua izango da haren rolei dagokienez. Arestian aipatu dugun gisara, une batean legez kontra atxilotzen dute, eta klase guztietako torturen bidez²²¹ azpiratuko dute, non eta euskal herrietan, Zuzenbideak tortura espreski debekatzen duen leku batean²²². Biktima izango da orduan Irene, ordurarte hain urrunetik irakurri eta ikusi dituen gizaki guzti horietako beste bat.

Biktima izango da, beraz, Irene, baina baita akusatua ere. Bahitzaileek jakin badakite zer klasetako bertutea duen protagonistak, eta hori da, azken finean, haren aurka daukaten akusazio bakarra: bertutezko jokabidea zein den zehazteko Ireneneren handiustea. Haserrearen tesaurizazioa²²³ irudikatzen duen galdekatzaileak haren desioen hutsalkeria

²¹⁹ *Ibid.*, 64. or.

²²⁰ BOCO, R., & BULANIKIAN, G. (2010). *Derechos humanos: universalismo vs. relativismo cultural*. *Alteridades*, 20(40), 9-22 or.

²²¹ BUENO, G. (2003). *El concepto de tortura y de otros tratos crueles, inhumanos o degradantes en el derecho internacional de los Derechos Humanos*. Nueva Doctrina Penal. Buenos Aires, 603.

²²² Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Konbentzioaren 3. artikulua, Erroman 1950eko azaroaren 4an sinatua: “*Inori ez zaio torturarik edo bestelako tratu edo zigor anker edo apalesgarririk jasanarazi behar*”.

²²³ “*La Modernidad es también, la época de la tesaurización de la ira, esto es, el paso de la explosión incontrolada de la ira en un momento inmediato a su conversión en capital que puede ser invertido en futuras expresiones de ira, es decir, en revoluciones. (...) La tesaurización de la ira hace posible el fenómeno de convertir la forma proyectual de la ira en su forma histórica, a través de la cual los proyectos individuales de la ira acaban por integrarse dentro de una organización colectiva. Las historias individuales dejan paso a la historia común, lo que implica el abandono de ciertos proyectos personales de ira. Es en el momento de la aparición del banco de la ira cuando aparecen los proyectos históricos de transformación social a gran escala, aquellos que aspiran a una articulación social del deseo de eliminar*

aurpegiratuko dio Ireneri, hura bezalako norbanakoen kontraesanak argi ikusarazi guran, eta haiek bezalakoak jendartearen harmoniarako oztopo izateaz akusatuz:

“Klaro, klaro... Hortik kanpora zaude zu... Kanpora baino gehiago ere bai: hortik gora zaude zu... Ez da gerra arautu behar, egon ere ez du egon behar, zertarako gerra, ederra ideia, noblea. Zure mundutik esan daiteke, erraz, Algortatik, Alangobarritik, ideien mundua, soseguarena, oso biribildua dena.

(...)

Nola... Hori da... Armak, adibidez. Zer egingo zenuke armekin? Apurtu? Erre? Lurperatu, Dro jeneralak bezala? Saldu? Baina zure ideia nobleen munduan ezin izango ziren saldu, ezta? Arazoa beste bati pasatzea hori... Ez da noblea: etika, morala... Baina armak ere dirua dira, eta gure ariketan, gure jolasean, horren ardura ere baduzu, diruaren ardura, ezin duzu bota..

(...)

Dena dela, hori guztia egin eta gero, soldaduak kendu, armada, egitura, armak ere bai..., inguruko batek, hurbilekoak, urrunekoak, berdin dio, inguruko estatu batek, militar batzuek, adibidez, erabakitzen badute halako batean zure ardurako pertsonak, zure herrikoak, zureak hiltzea, bortxatzea, fusilatzea, gas-ganberetan sartzea... Orduan lanak, ezta, Irene? Nola erantzun orduan? Zer? Beste estatu bati laguntza eskatuta beharbada? Beste armada bati? Baina hori ere ez da zure ideia nobleetan sartzen, ezta, Irene?”²²⁴.

Hipokrisiarekiko erneguz, edo gorrotoz apika, mintzo zaio bahitzailea protagonistari, Ireneren bertutea gauzatzeko modukoa izango ez balitz bezala; Irenek haragiztutzen dituen balio moralen jabe diren norbanakoen existentzia bera ezein justiziaren balizko artikulatze sozialen aurkako mehatxua bailitzan. Bahitzaileak sinestarazi nahi dio ez dagoela justizia egiterik, ez behintzat bake bidezko justiziarik, beti egongo direlako bakea baino boteretsuagoak diren indar oztopatzaileak. Irene zeharo aurka ageri zaio: *“Hori da*

la injusticia del mundo”. BONILLA, C. M. (2012). *El derecho a la digna ira*. Astrolabio: Revista Internacional de Filosofía, 483-487 or.

²²⁴ ELORRIAGA, U. (2014). *Iazko Hezurak*. Susa. 365-366. or.

*lehenengo gezurra*²²⁵. Zuzenbideak justiziaren baitan eraikitako bake baten sorreran izan dezakeen eragina auzitan jartzen du, beraz, galdekatzaileak, ez dagoelako, haren ustetan, justizia bakarrik. Irenek, ordea, askatasun indibidualean oinarrituriko justiziazko Zuzenbide batean sinetsiko du, protagonista eta antagonistaren arteko dualtasun moral bat irudikatuz. *“Zuzenbideari dagokionez, historian zehar hainbat aldiz frogatu den gisara, joku-arauen garrantzia izugarria da, une batetik bestera alda daitezkeelako, mutur batetik bestera”*. Legearekiko errespetuz ariko da Irene bizitza osoan zehar, baina legearen izeneko zenbait jokabidek izan ditzaketen ondorioen jakitun. Ondo jakingo du, bizitzan osoan zehar, legala ez dela justuaren sinonimoa, baina Laugarren atalean zehar biziko du hori azal propioan lehendabizikoz.

Irakurleak gizakiaren ertz eta berezitasunak deskubrituko ditu Irenerekin batera, atalase batetik bestera. *“Kontua da guztiok izan garela testiguak, hor egon garela, eta denok ikusi izan dugula zer zen munduan gertatzen zena. Edozein momentutan, baina, edonor beste aldera pasa daiteke, poliziaren, biktimaren, torturatuaren aldera, segundu batetik bestera. Irene biolentziaz inguratuta bizi izan da ume-umetatik; gero biolentzia ikusten, aztertzen eta kontzientzia hartzen hasten da, eta halako batean, biktima bihurtzen da”*.

Bertutedun norbanakoek, eginbehar inperatibo dute bertutezko jokamoldeak erreproduzitzen dituzten horiek kondenatzen dituen lege-ereduen aurka oldartzea, berandu izan baino lehen. Justizia egitea, beraz, bertutea zanpatzen duenari aurre egitea da, eta aurre egiteko gai izan ez ziren horietaz oroitzea; erreparazio bidezko justizia burutzeko alde batetik, etorkizuneko bakezko justizia askea fundatzeko bestetik. Hori da, behintzat, Elorriagaren hitzetatik erator daitekeen lezioa..

Horregatik guztiagatik *“Ygazco asto illac, aurten lurruna”* eta *Iazko hezurrak*, zulorik sakonenean hobiraturiko krimenek ere ikusiko dutelako noizbait argia, lurrunaren forma atzemanezinarekin bada ere. *“Atzo eginak gaur dauka ondorioa. Ezkutatzen saiatu arren, lurrunak salatuko zaitu. Kaltea dagianak bizarra lepoan”*²²⁶. Beti existituko da egindakoaren aitortzan oinarrituko den justizia-molde bat, autorearen ustetan, eta existitzeari uzten dion unean desagertuko da justizia. Hori gutxi balitz, aitortza bidezko

²²⁵ *Ibid.*, 365. or.

²²⁶ *“Kaltea dagianak bizarra lepoan”* Getxoko armarrian dagoen lema da.

justizia *terapeutikoa* da, funtsean, injustizien biktimei ongizate mentala lortzea posibilitatuko dien agente terapeutikoa delako²²⁷.

Memoria justiziaren printzipioetako bat da²²⁸, eta injustizia baten muinean parekotasunik eza dagoen heinean, desparekotasun horren jatorrian dauden “*hezur*” guztien “*lurruna*” hautematen jakitea da justizia. Egintza bat justua da asmo gogoetatsuz eta askatasun erabatekoz egina denean, betiere norbanakoaz haragokoa eta gainontzekoekiko erlatiboki justua denean; hitz batean, ekitatean oinarritzen denean²²⁹.

Ez dago ekitatez jokatzetik, bada, memorian oinarrituz egiten ez bada. Izan ere, ez legoke bidegabekeriez hitz egiterik akordatzeko ahalegina egin gabe, oroimenak soilik ahalbidetzen baitu iraganeko injustizien existentzia, eta baita haietaz aritzeko atea zabaltzen ere²³⁰. Konponezin denaren kontzientziaz²³¹ haratago, eta axolagabekeria zigorgarria ez bada ere, justiziaren egiteko gisa ulertu behar da memoria eraiki eta memorian eraikitzea. Ez dago injustiziaren memoria sakrifikatzerik, kontrara ez bailegoke justiziarako posibilitaterik. Azken instantzian, beraz, justiziaren erdiespenerako memoria ariketa entziklopediko gisa ulertu behar da *Iazko Hezurrak*. “*Esan nezake liburu hau dela lurruna*” zioen Elorriagak, eta baiezkotan nago, oroituko ditugula bertan esanak, eta oroituko dela obra bera ere. Lurruntzen denak baino ez du lur hartzen.

6. Ondorioak

Iazko Hezurrak lanaren bitartez gauzaturiko analisi *iusfilosofikoaz* gaindi egindako azterketari eskerrak esan liteke frogatua gelditu dela, farfaila emateko arriskutik ahal beste aldentuz, badirela Zuzenbidearen eta Literaturaren uztartzea bi sektoreentzako aberasgarria izango litzatekeela pentsatzeko aski arrazoi, eta hau ukatzea ebidentzia bati

²²⁷ WEXLER, D. B. (2014). *Therapeutic Jurisprudence: An Orientation*. Arizona Legal Studies Discussion Paper, 14-23 or.

²²⁸ MATE, R. (2012). *La memoria, principio de la justicia*. Ars Brevis.

²²⁹ ARISTOTELES. *La gran moral*. Filosofia.org. Lehen liburukia, XXXI. kapt.

²³⁰ HORKHEIMER, M. (1998). *Teoría crítica*. Amorrortu.

²³¹ MATE, R. (2012). *La memoria, principio de la justicia*. Ars Brevis. 105. or.

ezezko burugogorrez erantzutea dela. Dela zuzenbidearen irakaskuntzan²³², dela testuen analisisian²³³, dela praktikan juridikoak²³⁴, literaturaren balioa kolosala da.

Espainiar ordenamendu juridikoak zein haren baitako operadore juridikoek hobetzeke dituzten atalei erreparatuz, arlo juridiko profesionalei formakuntza literarioa eskaintzeak zein literatur kontsumoaren areagotzeak zenbait ekarpen interesgarri egin liezazkieke:

- Justiziaren praxi androzentristaren jatorrian dauden gabezia estrukturalak identifikatzeko makulu izan daiteke literatura, baita haien izateko zergatiak konprenitu eta eraldaketa ahalbidetuko duten alternatibak irudikatzeke eta abian jartzeko estimulu ere. Zuzenbidearen egungo aplikazioaren ondoriozko beste horrenbeste gutxiengoekiko zapalkuntza moldeekiko ere aplikagarria litzateke, noski, ondorio hau.
- Operadore juridiko nagusien zein epaile eta magistratuen arteko komunikazio jariakor eta eraginkorra ahalbidetzeko tresna izan daiteke, estrategia komunikatibo aproposak planteatzen laguntzeaz gain, haiek abian jartzeko ezinbestekoa baita literaturak baino eskaintzen ez dituen gutxieneko trebetasun linguistiko eta erretoriko batzuen eskurapena.
- Komunikazioaren eraginkortasuna areagotzeak trafiko juridikoa nabarmen azkartzea dakar, egungo geldotasunaren zergatien atzean dauden zenbait faktoreri eragingo liokeelarik literaturaren kontsumoak.
- Zuzenbidearen baitako eginbideak gauzatzeko ohiturarik ez duten herritarrenganako pedagogia juridikorako ariketa gisa eman daiteke literatura, zientzia juridikoaren oinarriak eta nahasgarriak gerta daitezkeen kontzepzioak, oro har, era lau eta konprenigarrian plazaratuz eta ulertaraziz.
- Fenomenologia juridikoaren baitako ikuspegi kritikoa zorrotzen ezinbesteko tresna da ere bada, errealitate fisikoan emandako zein jazo gabeko gertakariak imajinatu eta haien jirako ebazpen juridikoak egiteko parada eskaintzen baitu. Botere judizialaren independentzia falta, aktibismo judizialaren gorakada

²³² NABASKUES, I. (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. Aranzadi, Lehen edizioa. BUENO OCHOA, Luis. (2021). *Reflexiones sobre la interacción entre derecho literatura: A propósito de una experiencia docente*.

²³³ Ikus 36. Oin-oharra

²³⁴ WEISBERG, R. (1992). *Poethics And Other Strategies Of Law & Literature*. NUSSBAUM, Martha C., (1995). *Poetic Justice: The Literary Imagination And Public Life*.

graduala zein bestelako jazoera juridikoren aurrean, begirada analitiko eta jantziago batekin begiratzeko betaurrekoak eskaintzen ditu literaturak.

- Giza eskubideekiko errespetuaren eta haiek gotortzen jarraitzeko beharraren aldeko kontzientzia suspertzeko bitartekoa ere bada literatura. Eskubideon ongizatea erasan lezakeen edozein egitateren aurrean, bada, literatur irakurlearen aditasun maila altuagoa izango da, haien galerak edo kalteak suposa lezakeen atzerakada bertatik-bertara bizi izan duelako fikzioan.

Zuzenbideari zein justiziaren kontzepzioari zuzenki eragiten dioten balio-moralen aplikazio praktikoa ahalbidetuko duten jokabide-ereduak eskaintzeari dagokionez, bestalde, literaturaren haraindikotasuna ukazina da; ez pertsonaia eredugarri edo hasieragatazka-korapiloa-amaiera-ikasgaia trama eskematikoa duten narrazio mamurtuen bidez, giza moralaren imperfekzioen kosmos konplexua irudikatuz baizik. Literatura, beste edozein arte baino era nabarmenagoan, moralaren eta diskriminazioaren gogoetarako bidea da²³⁵.

Literatur piezen bidez gizakiak gozaten edo nozitzen duen Zuzenbidea hauteman daiteke, egunerokotasunean era ikusezinean paretik igarotzen zaigun eta haren presentziaz ohartarazten ez gaituen arau-multzoak eskain ditzakeen onura zein kalte bitalen eszenatoki baita fikzioa. Zuzenbidearen desagokitasunaren edozein aurpegik sor dezakeen angustia edota, kontrara, zuzenbidearen bitartez justizia erdiesteak dakarren bihotz-suspertzea egiazko balira gisa biziarrizteak ordenamendu juridiko ororen xede behar lukeena presente izaten urgatziko dio legelari irakurleari: zer den justizia egitea.

Legelari baten gaitasuna irizpide tekniko-juridikoen arabera neurtzea akatsa litzateke, bestalde; legelariak errealitate juridiko ororen nolakotasun konplexua ulertzeko atea zabalduko dion “*bertutea*” eduki beharko du, zuzenbidearen erroteriarren inguruko jakituriaz gain. Zientzia juridikoa unibertsala izanagatik, haren kasuan-kasuko aplikazioa guztiz partikular eta pertsonala izango da, eta beraz, kasu bakan batzuetan, arauen aplikazioa zuzena bera ere ez da aski justizia erdieste bidean. “*Bertutearen eskurapen*”-

²³⁵ SEATON, J. (1999). *Law and literature: Works, criticism, and theory*. Yale Journal of Law & the Humanities, 11. bol., 8. art., 29. or.

erako bitarteko paregabea da, hortaz, Literatura, legelariaren nortasunean beste era batean eskuratuko ez lukeen sentsibilitate berezi bezain ezinbesteko hori txertatzeko gai baita.

Law & Literature mugimendua, egun, post-kritizismo garaian koka daiteke²³⁶; balore positiboak eratzearen guttiz aurka zegoen “*normatibitate anti-normatiboa*”²³⁷ gaindituta, baina hartatik lezio baliotsu bat ikasita: norma juridiko oro interpretagarria da, eta interpretazio ahalik eta zabalenak egiteko ezinbesteko lanabesak dira zientzia humanistiko guztiak, literatura barne. Mugimenduaren hastapenetako dinamika humanistetarako itzulera bat eman dela ondoriozta daiteke, baina askotariko prisma berritzaileen alternatibapean, hala nola subjektuaren baitako tesi konstruktibistak, kritika negatiboaren gutxiestea edota linguistika berrien urgaineratzea.

Humanitatea imajinatzeko era berri bat sortu da korrontearen baitan, apalagoa, finagoa²³⁸, non Zuzenbidea ez den literaturak salbatua izan beharreko zerbait. Disziplina arteko espazio honek irudimena, fusio posibilitate desberdinak eta estilo kritikoen aintzatespena barnebilduko dituen topaleku izatea du helburu, agerian gelditu diren kontraesan eta paradoxetan trabaturik gelditzeko partez. Hala, azpimarragarri deritzot euskal literatura idatziak zein ahozkoak, bertsolaritzaren modalitatean batez ere, justiziaren zein haren operadore juridikoen gabeziak osatzen joka dezakeen paperaren praktikotasuna, zientzia juridikoari eskaintzak egiteko irudimen aktibitatearen baitan. Gure txikitik bada ere, badugulako zer eskainia.

²³⁶ SÁENZ, M. J. (2018). *Nuevos rumbos en Derecho y Literatura: post-crítica, el giro hacia la historia y extensiones del texto nacional*. Isonomía. Revista de Teoría y Filosofía del Derecho, 49, 1-17.

²³⁷ FELSKI, R. (2015). *The Limits of Critique*. Chicago, Chicago University Press.

²³⁸ Tonu berri bat hartu du egungo ikerketa iusliterarioak. Estilo berri horren barruan, Zuzenbidea eta Literatura legezko diskurtsoaren bazterketa adieraztera ere ausartzen da, eta baita legez aintzatetsiak diren pertsonalitate propio batzuk agertzera ere, lehenago “subjektu” izendatuak izango lirakeenak, zeinak autonomia erabateko baten faltaren eta agentzia sozial guztien parte izatetik gabetuak izatearen artean kokatzen diren. SMITH, C. (2017). *Who Wouldn't Want to Be a Person?*. New Directions in Law & Literature, 46. ANKER, E., MEYLER, B.. (2017). *New Directions in Law & Literature*. Oxford, Oxford University Press.

7. Eranskinak

1. Koadroa. Zuzenbide estatua Espainiar estatuan, *Rule of Law Index 2019 (World Justice Project)* delakoaren arabera.


	<i>España</i>	<i>Alema- nia</i>	<i>Francia</i>	<i>Italia</i>	<i>Portugal</i>	<i>de 38 países + ricos</i>	<i>España / media (%)</i>
Índice de calidad del estado de derecho	0.71	0.84	0.73	0.65	0.71	0.72	99%
Factor 1: Restricciones al poder del gobierno	0.72	0.85	0.74	0.71	0.79	0.73	100%
Factor 2: Ausencia de corrupción	0.72	0.82	0.75	0.63	0.72	0.74	98%
Factor 3: Apertura del gobierno	0.70	0.79	0.79	0.63	0.67	0.69	101%
Factor 4: Derechos fundamentales	0.78	0.85	0.74	0.73	0.79	0.75	104%
Factor 5: Orden y seguridad	0.77	0.89	0.74	0.74	0.79	0.83	94%
Factor 6: Entorno regulatorio	0.68	0.85	0.77	0.59	0.64	0.71	96%
6.1 La regulación se aplica de forma efectiva	0.67	0.77	0.70	0.59	0.64	0.67	99%
6.2 La regulación se aplica sin influencias indebidas	0.82	0.85	0.85	0.72	0.81	0.83	99%
6.3 Los procedimientos administrativos se llevan a cabo sin demoras injustificadas	0.57	0.82	0.71	0.44	0.54	0.64	89%
6.4 Se respetan garantías procesales en procedimientos administrativos	0.71	0.87	0.77	0.57	0.52	0.68	104%
6.5 El gobierno no expropia sin proceso legal y compensación adecuada	0.66	0.92	0.84	0.64	0.69	0.73	90%
Factor 7: Justicia civil	0.67	0.86	0.71	0.56	0.69	0.70	96%
7.1 Personas pueden acceder y permitirse justicia civil	0.76	0.78	0.67	0.62	0.69	0.68	112%
7.2 La justicia civil está libre de discriminación	0.72	0.85	0.57	0.57	0.81	0.69	105%
7.3 La justicia civil está libre de corrupción	0.71	0.88	0.75	0.67	0.79	0.80	89%
7.4 La justicia civil está libre de influencias inapropiadas del gobierno	0.66	0.91	0.77	0.69	0.78	0.73	90%
7.5 La justicia civil no sufre demoras irrazonables	0.52	0.83	0.60	0.31	0.42	0.56	93%
7.6. La justicia civil se aplica con efectividad	0.54	0.90	0.76	0.37	0.52	0.67	81%
7.7. Mecanismos alternativos de resolución de disputas accesibles, imparciales y efectivos	0.80	0.86	0.83	0.69	0.81	0.78	103%
Factor 8: Justicia criminal	0.66	0.78	0.63	0.64	0.60	0.65	101%

239

²³⁹ Iturria: ARRUÑADA, B. (2021). *La Seguridad Jurídica en España*. Estudios sobre la Economía Española – 2021/18. Fedea.

2. Koadroa. 2022ko Europar Batasuneko Justiziaren Puntuazio Informea. COM(2022) 234

Figure 36 Number of judges, 2012, 2018 – 2020 (*) (per 100 000 inhabitants) (source: Council of Europe's European Commission for the Efficiency of Justice (CEPEJ) study)




(*) This category consists of judges working full-time, in accordance with the CEPEJ methodology. It does not include the Rechtspfleger/court clerks that exist in some Member States. **AT**: data on administrative justice have been part of the data since 2016. **EL**: since 2016, data on the number of professional judges include all the ranks for criminal and civil justice as well as administrative judges. **IT**: Regional audit commissions, local tax commissions and military courts are not taken into consideration. Administrative justice has been taken into account since 2018.

240

3. Koadroa. 2022ko Europar Batasuneko Justiziaren Puntuazio Informea. COM(2022) 234

²⁴⁰ Iturria: *The 2022 EU Justice Scoreboard*. Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European, Central Bank, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. COM(2022) 234, 29. Orria

Figure 50 How the general public perceives the independence of courts and judges (*) (source: Eurobarometer ⁽⁹⁵⁾ - light colours: 2016, 2020 and 2021, dark colours: 2022)




(*) Member States are ordered first by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is very good or fairly good (total good); if some Member States have the same percentage of total good, then they are ordered by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is fairly bad or very bad (total bad); if some Member States have the same percentage of total good and total bad, then they are ordered by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is very good; if some Member States have the same percentage of total good, total bad and of very good, then they are ordered by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is very bad.

241

4. Koadroa. 2022ko Europar Batasuneko Justiziaren Puntuazio Informea. COM(2022) 234

Figure 52 How companies perceive the independence of courts and judges (*) (source: Eurobarometer ⁽⁹⁷⁾ - light colours: 2016, 2020 and 2021, dark colours: 2022)



(*) Member States are ordered first by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is very good or fairly good (total good); if some Member States have the same percentage of total good, then they are ordered by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is fairly bad or very bad (total bad); if some Member States have the same percentage of total good and total bad, then they are ordered by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is very good; if some Member States have the same percentage of total good, total bad and of very good, then they are ordered by the percentage of respondents who stated that the independence of courts and judges is very bad.

242

²⁴¹ Iturria: *The 2022 EU Justice Scoreboard*. Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European, Central Bank, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. COM(2022) 234, 40. Orria

²⁴² Iturria: *The 2022 EU Justice Scoreboard*. Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European, Central Bank, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. COM(2022) 234, 41. Orria

8. Bibliografia

8.1 Liburuak

- Adorno, T. (2000) (Bilbao, R.-ren itzulpena). *Consignas*. Amorrortu.
- Aguiar E Silva, J. (2001). *A prática judiciária entre direito e literatura*. Almedina
- Alexy, R. (2000). *El Concepto y La Validez del Derecho*. Gedisa Editorial.
- Alexy, R. (2008). *El concepto y la naturaleza del Derecho*, Marcial Pons, Madrid.
- Alpa, G. (1997). *Law & Literature: un inventario di questioni*. La Nuova Giurisprudenza Civile Commentata, Padova, 2. zenbakia.

- Amaya, A. (2012). *Derecho y literatura*.
- Anderson, M. (1992). *Kafka's Clothes: Ornament and Aestheticism*. Habsburg Fin de Siècle 192.
- Anker, E. & Meyler, B. (2017). *New Directions in Law & Literature*. Oxford, Oxford University Press.
- Arendt, H. (2004) (Solana G.-ren itzulpena). *Los Orígenes del Totalitarismo*. Taurus.
- Aristodemou, M. (2000). *Law & Literature: journeys from her to eternity*.
- Aristoteles. *La gran moral*. Filosofia.org.
- Atienza, M. (2020). *Una apología del derecho y otros ensayos* (Ser. Estructuras y procesos. derecho). Trotta.

- Axpe, M. R. V. (2019). *Virtudes epistémicas de las ciencias de la complejidad y la interdisciplinarietà*. Lumen, 68(3), 433-448 or.
- Bellamy, A. J. (2006). *Just wars: from Cicero to Iraq*.
- Bermejo Cabrero, J. L. (1980). *Derecho y pensamiento político en la literatura española*.
- Bernal, A. B. (2008). *Derecho y Literatura: un nuevo modelo para armar. Instrucciones de uso* .

- Bessone, N. (2017) *Quelle place pour la critique dans les théories critiques de la race?*. Revue philosophique de la France et de l'étranger.
- Bevere, A. (1996). *La giustizia in prosa e in versi. Antologia ragionata*. Nuove Ricerche.

- Biet, C. (2008). *Ficción judicial y ficción literaria: el ejemplo del factum. Derecho y literatura* . 20. bol., 3. zenb., 403–422 orr.
- Bruner, J. (2002). *La fabbrica delle storie: diritto, letteratura, vita*. Laterza.
- Bueno, L. (2021). *Reflexiones sobre la interacción entre derecho literatura: A propósito de una experiencia docente*. BOE, Biblioteca Jurídica, 95-117 or.
- Cabrillo, F. & Pastor, S. (2001), *Reforma judicial y economía de mercado*, VII Premio Círculo de Empresarios, Madrid.
- Calvo González, J. (1992). *Comunidad jurídica y experiencia interpretativa. Un modelo de juego intertextual para el Derecho*, Barcelona: Ariel.
- Calvo González, J. (1996). *Derecho y narración: materiales para una teoría y crítica narrativista del derecho*. Ariel.
- Calvo González, J. (2019). *La cultura literaria del derecho: alianzas transatlánticas*.
- Campos, A. (2001). *La Transexualidad y el Derecho a la Identidad Sexual*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Campos, G., & Martínez, N. E. L. (2012). *La observación, un método para el estudio de la realidad*. Xihmai, 7(13), 45-60 or.
- Capella, J. R. (1968). *El derecho como lenguaje. Un análisis lógico*, Ariel.
- Cavalaglio, L. (1998). *Literature vs. Economics, ovvero Richard Posner e l'analisi giusletteraria*. Vita Notarile, Palermo, v. 39, n. 1, 492-518 orriak.
- Ciceró (2000). *De la partición oratoria* (Reyes Coria, Bulmaro itzul.), UNAM, Colección Biblioteca Scriptorum Graecorum et Romanorum Mexicana, 2. edizioa.
- Cicerón (2000) (Bulmaro, R. C.-ren itzulpena). *De la partición oratoria*. UNAM, Colección Biblioteca Scriptorum Graecorum et Romanorum Mexicana, 2. Edizioa.
- Coleman, J. L. (2001). *Hart's Postscript: Essays on the Postscript to 'The Concept of Law'*. Oxford Academics.
- Crenshaw, K. & Gotanda, N. & Peller, G. & K. (1995). *Critical Race Theory: The Key Writings that Formed the Movement*. The New Press.
- Delgado, R. & Stefancic, J. (2023). *Critical race theory: An introduction* (Vol. 87). NyU press. 4. ed.

- Díaz, V. (2011). *Calidad de la ley, técnica legislativa y eficiencia administrativa*. Prolegómenos: Derechos y valores, 14(27), 147-163 or.
- Ellen, W. & Thalia, G., & Stéphan, V. L. (2014). *¿El arte por el arte? La influencia de la educación artística*. OECD Publishing.
- Escudero, M. C., & Gajardo, J. (2020). *Nueva Constitución y proceso constituyente*. IdeAs
- Falcón y Tella, M. J. (2015). *Derecho y literatura*. Marcial Pons.
- Ferrari, M. (2010). *Los principios de legalidad y seguridad jurídica como fundamentos del proceso de integración del Derecho para colmar las lagunas de la ley en Cuba*.
- Figueiredo, L. M. (2000). *La filosofía narrativa de Alasdair MacIntyre*. Eunsa.
- Fina Sanglas, A. (1993). *Justicia y literatura*. Bosch.
- Fish, S. (1989). *Doing What Comes Naturally. Change, Rhetoric, and the Practice of Theory in Literary and Legal Studies*, Clarendon Press, 1989
- Foucault, M. (1996). *La vida de los hombres infames*. Altamira.
- Fuller, E. (1947): *Law in Action: An Anthology of the Law in Literature*. New York: Crown Publishers.
- Gaakeer, A. M. P., OST, François. (2008) *Crossing Borders: law, language and Literature*, Wolf Legal Editores, Herbehereak.
- Galiano, D., González, D. (2012). *Integrating Law in the Face of Legal Voids - An Unavoidable Need in Favor of Applying Law Appropriately*, Díkaion.
- García Amado, J. A. (2003): “Breve introducción sobre derecho y literatura”.
- Gartzia, J., Sarasua, J., Egaña, A. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. Bertsozale Elkarteak.
- Heald, P. (1998): *A Guide to Law & Literature for Teachers, Students, and Researchers*. Durham.
- Horkheimer, M. (1998). *Teoría crítica*. Amorrortu.
- Iturralde, V. (1989). *Lenguaje legal y sistema jurídico. Cuestiones relativas a la aplicación de la ley*, Tecnos.
- Juri, M. A. (2019). *El narrativismo de Alasdair MacIntyre: una propuesta de restauración epistemológica de la Filosofía Práctica a partir de la Historia*.

- Kant, I. (1978) (Rivas, P.-ren itzulpena). *Critica de la Razón Pura*. Editorial Alfaguara.
- Kinkley, J. C. (2000). *Chinese justice, the fiction: Law and literature in modern China*. Stanford University Press.
- Lemkin, R. (2012). *Lemkin on genocide*. Lexington books.
- Luque, P. (2020). *Las cosas como son y otras fantasías*. Anagrama.
- Macintyre, A. (2013). *After virtue*. A&C Black.
- Marí, E. E. (1998). *Derecho y literatura: algo de lo que sí se puede hablar pero en voz baja*.
- Mate, R. (2012). *La memoria, principio de la justicia*. Ars Brevis.
- Melero, M. C. (2007). *Derecho e interpretación en Ronald Dworkin*.
- Mil., J. S. (1874). *Essays on Some Unsettled Questions of Political Economy*, 2nd ed. London: Longmans, Green, Reader & Dyer.
- Mill, J. S. (1836). *On the Definition of Political Economy, and on the Method of Investigation Proper to It*. London and Westminster Review.
- Monterroso, A.. (1972). *Movimiento Perpetuo*.
- Morin Flores, A. N. (2020). *Beneficios del estudio de la literatura en la formación jurídica*. Analéctica.
- Muñoz, J. C. (2020). *Un replanteamiento al significado del Activismo Judicial*. Universitas, 2021, 34. Zenbakia - 75-96 or.
- Nabaskues, I., (2012). *Derecho y literatura: el sentido de la justicia en las novelas de Robert Louis Stevenson*. 1. edizioa. Aranzadi.
- Nash, C. (1990). *Narrative in Culture: The Uses of Story-Telling in the Sciences, Philosophy and Literature*. London, Routledge.
- Nassbaum, M. (1995). *Poetic Justice: Literary Imagination and Public Life*, Boston: Beacon Press.
- Nussbaum. M. (1995). *Poetic Justice: Literary Imagination And Public Life*. Beacon Press.
- Pérez Vázquez, C. (2005). *Poetry and the Law: An Interpretive Relation*,
- Posner, R. (1988). *Law & Literature: A Misunderstood Relation*. Harvard University Press; 1. ed.
- Posner, R. A. (2000). *Law & Literature*, Harvard University Press.

- Posner, R. A. (2014). *Economic analysis of law*. Aspen Publishing.
- Rawls, J. (2012). *Teoría de la justicia*. Fondo de cultura económica.
- Renkema, J. (2004). *Introducción a los estudios sobre el discurso*. Gedisa.
- Ricœur, P. (1998). *La metáfora y el símbolo, Teoría de la interpretación*, 1. ed., México, Siglo XXI Editores.
- Roggero, J. (2017). *Derecho y literatura: textos y contextos*. Eudeba.
- Sáenz, M. J. (2019). *Derecho y literatura: el proyecto de Martha Nussbaum*.
- Salaberria, A. (2020). *Ruandako Genozidioa Justizia Trantsizionalaren ikuspegitik*. EHUko Gradu Amaierako Lana.
- Sansone, A. (2001). *Diritto e letteratura. Un'introduzione generale*. Milano. Giuffrè
- Schwartz, G. (Meinero, F.P.-ren itzulpena) (2011). *La constitución, la literatura y el derecho*. Buenos Books América.
- Solan, L. M. (1993). *The Language of Judges*. The University of Chicago Press.
- Talavera, P. (2006) *Derecho y literatura. El reflejo de lo jurídico*. Comares
- Talavera, P. (2006). *Derecho y literatura: el reflejo de lo jurídico*. Comares.
- Torres, O. (2017) *Derecho & Literatura. El derecho en la literatura*. Libitum.
- Triguero, E. P. (2013). *Cita-logía*. Punto Rojo Libros.
- Velho, G. & M. Alvito (1996). *Cidadania e violência*, UFRJ/FGV.
- Wigmore, J. H. (1907). *List of legal novels*.

8.2 Artikuluak

- Nabaskues, I. (2017). *Panorama actual de la calidad normativa en el ordenamiento tras la aprobación de la Ley 39/2015*. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria, 109. Zen., 389-419. Or.
- Amandi, V. R. (2006). *El concepto de Derecho de Ronald Dworkin*. Revista de la Facultad de Derecho de México, 56(246), 355-412 or.
- Andersdotter, K. (2017). *Fatti alternativi e fake news: La verificabilità nella società dell'informazione*. AIB Studi, 57(1), 5–6 or.
- Arruñada, B. (2020). *Mala leyes*. Información Comercial España. Revista de Economía, 915 (uztaila-abuztua), 9–28 orriak.

- Arruñada, B. (2021). *La Seguridad Jurídica en España*. Estudios sobre la Economía Española – 2021/18. Fedea.
- Audain, L. (1992). *Critical legal studies, feminism, Law and economics, and the veil on intellectual intolerance: a tentative case for cross-jurisprudential dialogue*, Hofstra Law Review 1992, issue 4.
- Baéz, J. F. (2021). *Pedagogía jurídica como acción transformadora*. Fondo Editorial para la Investigación Académica (FONEIA).
- Battaly, H. (2008). *Virtue epistemology*. Philosophy Compass, 3(4), 639-663 or.
- Bayo, J. (1996). *La formación básica del ciudadano y el mundo del Derecho*. Crítica lingüística del lenguaje judicial. Revista de Llengua i Dret, 25. Zenbakia.
- Bobio, N. (1963). *Lacune del diritto*. Novissimo Digesto italiano, Utet, IX. bol., 418. or.
- Boco, R., & Bulanikian, G. (2010). *Derechos humanos: universalismo vs. relativismo cultural*. Alteridades, 20(40), 9-22 or.
- Bonilla, C. M. (2012). *El derecho a la digna ira*. Astrolabio: revista internacional de filosofía, 483-487 or.
- Boyd White, J. (2008). *Establishing Relations Between Law and Other Forms of Thought and Language*. Erasmus Law Review, 1, 3-22 or.
- Bueno, G. (2003). *El concepto de tortura y de otros tratos crueles, inhumanos o degradantes en el derecho internacional de los Derechos Humanos*. Nueva Doctrina Penal. Buenos Aires, 603.
- Cardozo, B. (1925). *Law & Literature*. The Yale Review, New Haven, n. 14, p. 699-706, jul. 1925.
- Chroust, A. H. (1942). *Aristotle's conception of equity (Epieikeia)*. Notre Dame Law., 18
- Cosentino, F. (1993). *Analisi giuridica della letteratura. L'esperienza italiana*. Quadrimestre. Rivista di Diritto Privato, Milano, 3. zenbakia, 622- 670 or.
- Cosentino, F. (1996). *Law & Literature: bagliori italiani*. Rivista Critica del Diritto Privato, 1. zenbakia, 179-195 or.
- De La Rosa, J. M. (2017). *Los principios del derecho procesal penal de menores: instrumentos internacionales, doctrina de la fiscalía general del estado y jurisprudencia*. Centro de Estudios Jurídicos.

- Diez, R. (2008) *Dejemos en paz a la literatura*. Isonomía, Revista de Filosofía y Teoría del Derecho. 29. Zenbakia.
- Dolin, K. (2007). *A Critical Introduction to Law & Literature*. Cambridge University Press.
- Dworkin, R. (1985). *How Law is like Literature, A Matter of Principle*. Harvard University Press, 146-166 or.
- Dworkin, R. M. (1982). *Ley como interpretación*. JSTOR: “La política de la interpretación”. 9. bol., 1. zen.
- Gaakeer, J.. (1998). *An Introduction to the Work of James Boyd White*. University of Michigan.
- García, Y. (2012). *Calidad de las leyes: algunos puntos críticos*. Revista Ratio Juris, 7(14), 21-52 or.
- Hart, H. (1961). *The Concept of Law*. Clarendon Press.
- Karam Trindade, A., Magalhães Gubert, R. (2009). *Acercamientos y perspectivas para repensar el derecho*. Revista Electrónica del Instituto de Investigaciones Jurídicas y Sociales Ambrosio Lucas Gioja, 164-213 or.
- Kennedy, D.. (2000). *A Critique of Adjudication: Fin de Siecle*. Cardozo L. Rev., 22, 991.
- Lespada, G. (2015). *Violencia y literatura. Literatura y violencia en la narrativa latinoamericana reciente*. Universidad Nacional de la Plata. Colectivo crítico, 2. 35-56 or.
- Levinson, S. & Mailloux, S. (1991). *Interpreting Law & Literature. A Hermeneutic Reader*. Northwestern University Press.
- Lizarralde, M. D. (2017). *Derecho a entender*. Iudicium, (2), 139-156 or.
- Lozada, A. (2018). *Activismo Judicial y Derechos Sociales. Un enfoque Postpositivista*. DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho, 41. 212. or.
- Martín-Retortillo, L. (2003). *La calidad de la Ley según la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos*. Derecho Privado y Constitución. 17. Zenbakia, 377-406 or.
- Moral, A. & Rosales, V. & Martín-Román, A. M. (2021). *Professional vs. non-professional labour judges: their impact on the quality of judicial decisions*. International Review of Law and Economics, 65. zen.

- Obarrio Moreno, J. A., & Obarrio Moreno, J. A. (2017). *Iura et humanitas : diálogos entre el derecho y la literatura* (Ser. Monografías de derecho romano y cultura clásica sección cultura clásica). Dykinson.
- Pereda, C. (1998). *Teorías de la Interpretación. Ensayos sobre Filosofía, Arte y Literatura*, México, 1. ed., FFyL/UNAM/CONACYT, 103-124 or.
- Pérez, C. (2006). *Derecho y literatura. Isonomía*, (24), 135-153 or.
- Pérez, J. M. (2016). *Derecho y Literatura. Ius fugit: Revista interdisciplinar de estudios histórico-jurídicos*, 19. zen., 359-361 or.
- Pinzón, B. A. (2010). *La educación jurídica como práctica de construcción social: hacia una reflexión pedagógica*. Revista Logos, Ciencia & Tecnología, 2. Zenbakia, 65-83 or.
- Posner, R. (1979). *Utilitarianism, economics and legal theory*. Journal of legal studies, 8. zen.
- Posner, R. (1987). *The decline of law as an autonomous discipline: 1962-1987*. Harvard Law Review, 100. Ed., 761. orria eta hurrengoak
- Posner, R. A (1986). *El significado ético de la libre elección: una respuesta al profesor West*. 99 Harvard Law Review 1433.
- Raz, J. (1998). "*Interpretation Without Retrieval*" Marmor A.-ren baitan (konp.), *Law and Interpretation. Essays in Legal Philosophy*, Oxford University Press.
- Robinson, M. S. (1982). *The Law of the State in Kafka's The Trial*. 6. ALSA Forum.
- Rodríguez, E. V. (2019). *La Justicia Feminista Anticolonial: claves interdisciplinarias para incidir en el Derecho Patriarcal de un Capitalismo Neoconservador*. Nuestrapraxis. Revista de Investigación Interdisciplinaria y Crítica Jurídica, 3(5), 29-46 or.
- Sáenz, M. J. (2018). *Nuevos rumbos en Derecho y Literatura: post-crítica, el giro hacia la historia y extensiones del texto nacional*. Isonomía. Revista de Teoría y Filosofía del Derecho, 49, 1-17 or.
- Segovia, A. (2015). *La Técnica Legislativa en la Elaboración de Anteproyectos de Leyes*. Gabilex, 1. zen.
- Seaton, J. (1999). *Law and literature: Works, criticism, and theory*. Yale Journal of Law & the Humanities, 11. bol., 8. art., 29. or.

- Smith, C. (2017). *Who Wouldn't Want to Be a Person?*. *New Directions in Law & Literature*, 46. zen.
- Suárez, L. (2017). *Literatura del Derecho: Entre la ciencia jurídica y la crítica literaria*. *Anamorphosis. Revista Internacional de Direito e Literatura*. 3. bol., 2. zen.
- Trindade, A. K. & Gubert R. M., (2009). *Derecho y literatura. Acercamientos y perspectivas para repensar el Derecho*, “Ambrosio L. Gioja” aldizkaria.
- Trindade, A. K., & Gubert, R. M. (2009). Derecho y literatura: acercamientos y perspectivas para repensar el derecho. *Revista Electrónica del Instituto de Investigaciones Jurídicas y Sociales Ambrosio Lucas Gioja*, (4), 164-213 or.
- Ward, I. (1993). *Law & Literature*. *Law and Critique*, IV. bol., 1. zen.
- Ward, I. (1995). *Law & Literature: possibilities and perspectives*. Cambridge University Press.
- Weisberg, R. H. (1988). *Entering with a vengeance: Posner on Law & Literature*. *Stan. L. Rev.*, 41. zen.
- West, R. (1985). *Authority, Autonomy, and Choice: The Role of Consent in the Moral and Political Visions of Franz Kafka and Richard Posner*. Georgetown Law Faculty Publications and Other Works, 489. zen.
- West, R. (1996). *The Literary Lawyer*, *Pacific Law Journal*, 27. zen.
- Wexler, D. B. (2014). *Therapeutic Jurisprudence: An Orientation*. *Arizona Legal Studies Discussion Paper*, 14-23 or.

8.3 Literatur lanak

- Atwood, M. (2020) (Garro, Z.-ren itzulpena). *Neskamearen ipuina*. Txalaparta.
- Atxaga, Bernardo (1988). *Obabakoak*, Erein.
- Autore ezezaguna (Zubizarreta, P.-ren itzulpena) (2002). *Mila gau eta bat gehiago*. Erein.
- Camus, A. (1942). *L'Étranger*. Éditions Gallimard.
- Capote, T. (1966). *In Cold Blood*. Penguin.
- Elorriaga, Unai (2001). *Literatur ideia batzuk*. Labayru Ikastegia, 1. Edizioa.
- Elorriaga, Unai (2001). *SPrako tranbia*. Elkar.
- Elorriaga, Unai (2003). *Van 't Hoffen ilea*. Elkar. Honako lanak, bestalde, *Igartza Saria* irabazi zuen.

- Elorriaga, Unai (2005). *Vredaman*. Elkar.
- Elorriaga, Unai (2006). *Matxinsaltoen belarriak*.
- Elorriaga, Unai (2009). *Londres kartoizkoa da*. Elkar.
- Elorriaga, Unai (2012). *Zizili*. Elkar.
- Elorriaga, Unai (2014). *Iazko Hezurak*. Susa.
- Elorriaga, Unai (2015). *107 kiwi*. Elkar.
- Elorriaga, Unai (2018). *Erraldoiek ez dute lagunik jaten*. Begiko.
- Elorriaga, Unai (2019). *Iturria*. Susa.
- Golding, W. (1954). *Lord of the Flies*. Faber and Faber.
- Graves, R. (1934). *I, Claudio*. Arthur Barker.
- Kafka, F. (2006). *El Proceso*. Ediciones Colihue Srl.
- Kafka, Franz (1960). *La Metamorfosis* (No. 801.952/K11). Planeta Colombiana C1985.
- Kafka, Franz (2021). *In The Penal Colony*. Phoemixx Classics Ebooks.
- Levi, P. (2011) (Olano, M.-ren itzulpena). *Hau Gizon Bat Bada*. Alberdania.
- Lobo Antunes, A. (2013) (Roque, I.-ren itzulpena). *Gauzen Ordena Naturala*. Literatura Unibertsala Bilduma. Alberdania, Igela Eta Erein.
- Marx, K. (2023) (Santamaria I.-ren itzulpena). *Luis Bonaparteren Brumairearen Hemezortzia*. Igela.
- Orwell, G. (1949). *Nineteen Eighty-Four*.
- Sands, P. (2017) (Rámos, F. J.-ren itzulpena). *Calle Este-Oeste*. Anagrama.
- Sarrionandia, Joseba (1983). *Narrazioak*. Elkar.
- Uribe, Kirmen (2008). *Bilbao-New York-Bilbao*, Elkar.

8.4 Legedia

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa
- 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena
- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila onartzen duena
- 1946ko abenduaren 11ko NBEren batzar orokorraren 96 (I) Erresoluzioa
- 1948ko abenduaren 9ko 260 A (III) ebazpena, Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioarena.
- Espainiako Konstituzioa (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29koa).

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Konbentzioa, Erroman 1950eko azaroaren 4an sinatua
- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena berresteko agiria, Erroman eginia 1950eko azaroaren 4an, eta 1963ko maiatzaren 6ko eta 1966ko urtarrilaren 20ko 3. eta 5. protokolo gehigarriek zuzendua, hurrenez hurren
- Herritarrek Justizia Administrazioaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna, 2002ko apirilaren 16koa. Legez besteko proposamena, Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak 2002ko apirilaren 16an aho batez onartua.

8.5 Jurisprudentzia

- Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren “*Dudgeon Ipar Irlandaren aurka*”, 1981eko urriaren 22koa.
- Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren “*Klass eta beste batzuk Alemaniaren kontra*”, 1978ko irailaren 6koa
- Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren “*Marks Belgikaren aurka*”, 1979ko ekainaren 13koa
- Auzitegi Konstituzionalaren 2022\177 autoa, 2022ko abenduaren 19koa
- Auzitegi Konstituzionalaren 46/1990 epaia, 1990eko martxoaren 15ekoa
- Auzitegi Konstituzionalaren 38/1982 epaia, ekainaren 22koa,
- Auzitegi Konstituzionalaren 62/1982, azaroaren 17koa
- Auzitegi Konstituzionalaren 195/2005, uztailaren 18koa

8.6 Web-orriak

- <https://www.boe.es/> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- <https://elhype.com/literatura-y-derecho/> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- <https://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/libro/premios.html> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- <https://elpais.com/autor/unai-elorriaga/> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- https://elpais.com/diario/1981/09/26/ultima/370303206_850215.html (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

- <https://es.euronews.com/2022/12/20/el-tribunal-constitucional-paraliza-la-tramitacion-parlamentaria-de-los-cambios-en-el-pode> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- https://www.berria.eus/egilea/Unai_Elorriaga (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- <https://www.inf.utfsm.cl/~ric/textos/saramagodiscursoronobel.pdf> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).
- <https://dle.rae.es/> (Azken aldiz 2023ko maiatzaren 14an eguneratua).

8.7 Txostenak

- *The 2022 EU Justice Scoreboard*. Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Central Bank, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. COM(2022) 234
- *Informe sobre el Estado de Derecho en 2021*, Capítulo sobre la situación del Estado de Derecho en España
- *Informe sobre el Estado de Derecho en 2022*, Capítulo sobre la situación del Estado de Derecho en España